



TXOMIN MADINA

Debagoienez ere, Stop Kaleratzeak

Arrasaten egin dute eratze prozesua, asteon, eta elkarte irekia dela azpimarratu dute | 5

'Sortuko dira besteak' kantaldia
Elgetako Espaloian domekan | 33



Sorturen oinarri ideologikoak
finkatzeko hitzorduak | 4



Bergarako Olaso Dorrea, Euskal
Herriko jakintsuen topagune | 30



**DISKO LARANJA,
INOIZ BAINO
'GOSEAGO'**

Taldearen "disko onena"
aurkeztu dute Ibaizabalen | 34

Jon Zubiaga Osoron, Ines Osinaga eta Iñaki Bengoa, itsasontzian, diskoa aurkezten. | ARGAKZI PRESS

"Erronkak dira Goiena herritarrekin egitea eta hiperlokaltasuna"

Iban Arantzabal

Goiena Komunikazio Zerbitzuetako
zuzendari nagusi berria | 6




Euskal hedabideen elkartea aurkeztu dute Donostian: Hekimen

Publikoak ez diren 50 komunikabide baino
gehiagoren lana bideratzera dator | 4

**Espainiako
bandera
ipintzera
derrigortuta**

Eskoriatza izango da
lehen, bihar, ikurrina
omendu ostean | 2

**Sexu-indarkeria
salatzeko deiak
gurean** | IKUS 'HERRIAK' SAILA



Indarkeria salatzeko puntu lila.

SINADURAK

	Lurralde historikoak 8 MANEX AGIRRE
	8 Pailazo artean oraindik ere OIHANA ELORTZA
	Gerra bat platerean 14 OIHANA ZUBIZARRETA
	40 Errua gurea balitz bezala AGURNE BARRUSO

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 |
IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 |
ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 |
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Passat Alltrack berria



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Das Auto.

Carrefour GORBEIA Azaroaren 27ra arte

DATOZ DOAN Carrefour

2. alea
-%70

*60€ baino gehiagoko erosketa eginda, Carrefour Gorbeia etortzeko AP-1eko autobidea ordaintzen dizuegu.
-Ezinezbestekoa da autobideko tiketa aurkeztea.
-Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.
-2013ko urtarrilaren 5a arte

Espainiako bandera ipintzera behartuta daude

- Espainiako epaitegiek legea betearazten dute
- Eskoriatza da lehena: bandera ipini beharko du
- Bihar ipiniko dute, ikurrina omendu eta gero

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Espainiako legeek eta epaitegi-sistemak markatzen dituzten epeak bukatzeaz daude Debagoieneko udalendako, eta ez dute buruhauste makala alkateek: Espainiako banderen legeari men egin eta Espainiako bandera ipini, edo legea ez bete eta ondorioetarako gertatu.

Gogoz kontra, legea beteko duen lehenengoa Eskoriatzako Udala izango da, joan den eguean egindako osoko bilkuran jakinarazi zuen moduan. Bihar, zapatua, 19:30ean, ikurrinari omenaldia egingo diote; gero, lege-betearaztea salatuko dute; eta azkenik, banderak bistara ipiniko dituzte. Baina bere modura egingo du: denetara 26 bandera ipiniko ditu, Eskoriatzan bizi direnen nazionalitateen ikur gisa. Espainiakoa eta ikurrina tartean. Banderen Legeak dioena beteaz, udaletxe barruan eta kanpoan, begi-bistan den leku baten ipiniko ditu bi bandera sorta.

Ez da atzo goizekoa bandaren inguruko ausia. Urte asko dardoate euskal udalek eta bestelako erakunde publikoek Espainiako Gobernuak eta epaitegiek agintzen dutena saihesten. Horretarako, Debagoieneko udalek zuzenean agindua ez betetzeko bidea hartu dute betidanik; hementik kanpo, azkenaldian, beste aukera batzuk hartu dira, hala nola Espainiako bandera "inpo-



Gorri-horia eta ikurrina. | GOIENA

saketa" zela adierazteko plaka ipintzea –Gipuzkoako Foru Aldundian– edo gorri-horiarekin bat ikurrina eta Europako bandera ipintzea eta, gainera, balkoian ipini beharrean, lurrean ipinitako masta batzuetan.

Badirudi, izan ere, legea betetzeko momentua datorren neurrian, irudimenez betetako irtenbideak ikusiko direla Debagoienean.

"Bakarrik atzeratu egingo da"

Banderen Legea 1981ekoa da. Orain arte, hori baztertu ahal izan dute Debagoieneko udalek. Iaz, udan, udalbatza berriak osatu eta segituan, Euskadiko udal guztiei idatzia bidali zien Espainiako Gobernu ordezkariak, "legea denondako berdina" dela gogoraraziz eta, beraz, bandera ipintzea tokatzen zitzaiela esanez. Debagoieneko udalek modu

berean erantzun zuten: agindua ez zuten bete; eta, bestetik, aholkulari juridikoak kontsultatu zituzten.

Denborak aurrera egin ahala, Estatuko Abokatuak salaketa ipini zien Gobernu Ordezkariaren errekerimendua bete ez zuten 60 inguru euskal udalei; tartean, Debagoieneko udal gehienei. Orduz geroztik epaitegietan egon da kontua, eta orain epaia irten da edo irtetear dago, kasuan kasu.

Hala, epaitegietan dago kontua kasu gehienetan, eta, ezuste handirik ez badago, epaiak legea betetzea aginduko die Debagoieneko udal guztiei. Hala, udal iturriek onartu dute badakitela "bakarrik bandera ipintzea atzeratzeko" balioko duela epaitegietara jotzeak.

Eskoriatzako hilaren 15eko osoko bilkuran alkateak, Beñat Herce, irakurri zuen adierazpenak laburtzen du udalen egoera eta iragartzen du, gutxi gorabehera, Debagoieneko beste herrietan zer gertatuko den datozen asteotan: "2010. urtean Estatuko abokatuak Eskoriatzako Udalari 39/1981eko legeak xedatutakoa betetzea eskatu zion: hau da, Espainiako bandera udalletearen kanpoaldean eta pleno aretoan jartzea. Udalak, sententzia horrekin ados egon ez denez, bi urte hauetan ez du eskatutakoa bete, baina momentu honetan sententziak dioena derrigorrez



Debagoieneko udaletxeak. | JOSETXO ARANTZABAL / GOIENA

bete beharra dago, bete ezean udalaren aurkako neurri zorrotzak aplikatu daitezkeelako". Gaineratu zuenez, "tamalez, neurri honen kontra Eskoriatzako Udalak egin zezakeen guztia egin du, baina ez du ondorioz izan".

Isun handiak –milaka eurokoak– eta, txarrenera joanda, alkatearen inhabilitazioa dira etor daitezkeen neurri zorrotz horiek. Hortik dator Eskoriatzako Udalak hartu duen irtenbidea. Alkateak "jazarpena gogo biziz salatu" zuen, baina "egoera apro-

betxatu behar" dela ere esan zuen, eta herritarrak gonbidatu zituen "nork bere etxeko balkoian bere nazioko bandera eskegitzera". Izan ere, "Eskoriatza guztiok gara, hemen jaioetakoak edo 5.000 kilometro haratago jaioetakoak. Ondorioz, herritartasuna herriak berak emana izan behar du".

Bide batez, Espainiako Estatu eta Gobernu ordezkariak, udaletxeetan bistara dauden euskal presoen aldeko pankartak eta izarak direla-eta, auzitara eraman ditu zenbait udal eta auzitegietan

ESANAK

"Egin zezakeen guztia egin du Udalak. Epaia bete ezean, neurri zorrotzak etorriko dira"

BEÑAT HERCE
ESKORIATZAKO ALKATEA

"Gure garaian hainbeste lan egin eta gero... Baina nik uste dut etorriko dela beste buelta bat"

JULIAN UNTZUETA
1977KO ALKATE TALDEKOA

Gipuzkoa BERRIA

Martin Garitano diputatu nagusiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariarekin bilerak.

Etorri eta parte hartu!

Gaiak:
2012 balantzea
2013 aurrekontuak

Azaroak 27 BERGARA
Zabalotegi 19:00



dago oraindik kontua. Beste batzuek ez dute ez salaketarik, ez hura kentzeko agindurik ere jaso.

Balkoian, ikurrina

Eskoriatzako alkateak herritarrei egindako deiarekin bat dator Jose Antonio Altuna Txatillo arrasatearra, bere garaian ikurrina legeztatu zedin lortu zuten alkate haietako bat, eta honakoa esan zigun: "Erantzun gisa, nik argi daukat zer egingo nukeen: etxe-ko balkoietan Realaren eta Athleticen-eta banderak ipini beharrean, ikurrina ipintzea". Albisteak ez zuela ezustean harrapatu esan zigun: "PPkoak ezagutzen ditut eta haiek agintzen duten bitartean, edozer gauza egingo dute Espainiako bandera ipini dadin".

Altunaren iritziz, "buruhaustea orain alkateek dute, eta eurek erabaki beharko dute zer egin", baina ipintzeko derrigortasunaren aurrean "ezer egiterik egongo ez" dela uste du.

Alkate-talde hartako Julian Untzueta aramaioarrak lege-be-tearaztea bazetorrela entzun zuen berbaz berba herrian. "Edo behar-bada neuregana etorri ziren partikularrean horixe komentatzera; baina ezin dut sinistu, ez dut aditu ere egin gura", esaten zuen Untzuetak. Ikurrinaren alde "hainbeste lan egin eta gero, penaz" zegoela, baina hala ere baikor agertzen zen: "Nik uste dut etorriko dela beste bueltaren bat".

Elena Laka abokatuak hauxe esan digu: "Legea garbia da: bandera ipini egin behar da. Beraz, bi aukera dituzte: edo bete, edo ez bete".

Lakak dioenez, Eskoriatzako Udalak aukeratutako bidea balekoa da, legearen ikuspegitik; Espainiako bandera ipintzen bal-

din bada, berdin da beste 25 ere harekin batera ipintzea.

Legea betetzen ez duena bandera bat ere ez ipintzeko aukera da -nahiz eta ikurrina ere ez ipini, legea ez da betetzen-, zenbait erakundek hartu izan dutena.

Bergarako epaitegi kanpoan

Banderen Legeak administrazio publiko guztien erakunde guztiei eragiten die eta Espainiako bandera "leku preferentean" eta bistara ipintzea agintzen du. Euskal Herrian bada bandera ipinita duten erakundeak: adibidez, Iru-nen (PSE-EE) aspalditik dago ipinita, eta Patxi Lopezen agintaldian, Eusko Legebiltzarrean ere egon izan da.

Debagoienean ere badago aurrekaririk: Bergarako epaitegian bandera ipini zuten iazko apirilean, Auzitegi Gorenak aginduta. Handik gutxira, Espainiakoa erre egin zuen bateren batek.

Donostiako Udalaren kasuan, Odon Elortza alkate izan zen bitartean, betetzen zen legea. Juan Karlos Izagirre alkate denetik, hainbat istilu izan dira banderaren kontura: kenduta, agerian baina apurtuta... egon izan da. Bilduk Espainiako II. Errepublikako bandera jaso zuenean apirilaren 14a ospatzeko, "legea mespretxatzen" zuela leporatuta salaketa ipini zioten Udalari. Azkenean, Espainiakoa, Donostiako, Gipuzkoakoa, Europako Batasunarena eta ikurrina, denak lurrean ipinitako mastetatik zintzilik ipini zituen Udalak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan ipini zuten bandera; gero, keinu horren kontrako adierazpena zuen plaka ipini zuten. Horren kontura ere ikamika egon zen. Azkenean, kendu egin zuten, alkatearen inhabilitazioaren beldur.

Banderen Legeak dioena

ERAIKIN GUZTietan

Espainiako bandera administrazio guztietako eraikin guztien kanpoan ipini beharko da, eta barruan, leku preferentean.

ERKIDEGOKOA Bere bandera estatutueta errekonozituta duten erkidegoek Espainiakoaren ondoan ipin dezakete.

HANDIENA Gainerako banderak ezin izango dira Espainiakoa baino handiagoak izan, eta Espainiakoa ohore goreneko lekua izango du.

Bide guztiak agortu arte

IAZ, UDAN

Gaur egungo udalbatzak eratzearekin bat, Espainiako Gobernuaren aurreko ordezkariak, Mikel Cabiecesek, gogorarazpen edo errekerimendua bidali zien EAEko 100 bat udali, iaz, udan.

EZ ZUTEN BETE

Zenbait udalek bete egin zuten, gogoz kontra halere: Donostiako Udalak, adibidez. Debagoieneko batek ere ez zuen bete.

AUZITEGIRA

Errekerimendua bete ez zuten 60 bat udalei -Debagoieneko gehienak barne- salaketa ipini

zien Estatuko Abokatuak. Beste batzuek, ordea, ez dute salaketarik jaso.

ERABAKIA

Epaia irteten hasi dira, denak legearen aldekoak.

BESTE KASU BATZUK

Azken egunotan, Mutrikun eta Sopelan ere ipini dute Espainiako bandera, udalaren gogoaren kontra. Sopelan, ikurrinaren aldeko manifestazioa egin zuten.

HEMEN EZ BEZALA

Bilboko, Iruongo eta Eibarko udaletxeetan, berriz, urteak daroatza Espainiako banderak.

TOYOTA | EuskoAuto

0 KM...

...BEZ BARIK

AVENSIS FAMILIARRA CROSS SPORT

120 D ADVANCE + SKYLINE

PSP: ~~30.200€~~

DTUA: -6.700 €

23.500€

ETA PIVE PLANAREKIN

22.500€

3 AUTO BAKARRIK

%21eko DESKONTUA

TOYOTA RAV 4

ADVANCE 2.2 D4D YOKUBARI 4X4

PSP: ~~33.000€~~

DTUA: -5.100 €

27.900€

3 AUTO BAKARRIK

%21eko DESKONTUA

3 URTEKO GARANTIA + 2 URTE GEHIAGO TOYOTA EUSKOATOAREKIN AUTOA FINANTZATUZ GERO.

EuskoAuto

www.euskoauto.toyota.es

BERGARA
Olabarrena, z/g
Tel: 943 762 385

ELGOIBAR
Olaso industrialdea
Olaso kalea 23 - Tel: 943 747 417

PASAIA ANTZO
San Markos errepidea 32
Tel: 902 345 245

OLABERRIA
Karobi industrialdea
Tel: 943 805 926



Hekimeneko kideek Donostian egin zuten aurkezpen ekitaldia, eta taldeko argazkia ere atera zuten. | ANDER MONEDERO

ENEKO AZKARATE | DONOSTIA

Hekimen elkarteak sortu da asteon, herri izaerako euskarazko hedabideen elkarteak. 50 hedabidetik gora batzen ditu Hekimenek, tartean Goiena Komunikazio Taldea, eta Iban Arantzabal Goienako zuzendari nagusia da elkartearen presidentea, Tokikomeko ordezkari.

Euskarazko hedabideek bizi duten "egoera gaitzak" bultzatuta, duela urte bi harremanetan jarri ziren euskaraz diharduten hainbat hedabide. Harrezkero, eta Gipuzkoako Aldundiaren GipuzkoaBerritzen programaren laguntzarekin, lanean aritu dira eta elkarte hau da haren fruitu. "Jakitun gara, bakarka baino elkarrekin hobeto egingo diogula aurre bizi dugun

Hekimen sortu da, euskal hedabideen elkarteak

Iban Arantzabal, Goienako zuzendari nagusia da elkartearen presidentea

krisi latzari" adierazi zuten Donostiako Koldo Mitxelena hedabideen aurrean egin duten agerraldian.

Eremu komunikatibo sendoa

Euskal hedabideen elkarlana bideratzera dator Hekimen: "Euskarenen hiztun komunitateak behar

duen eremu komunikatibo sendoa garatzera dator". Elkartearen ezaugarri nagusiak dira: hedabideetan euskara hutsez jardutea eta publikoak ez izatea. Hala, ezaugarri horiekin bat egiten duten hedabide guztiak deitu dituzte Hekimenekin bat egitera, haiekiko elkarlanera.

Iban Arantzabal, presidentea

Iban Arantzabal elgetarra, Goienako zuzendari nagusia, da Hekimen elkartearen presidentea, euskarazko hedabide lokalak batzen dituen Tokikom elkartearen izenean. Presidente kargua urtero txandatu da eta zortzi kideko zuzenda-

ritza izango du: Argia, Berria, Euskal Irratiak, Gaur 8, Gazteberri, Hamaika Tebista, Tokikom eta Xaloe Tebistako ordezkariak.

"Esparru ahula"

"Beti pentsatu dugu euskararen komunikazio esparrua txikia dela, ahula eta hauskorra. Eta bada, ez gara engainatuko. Baina, aldi berean, asko gara eta pertsona askorengana iristen gara. 600 bat langile gara sektorean eta ehunka mila pertsonarengana iristen gara". Hekimeneko bultzagileek diotenez, euskal hedabideen elkarte bat sortzeko hainbat saio egon da hamarkadetan, eta azkenean hemen da. Aurrerantzean ahots bateratua izango dute: gizartearen aurrean agertzeko, instituzioekin hitz egiteko, kezkak agertzeko... "kome-ni zaigun guztietan bakarka baino, elkarrekin agertzeko".

"Desafio garrantzitsua"

Hekimeneko kideen esanetan, "desafioak ez dira makalak". Esate baterako, egunotan ari da eratzten Eusko Jaurlaritzak eta haren ordezkariarekin harreman finkoa bideratzeko asmoa dutela aurreratu dute. "Serio berba egin behar dugu diru-laguntzez, publikitate instituzionalaz, mintzakidetzak iraunkorraz, etab" esan dute. Zentzu honetan, uda aurretik, Jarduneko Jaurlaritzarekin eta EAEko hiru diputazioekin osatuta utzi zuten elkarriketa mahaia eta lan-eremua "emankorra izan dadin" egingo dutela esan dute.

Sorturen oinarri ideologikoak finkatu gura dituzte

Herriz herri dihardute Sorturen gaineko prozesua lantzen; guztira, Euskal Herri osoko 290 herri ingurutan

ARIZMENDI KOOPERATIBA ELKARTEAREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Koop.E-ko Estatutu Sozialetako 30. artikulua dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak, 2012ko azaroaren 8an egoitza sozialean egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E-ko bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

DEIALDIA

Eguna: 2012ko abenduaren 13a.
Lekua: Arimazubi guneko aretoa (Arrasate).
Ordua: Lehen deialdia: 18:00.
Bigarren deialdia: 18:30.

GAI-ZERRENDA

LEHENA: Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespeneren irakurtzea. Aktaren onespenerako bi bazkideren izendapena.
BIGARRENA: 2011-2012 ekitaldiko sozietate-kudeaketa aztertzea eta, hala balegokio, Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua eta Txostena), baita kudeaketa-txostena ere, onartzea.
HIRUGARRENA: 2011-2012 ekitaldiko emaitzen banaketa.
LAUGARRENA: 2012-2013 ekitaldirako aurrekontuaren aurkezpena.
BOSGARRENA: Kontseilu Sozialaren berriztatzea.
SEIGARRENA: Kontseilu Errektorearen berriztatzea.
ZAZPIGARRENA: Euskal Herriko Ikastolen Elkartasun Kutxa.
ZORTZIGARRENA: Kontseilu Errektorea ahaldundutzea.
BEDERATZIGARRENA: Galde-erantzunak.

Andoni Mujika Ulazia
Lehendakaria
Arrasate, 2012/11/08

ai arizmendi
ikastola

UBANE MADERA | BERGARA

Sortu alderdi politikoa eratzearen prozesuan, bihar, zapatua, Arrasate, Bergara, Oñati eta Eskoriatzan hitzorduak egin dituzte. "Sorturen izena legeztatuta dago, baina izen horri proiektua jarri behar zaio eta zapatuan proiektu horren zati bat erabakiko dugu: oinarri ideologikoak. Euskal Herri osoan egingo da, 290 herri ingurutan", azaldu du Ibai Redondo ordezkariak. "Kanpora begira behin eta berriz parte-hartzea aipatzen dugunez, etxetik bertatik hasi behar dugula uste dugu, eta prozesu osoa modu parte-har-

tzailean gabiltza egiten. Debagoienerako ezkertiar eta abertzale guztiek aukera dute prozesuan parte hartzeko, eta eurek erabakiko dute Sortu zelakoa izan beharko den".

EH Bilduren aldeko apustua

Edozelan ere, abiapuntua izan badute: "Independentziaren eta sozialismoaren bidean, aldaketa politikoa gura dugu. Euskal Herriarentzat erabakitzearen eskubidea lortu behar dela uste dugu, gatazkaren ondorioak konpondu egin behar direla, eta hor presoen gaiak lehentasuna hartuko du; bestalde,

bizi dugun krisiaren egoeraren irtenbidea ezkerretik etorri behar dela uste dugu, neoliberalismoa baztertuz. Eta proposatzen dugu, baita ere, prozesuan alde guztietako biolentzia bukatzeko estatuek pausuak eman behar dituztela; indar biltetan oinarritutako gara, hala EH Bilduren aldeko apustua egingo dugu".

Kongresuaren onspena

Behin oinarri ideologikoak finkatuta, hurrengo pausoak honakoak izango dira: ildo politikoa zehaztu; antolaketa ereduak; organoetako ordezkariak (arduradunak...) aukeratu eta azkenik, kongresu baten bitartez kargu denak onartu, eta behin betiko ponentziari onspena eman. Asmoa da hori otsailaren amaierarako bukatzea.



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behe
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56



Stop Kaleratzeak Plataformako kideak, Arrasateko udaletxean. | T.M.

Debagoienean ere kaleratzeak geratzen ahaleginduko dira

Debagoieneko Stop Kaleratzeak plataformaren sorrera ekitaldia egin dute asteon Arrasaten

TXOMIN MADINA | DEBAGOIENA

Arrasateko osoko bilkuren aretoan martitzenean egindako batzarrean sortu dute Debagoieneko Stop Kaleratzeak plataforma.

Eta azaldu zuten plataforma irekia dela, arazo honen konponbidearen alde egitea erabaki duen inor baztertzen ez duena. Funtzionamenduari dago-kionez, bilerak hamabostean behin izango dira eta herria txandakatzen joango direla. Plataformakoekin harremanetan jartzeko telefonoa ere eman dute: 669 42 85 98.

Kaleratzeak ibarrean

Sortu eta berehala, ezagutzera eman ez diren arren, Debagoienean ere kaleratze kasuak egon direla salatu zuen Stop Kaleratzeak plataformak. Are gehiago, duela gutxi heldu zaien ibarreko kasu baten berri eman zuten: azaldu zuten, B.Z. emakumea Aretxabaletako bere ohiko etxebizitzatik kaleratu zuten eta orain garaje baten bizi da: "Kutxak bere ohiko etxebizitzatik, Aretxabaletako Loramendi kaleko 10. zenbakiko 1-B etxebizitzatik, kaleratu zuen", argitu dute plataformakoek, eta gaineratu dute bere egoera dela

-eta gaur egun garaje batean bizi dela.

Alokairu soziala

Egoera horren aurrean, eskari zehatza egin diote Kutxako administrazio kontseiluari: "Eskatzen diogu bere lehengo etxean koka dezala pertsona hau, bere diru sarreraren %30 gainditzeko ez duen alokairu sozialeko erregimenen".

Egoera konpondu bitartean udal agintariei ere egin diete eskaria, bai egoera bukatzeko, eta baita lehen aipatutako izaera sozialeko alokairu bat eskatzeko ere.

Gogoratu beharra dago azaroaren 9an kaleratzea zihoazelako Amaia Egañak bere buruaz beste egin ostean, Kutxabankek bertan behera utzi zituela etxe kaleratzeak.

Plataformakoek adierazi dutenez, eurekin harremanetan jarri ez den arren ezagutzen dute kaleratua izan ostean garaje bati bizi den beste debagoiendar baten kasua ere. Eta horrekin batera, oraindik kaleratzea gauzatu ez arren, Oñatin beste hiru kasu ezagutzen dituztela ere eman zuten aditzera, baita Alokabideko beste kasu baten berri ere.

Irati Arrillaga | Sortzen Consultoria

"Teknologia berriek bikotekidea kontrolatzea areagotu egin dute"

Domekan, azaroaren 25ean, emakumeen kontrako tratatu txarren aurkako nazioarteko eguna da

UBANE MADERA | ARETXABALETA

Irati Arrillaga Sortzen Consultoria-riako (emakumeen jabekuntzan eta genero-indarkerian adituak) kidea da. Hitzaldia egin du Aretxabaletan, tratatu txarren gainekoa.

Tratu txarrak, normalean, helduekin lotzen ditugu; aldiz, zuek gazteengan ipintzen duzue arreta; zer dela eta?

Oso garrantzitsua da prebentzioa. Hezkidetzan dago gakoa, txikitatik neskak zein mutilak berdintasunean hezi behar dira, eta hori denon eskuetan dago. Izan ere, gertatzen den indarkeria hori ezberdintasun sozial guztien isla da. Prebentzio hori harremanak izaten hasten diren momentuan ezinbestekoa da. Normalean, gazteen artean gertatzen den indarkeria psikologikoa izaten da: kontrola, manipulazioa, irainak, deskalifikazioak, xantaiak... Saiatzen gara gazteek antzeman dezaten indarkeria modu askotan gertatzen dela; ez dela bakarrik indarkeria fisikoa. Hori da, akaso, kalean gehien antzematen dena; baina indarkeria psikologikoa hor dago eta askotan ondorioak gogorrak dira, eta gazteen harremanei garrantzi bera eman behar zaie. Urteotan tratatu txarrekin lotutako datuak izugarri handitu dira, eta, zoritxarrez, zerbait egin behar da.

Diagnostikoa da gazteak oraindik ez direla berdintasunean bizi?

Ez gaur egungoak, ezta lehengoak ere. Egia da berdintasuna arlo



Irati Arrillaga. | SORTZEN

"Bikote harremanetan oraindik desoreka handia dago"

askotan lortu egin dela, baina asko dago egiteko. Esan dezakegu emakumeen kontrako indarkeria modu askotan gertatzen dela, eta hori azaleratzea ezinbestekoa da; ikusten ez denak ez du esan nahi existitzen ez denik.

Zein da gazteen artean antzematen duzuen arriskurik handiena?

Azpitarragarriena bikotekidearekiko kontrola litzateke: uneoro

kontrolatzea non eta norekin dagoen, nola jantzi behar den, lagunekin ateratzen ez uztea... Eta teknologia berrien ondorioz, kontrola nabarmen areagotu da (sake-lakoak, sare sozialak, WhatsApp). Gainera, zeloak maitasunaren seinale bezala ikusten jarraitzen dute gazteek, maitasun erromantiko idealaren ideia oraindik bizi-bizirik dago; telebistan, pelikuletan, musikan, e.a.

Egoera orokorra da ala adin zehatzen batekin lotzen da?

Ez dago adin konkreturik. Harremanak hasteaz bat konturatzen hasten dira. Gazteek eurek ere tratatu txarrak helduekin lotzen dituzte, indarkeria fisikoarekin lotzen dituztelako. Hortaz, euren ere asko kostatzen zaie konturatzea. Hala, txip hori aldatu, eta konturatzen dira gazteek ere sufritzen dutela, eta, adibidez, ez dela atzeritarren kontua, edo maila sozioekonomiko baxukoaren kontua... Eta konturatzen hasten dira inguruan ere bizi dutela egoera hori. Hori da garrantzitsua: prebentzioa eraginkorra izateko, lehenengo konturatu egin behar dute badagoela tratatu txarra. Hori da lehen pausoa: indarkeria antzematea, izena jartzea eta aurre egiteko esku-hartzea sortzea.

Mutilek indarkeria psikologikoa aplikatu egiten dute eta neskek onartu egiten dute; konturatu barik?

Bai eta ez. Askotan, inkontzienteki jokutzen dute, hori ikusi eta ikasi dutelako, eta, beraz, ez dute uste zerbait txarra egiten dabil-tzanik. Baina beste batzuetan, badakite zein den jokaera horien ondorioa, eta helburu horrekin egiten dute gainera, hau da, bikotekidea menpeko izatea. Bestalde, neskentzat garrantzitsuena harreman hori mantentzea da, kosta ahala kosta, eta ondorioz tratatu txar horiek onartzera eta barkatzera iristen dira.

Euskaraz bizi izateko ofizialtasun erreala aldarrikatu guran

Mobilizazioak deitu ditu Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz elkarteak. Zapatuan, 13:30ean, Arrasateko Herriko Plazan elkarretaratzea izango da, eta arratsaldean, Gasteizen, Andre Mari Zuritik Legebiltzarrera, giza-katea egingo dute, *Euskaraz bizi gaitezen, aska ditzagun kateak!* lelopean.

Zaintza aringarrien gaineko berbaldia, ospitalearen eskutik

Bakea, erosotasuna eta duintasuna lelopean, zaintza aringarrien (oso larri dauden gaixoei jasotzen dituztenak) gaineko berbaldia egingo dute Arrasaten. Berbaldia emango dute David Avellanal eta Jesus Millas medikuek, azaroaren 27an, 19:00etan, Kulturaten. Besteak beste, Debagoienean dugin zerbitzuaren berri emango dute.

Francisco Etxeberria forentseak irekiko du UNEDeko ikasturtea

UNED-Bergarak 2012-13 ikasturte hasierako ekitaldia egingo du gaur, egubakoitza. Francisco Etxeberria doktore eta forentseak egingo du irekitze ekitaldia: *Hobiak lurpetik ateratzen, duintasunak berreskuratzen*. Hitzordua 19:00etan da, Bergarako osoko bilkuren aretoan.

Goiena i-rent
ibilgailuen alokairua

• **IBILGAILUA ERAMATEN DIZUGU:**

- LANTOKIRA
- ETXEKO ATARIRA
- AIREPORTURA...

• **ETA ABENDUKO ZUBIA BEZ BARIK DISFRUTA EZAZU!!!**

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943 71 66 52 / 619 44 71 75

info.goienarent@i-rent.es
www.goienarent.com

Mobiliario

ARENAZA

ALTZARIAK

DISEINUA

APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07

ARETXABALETA

erlea-6

1.700en aldizkaria

Kepa Altonaga, Uxue Apaolaza, Miren Azkarate, Irati Elorrieta, Miel A. Elustondo, Ramon Etxezarreta, Estibalitz Ezkerra, Aritz Galarraza, Andoni Garikano, Asun Garikano, Lander Garro, Iñaki Irazu, Jacinto Iturbe, Joxemari Iturralde, Xabier Kintana, Mariasun Landa, Maialen Lujanbio, Joseba Luzuriaga, Juan Ramon Madariaga, Juan Ramon Makuso, Elizabete Manterola, Ritxi Ojembarrena, Eider Rodriguez, Mikel Telleria eta Arantxa Urretabizkaia.

Marrakziak: Jon Zabaleta.

Azala eta argazkiak: Gorka Salmerón.

erlea-6

www.pamiela.com

Iban Arantzabal | Goienako zuzendari nagusi berria

"Erronkak dira Goiena herritarrekin egitea eta hiperlokaltasuna"

Goienako zuzendari nagusi izendatu berriak Goienaren eta euskarazko hedabideen oraingo eta etorkizuneko erronken gainean dihardu

ENEKO AZKARATE | ARETXABALETA

Iban Arantzabal (Elgeta, 1975) da urria ezker Goienako zuzendari nagusia, Inazio Arregiren ordez. Era berean, oraingo eguaztenean hedabideen aurrean aurkeztu den Herri Ekimeneko Euskarazko Hedabideen Elkarteko (Hekimen) presidentea da. Goienaren eta euskarazko hedabideen orainaz, etorkizunaz eta erronkez egin dugu berba harekin.

Goienako sortzaileetako bat izan zinen, Elgetako Goibeko elkarteko buru zizela; telematikako ardurak izan dituzu Goienan, baita ikus-entzunezkoen atalarena, antolaketak zuzendari ere izan zara. Orain zuzendari nagusi...

Goienako sorreratik nago bai, proiektuak izena ere ez zuen egunetik. Oso gogoan ditut eta ilusioz gogoratzen ditut Bergarako kultura etxearen mahai borobilean egiten genituen bilerak. Txosten horiek urrea balira bezala gordetzen nituen, besteak beste, gure herriko aldizkariaren jarraipen naturala, jarraipen hobetua eta eraginkorragoaren printzak zeudelako idatzita txostenotan. Orduko lantaldean ikasi genuen mugimendu bakoitza adostasunez egiten eta han ikasitakoari jarraitu behar diogu orain. Adostasunean oinarritutako kudeaketa egiten saiatu naiz beti, eta ez dut aldatzeko asmorik.

Izan ere, Goienak bertako langile bat promozionatu du enpresako buru izateko. Hori garrantzitsua da, ezta?

Buru izatearekin baino gehiago identifikatzen naiz bazkide izatearekin. Kooperatibista konbentzitu naiz. Goienan orain dela 12 urte genuena baino lan-talde sendoagoa dugu. Ikasi egin dugu eta aitortu behar dut Inazio Arregirengandik asko ikasi dugula. Hori konplementatu dugu kanpo ikasketekin eta horren garapen naturala izan da aldaketa. Bazkide pribilegiatu sentitzen naiz, bazkide mota guztiek aho batez onartu dutelako zuzendari nagusi izatea. Jaso ditudan zorionak eta animoak zenbaezinak dira



Iban Arantzabal, Goienaren Aretxabaletako egoitzan. | JOSU TXINTXURRETA

eta esan diet eskertzen ditudala animoak, baina aholku beharra dudanean joko dudala beraien atea.

Mikel Irizar eta Inazio Arregi izan dira orain arte Goienako zuzendari nagusiak. Ardura handia duzu orain zure gain, haiek egindako lan onari jarraipena ematen, ezta?

Biak ezagutu ditut ondo. Bien estiloa gustatzen zait, nahiz eta oso estilo ezberdinetakoak diren. Espero dut bietatik jasotakoak balioko duela estilo propioa izateko. Hori bai, dagoeneko talde lanak garrantzi handia du Goienan, eta, hain justu, estiloa horrek markatuko du.

Zein da, une honetan, zeure eta Goienaren erronka nagusia?

"Goienan orain dela 12 urte genuena baino lantalde sendoagoa dugu"

"Neutraltasuna iruzurra izan baliteke, erdibidetik jo nahi du Goienak"

Zuzendari nagusi izendatzeaz bat sortutako erronka batekin erantzungo dizut. Michel Collonek zioen mendebaldeko kazetaritzaren helburua "neutraltasuna" mantentzea zela, baina hori iruzurra zela. Astean irakurri dut Txillarre baserriko Pello Rubiori *Barren* aldizkariaren egindako elkarrizketa eta zioen "beti erdibidetik jotzen, bi aldeak elkarrengana gerturatzen-edo" saiatzen zela. Neutraltasuna gaitza edo iruzurra izan baliteke, erdibidetik jotzea helburua dugu Goienan. Gure helburua etekin soziala da; eta ez etekin politikoa. Eta lan talde osoaren egitekoa bideratuko dugu hedabideen esparrua euskaraz izan dadin.

"Goienan, kazetari dinamizatzaileak izango dira hurrengo erronka"

"Aurreko tropelean joateko pedalak ematen jarraitzen du Goienak"

Eta informazio orekatua eskaintzeaz gain?

Teknologia berriak, berrikuntza, enpresaren egiteko soziala, eraginkortasuna, aurrean egotea... asko dira, baina aipatuko dut Bart Bijenens-i ikasitakoa: hiperlokaltasuna. Oker dabilta gertutasuna txokokeriarekin nahasten dutenak, oker dabilten moduan euskalkiak txokokeria direla diotenak. Euskalkia eta estandarra dira beharrezkoak euskara biziko bada eta hedabideok biziko bagara beharrezkoak ditugu tokikoa eta gertukoa uztartzea. Guk ez dugu arazorik Aldundiko kontuez jarduteko, Legebiltzarreko hauteskunderaz edo dorre bikiezt. Guk lantzen dugun informazioak gertutasuna du oinarri, baina ez derrigor modu ertsian ulertutako tokikoa. Gure bezeroek ere horixe baloratzen dute gehien, bertakotutako informazioa edo gertukoa.

Hiperlokaltasunarekin batera kazetari dinamizatzaileak izango dira hurrengo urratsa, ondo bidean. Hedabideak debagoiendarrekin batera egiteko baliabideak jartzea, informatzaile izan gura duenaren dako gero eta leku gehiago uztea eta ez bakarrik zutabeak edo kartak idazteko, baita informazio orriak osatzeko ere.

Ez da erraza kazetaritza...

Kazetaritza eskatzen zaio kazetari izatea baino gehiago. Eskatzen zaigu ikastolakoago edo eskolakoago izatea, eskatzen zaigu bosgarren kontenedorea edo atez atekoaren aldeko aukera egitea, politikari honen menara edo bestearen besotik helduta joatea... Eta guk lagundu gura dugu eta lagun izan, baina profesionaltasunez jokatzeko eskatzen digu honekin edo harekin ez ezkontzea gure lan jardunean. Denok dugu gure idearioa, baina erredakzio-ko atea gurutzatzen dugun aldiro profesionalaren buzoa jantzita egiten da lan Goienan. Hori balio handia da kazetariarentzat, eta baita irakurle, ikusle eta entzuleendako. Bide zailena aukeratu dugu, Interonomiako kaze-



Inazio Arregi eta Iban Arantzabal, Goienako

tarietiek badakite zer esan eta errazago egiten dute lan, sinesgarritasunaren kaltetan izan arren. Gure parrokia askotariko debagoiendarrek osatzen dute.

Hedabideen mundua etengabeko aldaketan murgilduta dago, bereziki, azken hamarkadan. Ondo moldatu da Goiena aldaketa horietara?

Goienan, gure lurraldeko beste hedabide batzuen aldean arkakuso edo eltxo garen arren, handien presio, kalamitate, ezintasun eta larritasun antzerakoak bizi ditugu. Hori bai, arkakuso izanagatik, ez pentsa kikilduta bizitzeko sortuak garenik euskaldunok. Gure txikian, baina gure komunitateari zerbitzu ona eman gura diogu, komunitateko parte izan, eta horretarako aldaketetara moldatzen jakin dugula esan genezake. Hori bai, sasoi hau ez da gora begira egoteko, aurreko tropelean joateko pedalak ematen jarraitu behar da. Egingo dugu. **Hedabide tradizionalak, bestalde, krisi gogorrean sartuta daude. Tes-tinguru horretan, zela murgiltzen da Goiena?**

Krisia sumatu genuen unetik beretik egin ditugu etxeko lanak, eta horrek lagundu digu. Gerrikoa estutu dugu eta gure egitekoak denez, efizienteagoak gara orain. Azkeneko urteotan, %23 murriztu da udaletatik jasotzen duguna, esaterako, baina zerbitzua handitu eta hobetu dugu urte haue- tan, digitalera salto telebistan, Interneten eta eskuko telefonoe- tan aurrean jarri, paperean aste- an bi aldiz publikatu... Eta hau dena euskara hutsean eta gertuko informazioa emanez. Gainera, Aldunditik eta Jaurlaritzatik bultzatzen duten eredia da Goie- narena, 2012an nekez jardun



lehenago eta oraingo zuzendari nagusiak, berbetan, Aretxabaletako egoitzan. | JOSU TXINTXURRETA

daiteke herri hedabideekin... eskualdekora pasata asmatu genuen.

Berria ere zitzada eske. Goiena?

Guk ere, *Berria*-ko lagunen antze-
ra, erabaki dugu ez egitea *cocori-
co* eta ez *quiquiriqui*. Guk kuku-
rruku kantatuaz egiten dugu lan
eta hautu konzientea da Goienaren
sorreratik bertatik, nahiz eta
lehiatzeko muga batzuk ditugun.
Gainera, hor daude gure jabeki-
deak, euskara elkarteak, gure
jardun euskalduna ziurtatzeko.
Euskal hedabideok apal gabiltza,
eta, erleen moduan lan egin dugun
arren, zitzadak ere eskatu beha-
rrean aurkitzen gara.

**Debagoieneko udalak ere ez daude
egoera onenean. Zela eragin du
horrek Goienan?**

Badakit herriak aukeratu dituen
politikariek gizarte laguntzetan
-eta egingo dutela indarra, eta
behar-beharrezkoa da gutxien
dutenei lagundu eta krisiari aurre
egiteko politikei preferentzia
ematea, baina esperotzekoa da
euskarari euro bakar bat ere
gutxiago ez ematea. Beheranzko
joera jasanezina izateraino heldu
da, marra gorriraino. Madrilen
edo Debagoienean egiten dugun
hedabide estiloa ez da bera eta
identitatea, euskaltzaletasuna
edo komunitatea zaintzeko behar
dugu udalen laguntza egonkorra.

**Zenbateraino da garrantzitsua
Goienarendako beronen komuni-
tatea osatzen dutenak?**

Komunitateko kideak dira gu
bizitzeko arrazoia. Enpresa sozio-
-enpresarialeko misio eta balioak
horretara bideratuak daude,
komunitate horren beharrak ase-
tzera: euskararen normalizazioa,
parte hartzailea izatea, eskual-
deko kohesioa, esparru ezberdi-
nak euskararendako irabaztea...

Aurrera begirako jokabideek
balio behar dute bazkide mota
guztien asebetetasuna lortzeko,
eraginkortasunean gora egiteko...
eta hori guztia komunitatetik da
posible. Unai Iturriagaren hitzek
zioten moduan: "Gure baitan
betiko premia bat dabil: komu-
nika komunikatzea, komunika
komunitatea".

**Zela irudikatzen duzu hemendik
urte batzuetako Goiena?**

Ahots propioarekin eta debagoien-
darrengandik sekula baino ger-
tuago. Grinn anaien *Edurnezuri*
edo *Txanogorritxu* interesatzen

zaizkit, baina Walt Disneyren fil-
trorik gabe. Guk debagoiendarrek
diotena izaten jarraitu behar dugu,
gure errealtateari muzin egin
barik. Horretarako, Alberto Baran-
diaranen liburu baten irakurri
nion Lorea Agirreri "gure arma
ez da armada, gure arma kultura,
euskara eta hedabidegintza dira,
eta gure etorkizuna hizkuntzari
lotuta dago". Gustatu zitzaidan.

**Gaur inoiz baino garrantzitsuagoa
da Interneteko atala Goienan?**

Bai, eta zentzurik zabalenean
ulertuta. Gure enpresa kazetari
multimediaz osatuta dago eta

"Krisia sumatu
genuen unetik
beretik egin ditugu
etxeko lanak"

"Esperotzekoa da
euskarari euro bakar
bat ere gutxiago ez
ematea"

"2012an
eskualdeko
proiektuak dira
lehenesten direnak"

"Euskal hedabideok
zitzadak ere eskatu
beharrean aurkitzen
gara, tamalez"

horren ardatza Internet da. Ez
Goiena.net bakarrik, baita sare
sozialak, esaterako. Bestetik, eta
joera Interneten goranzkoa eta
balaztarik gabekoa bada ere, pape-
ra oso maitatua da Debagoienean
eta animatzen ditut irakurleak
Goienako klubeko bazkide egin
eta abantaila askoren artean aste-
leheneko *Goiena* papera etxeko
buzoian jaso dezaten.

**Goienako hedabideak osasuntsu
daudela erakusten dute beren ira-
kurleek eta ikus-entzuleek ematen
dieten sostenguak?**

Bai, dugun jarraipen zabalarekin
oso pozik gaude. Erantzukizuna
dugu arlo sozialean eta transfor-
mazio sozialean sinisten dugu
eta egindakoa babestua dagoela
sentitzen dugu audientzia neur-
ketak egiten ditugun aldiro.
Audientziok lortzeko oso garran-
tzitsua izan da enpresa hau autoe-
ratua izatea eta pertsonak jartzea
enpresaren oinarrian.

**Goienaren
gaineko azterketa egin du aurten
Aztiker enpresak. Zeintzuk izan
dira ondorio nagusiak?**

Ondorio birekin geratzen gara:
batetik, hamar lagunetik zazpik

dio Goienako hedabideak plura-
lak direla; hau da, ez direla hara
edo hona lerrokatzen; bestea,
Goiena eta bere hedabideak beha-
rrezko edo oso beharrezko dira
hamar debagoiendarretik bede-
ratzirendako.

**Euskarazko hedabide lokalen elkar-
tea indartu egin da berriki. Sekto-
rea ari da mugitzen eta Hekimen
sortu da...**

Tokimomeko parte aktibo da
Goiena eta sinistuta nago elkar-
te berriak lagunduko duela heda-
bideak dauden lekuetan sendotzen
eta ez daudenetan berriak sortzen.
Mugimendua sektorean ere bada
eta adibide berriena da Hekimen.
Batu gara euskara hutsez fun-
tzionatzen dugun herri ekime-
neko hedabide ez publikoak.
Asko dugu konpartitzeko, elka-
rrengandik ikasteko... eta era-
kundeetatik askotan eskatu
zaigun hori bete dugu: solaski-
detza bat badute lurralde edo
nazio mailako erakundeek, esta-
tutu batzuekin, zuzendaritza
batzordearekin etab. Orain lane-
rako denborak datoz, elkar uler-
tzeoak.

INAZIO ARREGI | TOKIKOM-EKO ZUZENDARI NAGUSIA

"Tokikom euskarazko tokiko hedabideen bilgunea da"

Inazio Arregi (Oñati, 1951) Goiena-
ko zuzendari nagusia izan da 2007e-
tik 2012ra eta, gaur egun, Goiena
bezalako euskarazko hedabide loka-
lak batzen dituen Tokikom elkarte-
ko zuzendari nagusia da.

**Goienako zuzendari nagusia izan
zara azkeneko 11 urteotan. Ezber-
dinak dira zuk utzi duzun Goiena
eta hartu zenuena?**

Neurri batean, bai. Hasieran euska-
ra elkarteena zen orain baino gehia-
go. Gaur, zoritxarrez, lotura hori
galdu egin da, euskara elkarte dezen-
te desagertu delako eskualdean, eta
hori galera garrantzitsua da. Bes-
talde, sinesgarritasuna irabazi due-
la esango nuke, eta gaur eskualde
osoan ondo errotutako eskaintza
komunikatibo euskaldun bat dela.
Nik ezagutu nuenean zalantza han-
diak zeuden oraindik: herrikoa ala
eskualdekoa. Gaur inork ez du hori
zalantzan jartzen. Telebista legez-



JOSU TXINTXURRETA

tatzea lortu zen, Internet martxan
jartzea, astelehenetan paperarekin
kalean egotea...

Zein izan da bilakaera?

Bilakaera logiko bat egon da, neurri
handi batean, hedabideen mundua-
ren bilakaeraren parekoa. Goienak
egokitzen jakin du eta, alde horre-
tatik, profesionalagoa da. Halere, ez
dugu neurri berean aurreratu herri-

tarren parte hartzean. Goiena zer-
baitek bereiztuko badu, kolore eta
izaera guztietako herritarrekin bate-
ra osatutako sarea izango da. Eta
hor zerbait aurreratu badugu, bidea
dugu oraindik egiteko. Herritarrek
parte hartzen dute: idazten dute,
argazkiak bidaltzen dituzte... baina
urrutirago joan beharko genuke.

**Orain, Tokikom. Bes-
te erronka bat...**

Bai. Azken urteotako
ezaugarri bat izan dut. Ez naute
erronkek beldurtzen eta niri
dagokidanez denbo-
ra luzekoa izango ez
den arren, ahalik eta ondoen eraman
nahiko nuke.

Zer lortu nahi da Tokikomekin?

Tokikom euskarazko tokiko hedabi-
deen bilgune bezala sortu da. Alde
horretatik, sektorea bizkortu, indar-
tu eta defendatzea du helburu.

Beste zerbitzu batzuk ere eskainiko
die bertako hedabideei: aholkulari-
tza, pertsonen prestakuntza, eduki
edo zerbitzu komunak konpartitu,
publizitate kontratazioa.

**Euskarazko hedabideen arteko
elkarlanak fruitu gutxi eman ditu,
salbuespenak salbuespen...**

Adibideak badaude: Tokiko beste
telebistekin eta
Hamaikarekin Goienak
duen trukeko progra-
mazioa eta elkarrekin
egindako programak;
iragarkilaburrak.com,
Berria, *Hitza* eta bes-
te hainbat hedabide-
rekin elkarlanean oinarritutakoa;
Berria.info-rekin egindako lankide-
tza akordioak; Tokikom.com euska-
razko tokiko hedabideen albistegia...
Agian ez dira eraginkorragoak izan,
baliabideak jartzea ezinbestekoa
delako.

ZABALIK

MANEX AGIRRE
http://goiena.net/iritzia/



Lurralde historikoak

Artikulu hau paperean irakurtzen ari bazara (eta ez sarean, gaur egun sarea noraino iritsi daitekeen ezin irudikatuzkoa baita; oi, sarea, dibinitate berria) badugu zerbait komunean: debagoiendarra zara, ni bezala; Debagoiena, zilbortzat San Prudentzioko biribilgunea duen zera hori.

Hala ere, denok ez gara katilu berean sartzen, eta, historiak hala aginduta, badugu zerbait zeharo ezberdintzen gaituena. Aramaioarra ez bazara, behintzat, lurralde historiko ezberdinetakoak gara biok: gipuzkoarra zara zu, eta arabarra naiz ni. Normala da, orde, egiatiak baldin bagara, bereizketa horretaz behin eta berriz ahaztea. Hau da, ez daude motibo gehiegi probintzia berekoak ez garela gogoratzeko: zuenean ikasten dugu aramaioar gehienok, baita lan egin eta erosketatara joan ere; gurean edaten duzue gipuzkoar (debagoiendar) gehienek sagar zukua, edo erosten dituzue etxafleroak.

Atez atekoa iritsi den arte. Egia esan, arabarrok harri-dura pittin batez begirutzen diogu hondakinen inguruan Gipuzkoan sortu den ika-mikari. Latza. Lagun handi (handi!) batek ondo esaten duenez, hamarkadak pasa ditugu zaborrari kasurik egin gabe. Orain, politikaren lehen lerroan egonik, derrigorrezkoa da hondakinen kudeaketari buruzko iritzi bat izatea.

(Ez dut ezkutaketan jolasteko asmorik: sistema justua iruditzen zait atez atekoa, interesgarria, asko egin dezakeena modan dagoen *jasangarritasunaren* alde. Ikuspegi horretatik, sinesgaitzak egiten zait gaikako zabor-bilketaren aurkakoez behin eta berriz erakutsi duten inkernua; are amorrazioa ere esango nuke.)

Ez dugu leziorik emango, ez gaude horrelako gauzak egiteko moduan. Probintzia-mugaz gaindiko miresmena (harridura?) baino ez, gaiaz serio eta kontzientziaz hizketan ari zaretenoi. Hori bai: lasai, Gipuzkoako egunkaririk salduenak ez du eta, arrazoi honegatik, gurean irakurlerik galduko.

USTEAK USTE

OIHANA ELORTZA | oelorza@goiena.com

Pailazo artean oraindik ere

Irratian entzun nuen domeka goizean Miliki hil zela, "¿Cómo están ustedes?" galdera egin eta "¡Biennnnnn!" ozen erantzuten geniona. Fofu, Fofito, Gabi eta Milikito ere gogoratzen ditut, orduko telebistan. Behin, euren antza zuen soineko eta sudur gorridun pailazo bat oparitu zidaten txanponak sartzeko; nire lehen itsulapikoa hura izan zela uste dut. Tortolika barruan bidaiatzen zuten Txirri, Mirri eta Txiribiton etorri ziren gero, eta telebistara begira segitzen nuen, pailazoak noiz ikusiko zain. Haien ondorengoak, baina, zuzeneko ikuskizunetan jarraitu ditut. Azkenekoz domekan bertan, Osintxun, Poxpolo eta Konpainia kasu honetan. Miliki ezagutu zuten beste asko ere han ziren.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Israelen erradiografia laburra

Mikel Garcia
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Israelgo gizartearen erretratu gordina egiten du Alberto Pradilla kazetariak *El judío errado* (2010) liburuan.

Bere garaian Pradillari egindako elkarrizketan, Israelgo Estatuaren oinarrian dauden ezaugarriez mintzatu zitzaigun.

Hona, bere hitzak berreskuratuz, ezaugarri horien zerrenda laburra, Ekialde Hurbilean bizirik dagoen gatazkaren argigarri.

Estatu zatikatua: "Mundu guztitik etorritako juduen immigrazioa bultzatu da Israelen eta horrek ezberdintasun sozial handiak sortu ditu.

Elite europarra batetik; herrialde arabiarretatik iritsitakoak, bigarren maila batean.

Eta are baztertuago, hirugarren mailan, Etiopiatik heldutako juduak.

Laiko eta erlijiosoen artean ere zatiketa handia dago".

Estatu erlijiosoa: Handia da erlijioak eta ultraortodoxoek Israelen duten boterea.

"Estatua babesteko erlijiosoen laguntza behar du Israeliek eta horregatik hainbat eskakizun onartu zaizkie, pribilegioak dituzte eta euren boterea indartu dute, erlijiosoak beti dira beharrezkoak gobernu osatzeko garaian".

Estatu baztertzalea: Estatu demokratiko eta judua, hala definitzen du bere burua Israeliek.

Estatu judua –eta soilik judua– izatearen ondorioz, judu ez direnak baztertzen ditu (milioi eta erdi palestinar bizi dira Israelen).

"Apartheid garaiko Hego Afrika zuriaren parekoa da, ez da onargarria, onargarria ez litzatekeen moduan begi urdindunen Estatu bat, edo ilehorien Estatu".

Biktimismoa instrumentalizatzen duen Estatu:

Israeliek lortu du Estatuari egiten zaion edozein kritika zuzenean antisemitismoarekin lotzea.

"Horrek estigmatizatu egiten du edozein disidentzia, edozein kritika".

Estatu kolonizatzailea: "Saldu nahi digute

israeldar-palestinar gatazkan bi alderdi edo borrokalari daudela, eta ahazten dugu gatazkaren benetako jatorria zein den: Europako juduek erabaki zutela juduentzat baino ez den Estatu eraikitzea, bertako herritarrek kanporatuz".

Areago, "Israelgo makinaria ekonomikoa eta hazkunde kolonizazioan oinarritzen da.

Hainbeste barne ezberdintasun dituen Estatuaren kohesioa mantentzeko ere baliagarria da palestinarren aurkako borroka".

Estatu militarizatua:

Segurtasunarekin obsesionatuta, gizarte erabat militarizatua da Israel, "hein batean herritar guztiek hiru urte ematen dituztelako armadan, eta erakunde horren ikuspegia barneratzen dute.

Israelgo lider asko militarrek izan dira aurretik".

Segurtasunaren industria, gainera, puntako arloa da Israelen.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Uliane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOTZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00


ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetan kolaboratzaileek, adierazitako initzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

EAJ eta justizia soziala

Ibai Redondo

(Bergarako Ezker Abertzaleko kidea)
Bergara

Azaroaren 9an (ostirala) Aintzane Oiarbide Bergarako EAJren zinegotzi eta Batzar Nagusietako kideak GOIENA paperean duen zutabea irakurri eta txundituta gelditu nintzen.

Beraien burua justizia sozialaren defendatzaile eta ezkerreko abertzaleak neoliberalismoaren ikur gisa aurkeztu gintuen.

EAJ Robin Hoodekin eta ezkerreko abertzaleak PPrekin alderatu gintuen.

Honen aurrean, EAJren eredu sozialaren 3-4 adibide ekarriko ditut paperera; bestela, GOIENA paper guztia beharko nuke-eta.

Etxe kaleratzeak: 2008tik behin eta berriz aurkeztu izan dira Kutxabanken etxe kaleratzeak gelditzeko proposamenak. EAJk PPren laguntzarekin guzti-guztiak atzera bota ditu, alternatibarik aurkeztu gabe. EAJ da EAEn etxe kaleratze gehienen arduradun politiko nagusia, pertsonak eta familiak kale gorrian utzi dituen alderdia.

Gipuzkoa paradisu fiskala aberatsentzat:

Aberatsek ederra jauja izan dutena Gipuzkoan, hainbat izan dira aurrezkiak Gipuzkoara ekarri dituztenak, tartean Rafa Nadal tenislaria, EAJ ereduak aberatsei pribilejio galantak ematen baitizkie. Hala, Gipuzkoako Barne Produktu Gordina munduko altuenetakoa den bitartean (30.178 euro pertsonako urtean), aberastasunaren banaketan ikaragarritzko diferentziak daude. Gipuzkoarren %1,3k aberastasunaren %44 dute. EAJren ereduaren arabera ederki banatzen da aberastasuna... guztia berdinentzat!

Makro-proiektuak: Zer egin du EAJk herritarren diruarekin? Eraikuntza enpresa handien eskuetan jarri, makro-proiektuetan xahutu eta, gainera, bide beretik jarraitu nahi du: AHT, Errauskailua, Jaizkibelgo Super Portua... Proiektu hauek hamarkadetarako zorpetu gaituzte. Gogoratu, bestela, Bidegin 900 milioi euroko zuloa egin zuela aurreko legealdian EAJk.

Norekin dago PNV, neoliberalekin ala langileekin?:

Ikus ditzagun zertan ari diren EAJko hainbat burukide: Nuria Lopez de Gereñu (Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburu izatetik Confebaskeko lehendakari izatera); Jose Antonio Ardanza (lehendakari postutik Euskaltelen lehendakari postura); Josu Jon

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak bame). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Oñalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Imaz (Euskadi Buru Batzarreko presidente kargutik Petronorreko presidente kargura). Nor izango da hurrengoa?

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan kapitalismo basatiaren arduradun nagusia EAJ da.

Kapitalismo basatiaren ereduaren gainetik herritarron Bergara eta Gipuzkoa, justizia sozialaren Bergara eta Gipuzkoa guztion artean egingo dugu.

Larraitz Ugarteri

Gotzon Iparragirre

Antzuola

Uztaileko azkeneko ostiralean Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako diputatu Larraitz Ugarte elkarrizketatu zuen GOIENA paperak.

Elkarrizketan, Gipuzkoan egiten ari diren obrei buruz aritu zen, egin behar direnei buruz, horien gaineko bere iritzia plazaratuz.

Datu asko ez dakizkidan arren, eta horrek hanka erraz sartzea ekarri dezakeen arren, horri buruzko nire iritzia plazaratzera noa.

Egia esateko, zain egon naiz ea Debagoienetik erantzunen bat izaten zuen, ez dakit ba, alkateren batena edo, baina... a ze inozoa ni! Politikan, berdin da alderdia, adostasun osoa izaten da alderdikideen artean. Ba nire ustez, ezadostasunak, sanoa eta naturala izateaz gain, adostasunari berari indarra emateko ere balio du. Beti eta denean ados, arraroa, ezta?

Herritarren eta eskualdeen oreka bultzatu nahi duzuela diozu elkarrizketan, Larraitz, horregatik ez dela bidesaririk jarriko ez Etxegaraten, ezta Andoainen ere, baina hara non, Deskargan bai, ostera. Ez duzuela Etxegaraten bidesaririk jarriko partxe bat delako, garraioliariak ez kaltetzeko. Bale, ados. Baina debagoiendarrok kaltetu ala ez berdin da? Debagoiena Goierri aldearekin, Donostiarekin batuko duen betiko bidea, eta bidesariaz? Zergatik Deskargan eta ez Zumarragan, Ormaiztegin, Tolosan edo beste nonbaiten? Goierriko herriek, trena izateaz gain, N-1 dohainik izango dute eta guk ez? Hori da bultzatu nahi duzuen eskualdeen arteko oreka?

Esaten duzu Deskargako bidesaria bankuek jarritakoa dela. Bankuek diruz estutuko gaituzten seguritate osoa daukat, Larraitz, baina zaude lasai, ez zaie-eta hainbeste inporta diru hori nondik datorren, Deskargatik datorren, Andoaindik, edonondik. Beraz, uste dut hori erabaki politiko bat dela, eta gainera, hobe zenukete hala dela esatea; bestela, herritarrok, lehenaz gain, gehiago despistatzen baikara.

Honetan zalantzarik baduzu, begira Rajoy, hori bai maisua: guztioi ikusarazten ari da erreskatearen gaineko erabakia berea dela, ba pentsa zuentzat, bidesarien hau... ahuntzaren gauerdiko eztula. Besarkada bat Antzuolatik.

Euskaraz bizi nahi dugulako

Oskar Elizburu eta Mertxe Mugika (AEKren Artezkaritza Kontseiluko kidea eta AEKren koordinatzaile nagusia, hurrenez hurren) Arrasate

Abenduaren 1ean euskal herritarrok hitzordua dugu Donostian, manifestazioa burutuko dugulako, bertan, *Euskaraz bizi nahi dugu* lelopean.

Milaka herritar gara euskaraz bizitzeko hautua egin dugunok; baina, zoritxarrez, milaka arazo aurkitzen dugu geure nahia betetzeko.

Oraindik ere lan handia dago egiteke euskararen normalizazioan; hori azpimarratu du, duela gutxi, Europako Batzordeak berak, Hizkuntza Gutxituen Itunaren konpromisoak betetzen ote diren aztertu ostean.

Jorratu beharreko bideak askotarikoak dira, beraz, baina bereziki bi esparru indartu behar dira: euskararen ezagutza eta euskaraz bizi ahal izateko guneak. Biak ala biak bultzatzen ditugu AEKn, jakina, eta horretxegatik egiten dugu bat manifestazio deialdiarekin. Hizkuntza batean bizi ahal izateko, hizkuntza horren ezagutza ezinbesteko aldagaia da.

Euskararen kasuan, ezagutza indizea igo egin da azken urteotan, baina ez eragite nabarmenetarako beste: euskara ez dakitenen kopurua oso altua eta kezagarria da oraindik ere.

Bestalde, ezagutza indizearen barruan daudenak –ia euskaldunak, esaterako– erabiltzeko benetako gaitasunarekin zenbateraino bat datozen ere sakonago aztertu beharko litzateke.

Gure hizkuntzaren normalizaziorako bidean, bere garaian, indar handia jarri zen haurren hezkuntzan, baina ia batere ez transmisioan; hau da, gurasoei begirako euskalduntzean, Helduen Euskalduntze Alfabetatzean.

Egindako zenbait ikerketaren arabera, azken hamarkadetan euskarak 300.000 hitzutn irabazi ditu, eta horien herena euskaltegiei zor zaie, alajaina!

Ametsetan hasita, zein egoeratan geundeko euskalduntze alfabetatzea buru-belarri bultzatu izan balitz eta, hezkuntzak euskaldundutako umeekin batera, indar berarekin eta neurri berean helduak euskaldundu izan balira?

Zalantzarik gabe, erabileran aurrera abiada egokian egiteko, hizkuntzaren ezagutza unibertsal bihurtu beharra dago, ezinbestekoa da ezagutza bermatzea.

Horretarako, hartu beharreko neurrietariko bat da baliabideak jartzea, euskara ikastea doakoa izan dadin.

Gaur egun, gezurra badirudi ere, herri honetan berezkoa dugun hizkuntza ikasteko ordaindu egin behar da.

Gainera, bere garaian emandako pauso egoki batzuk (azterketak gainditzeagatik jarritako bekak, administrazioko langileendako laguntzak eta liberazioak...) oso ondo baloratuak izan arren, eta doakotasunerako bidean ezinbesteko hobekuntzak izan arren, azken urteotan murriztu edota desagerrarazi egin dira krisiaren aitzakiapean.

Helduen Euskalduntze Alfabetatzea da, euskaltegiok modu egokian bideratuta eta baliabidez jantzita, esparru administratiboan, sozialean eta lan-munduan ezagutza hori bermatzeko tresnarik eraginkorrena, baita erabilera eta normalizazioa bultzatzeko ere.

Bestalde, lehen aipatu dugun bezala, hizkuntza bat normaltasunez baliatzeko erabilera espazioak/guneak behar dira; haatik, tamalez, sarri askotan gertatu izan da, eskolak eta euskaltegiak

euskalduntzeko guneak izan diren modu berean, kalea edota gizartea bera gai izatea jendartea erdalduntzeko.

Euskarak, hortaz, erabiltzeko espazioak irabazi behar ditu, gune publiko zein pribatuak.

Erabilerarako gune horiek toki publikoetan bermatzeko beharra ere hor dugu; euskara erabiltzeko benetako aukera eduki behar dugu, eta ez oztopoz jositako lasterketa edo proba.

Esaterako, euskaraz bizi nahi dugunok erdarazko produktuak ditugu nagusi; besteak beste, telebista ikusi, zinema estreinaldiez gozatu edota zibermunduan ibili gura dugunean.

Aisialdiarekin lotutako jarduera asko eta askotan, euskara bigarren mailan (edo atzerago) dago, eta egoera hori, noski, euskararen erabilera normalizatua lortzeko traba bihurtzen da.

Aipatutako arlo bi horiek lantzen ditugu AEKn, euskararen normalizazioan giltzarria den hirugarren zutabearekin batera: sustapena, hain zuzen ere.

Sustapenean, Korrika dugu ekimenik garrantzitsuena; bi urtean behin euskararen alde milaka lagunek betetzen dituzte Euskal Herriko errepideak.

Datorren udaberrian, hain zuzen ere, 18. Korrikak euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren milaka pertsonak omenduko ditu, euskalakari izateko ahaleginean euskara ikasten eta praktikatzen ari diren guztiak, beraiek direlako euskararen berreskurapenean zutabe garrantzitsuenetariko bat.

Izan ere, helduak euskalduntzen doazen heinean, transmisioan etenik egongo ez dela ziurtatzen ari gara.

Ikasi eta baliatu nahi dutenek egiten duten ahaleginari esker, elkarbizitzarako aukerak sortzen eta denok euskaraz bizitzea ahalbidetzen ari dira.

Hau guztia premiazkoa eta lehentasunezkoa dela ikusi beharko luke hurrengo Jaurlaritzak, eta hori da, hain zuzen ere, eskatzen eta eskatuko duguna.

Beraz, orain arte esan dugun guztiagatik, inongo aitzakia barik, abenduaren 1ean denok Donostiara, "euskaraz bizi nahi dugulako".

Tonbolariok, bejondeizuela!

Ane Zuazubiskar

(Arrasateko Euskalgintzaren izenean) Arrasate

Zure ziztada behar dugu. Horra Berria Taldeak laguntza eske egindako deia. Gure laguntza behar baitu, dituen egitasmoei eutsiko badie Euskal Herrian dugun ➤

euskara hutsezko egunkari bakarrak. Erlauntza osatzeko gure zitzada behar du, eta baita zeurea ere. Behar horri erantzuteko asmoz hedatzen doa Berrialagunen Komunitatea eta hortik Arrasateko Berrialaguna lantaldea ere.

Gure zitzadatxoa emateko ahaleginean (eta zeurea lortzeko asmoz) tonbolatxoa jarri genuen larunbatean Seber Altube plazan.

Ez da azken ekimena izango, oraindik egunero egin behar izango baitu erleak eztia, eta oraindik ere gure zitzada behar baitu Berriak.

Baina jaso zituen, bai, Berriak zitzadak, eta Berrialaguna lantaldea eskerrak emateko asmoz zuzentzen da zuengana.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu Ibai Arteko bazkideei eta Ternuari, zuek eman baitzenizkiguten banatu ziren sariak.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, halaber, aurreko asteetan dendaz denda produktuak jasotzen ibili zareten gazteoi.

Eta eskerrak eman nahi dizkiegu, zelan ez, larunbatean musu-truk lanean aritu zineten euskaltzaleoi.

Eta ahaztu gabe, noski, eskerrak zuri, tonbolara hurbildu eta zeure zitzada eman zenuelako.

Euskaraz bizi nahi dugulako hitzordua daukagu Donostian

Itxaro Artola
(Arrasateko Euskalgintzaren* eta Arrasateko Udalaren izenean)
Arrasate

Abenduaren 1ean euskaraz bizi nahi dugunon aldarriak Donostiako kaleak hartuko ditu, Kontseiluak antolatutako manifestazioa medio. Arrasateko Euskalgintza osatzen dugun erakundeok bat egiten dugu, jakina, deialdi horrekin eta ekimenean parte hartzera gonbidatzen zaituztegu sentipen bera duzuen herritar guztiok. Manifestazioa 17:00etan abiatuko da Anoeta estadiotik eta gu 15:30ean irtengo gara autobusez, Garibaitik. Txartelak AEDn eta Monte eta Irati tabernetan har ditzakezue, 10 euroren truke, azaroaren 29a baino lehen.

Ez dago aitzakiarik. Nagiak etxean utzita euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatuko dugu.

Horrela izango bada, eta euskarak iraungo badu, batura eta indarra erakutsi beharra daukagulako euskaldunok. Gaur egun bizi dugun uea testuinguru ezin aproposagoa

da euskararen normalizazioan beharrezko diren aldaketak emateko. Gure alde dugu haizea behar dugun jauzia emateko eta abagunea probestu beharra daukagu. Euskararen afera erdigunera ekartzeko, elkarbizitzarako tresna bihurtzeko.

Euskarak, mendez mende iraun badu, komunikatzeko, harremanak sortzeko, hizkuntza-komunitate sendo bat eratzeko eta jendea batzeko balio izan duelako izan baita.

Eta etorkizunean ere hala izango da, guk, XXI.eko euskaldunok, euskaraz bizitzeko gogoari eusten eta bideak zabaltzen jarraitzen dugun neurrian. Norbanakotik hizkuntza komunitatera eta hizkuntza komunitatetik jendarte osora.

Hortaz, abenduaren 1ean, nork bere hondar-alea ipinita, euskaraz bizi nahi dugunok multzo handi bat osatzen dugula agerian jarriko dugu. Ilusioz eta bizipozez. Nahi dugulako eta eskubidea daukagulako. Nor ekarriko duzu zurekin?

(*Arrasateko Euskalgintza erakunde hauek osatzen dugu: AED, AEK, Arizmendi Ikastola, Arrasate Herri Eskola, Arrasateko Institutua, EHE, Ekin Emakumeak, Emun, Goiena, MGEP eta Txatxilipurdi Elkarteak)

Euskaraz bizi gaitezen, aska ditzagun kateak!

Iñaki Telleria
(Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz)
Arrasate

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Euskararen Legeak 30 urte beteko ditu heldu den azaroaren 24an.

Hiru hamarkada, mende herena iragan da kasik euskararen herrian bertako hizkuntza normalizatzea helburu ei zuen legea onartu zenetik.

Urteotan, egin beharreko bidearen zati bat egin denik ezin ukatu daitekeen arren, ezin da ukatu ere sumisioan oinarritutako 30 urte, arrotzek inposatutako mugak nekez urratu ditugun 30 urte, ipar egokirik gabeko 30 urte izan direla, finean, herrialdeotako Euskararen Legearen gerizan igarotakoak.

Jakin badakigu herri euskaldunak bere hizkuntza eskubideak zatikatzen dituen legeria ezberdinak pairatzen dituena.

Teorian ofiziala izan baina teoriaren letra txikian zein eguneroko praktikan beste hizkuntza ofizialaren ondoan menpeko estatusa duen onarpenetik hasita, Nafarroa Garaian pairatzen dugun zonifikaziotik igarota, Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherean eduki ere ez daukagun

errekonozimenduraino, herri euskaldunaren erreallitate juridikoa negargarria da. Asmo on eta hitz ponposoen atzean 30 urteren buruan zerbitzu oinarrizkoenak ere norbere hizkuntzan jasotzeko ezintasuna, euskaraz bizitzeko debekua bizi dugu euskaldunok.

Euskaraz bizitzeko ofizialtasun errealaren bidean, larunbat honetarako (azaroak 24) mobilizazioak deitu ditugu. 13:30ean Arrasateko Herriko Plazan elkarretaratzea izango da eta arratsaldean Andre Mari Zuritik Legebiltzarrerera giza-katea luzatuko dugu *Euskaraz bizi gaitezen, aska ditzagun kateak!* lelopean.

Euskaltzale guztiak gonbidatuta zaudete!
Bertan ikusiko dugu elkar!

Euskaraz bizi herrixka globalean

Mikel Irizar eta Jasone Mendizabal
(Topaguneko presidentea eta zuzendaria, hurrenez hurren)
Arrasate

Globalizazioa. Oso urte gutxitan planetakoak bihurtu gara. McLuhanen iragarpen famatua orain ulertzen da, 50 urte geroago. Mundua herrixka bat da, lehen guztiz exotiko zitzaizkigun parajeak eta erreallitateak orain hurbilekoak ditugu. Handitu egin da munduarekin partekatzen duguna eta higatu berezkoaren esparrua.

Identitatea: Aurreko joerak berak piztu du beste bat orekatzailea: erabat uniforme izateari uko egin eta identitateari eustekoa. Eta hau akuilu bihurtu da izaera gordetzen duten komunitateentzat, batez ere berezko hizkuntza dutenentzat. Globalak ez diren hizkuntzak –hau da, ia guztiak– aldarrikatzen dira gero eta gehiago. Uholde globalari eusteko, norberetik eta norberaren hizkuntzan.

Amarauna: Globalizazioaren tresna nagusia hedabide globalak izan dira, horiei esker bilakatu da herrixka lehen planeta zena. Sare laukidunak lotzen gaitu munduarekin, hurbilekoa eta urrunekoa maila berean jarrita. Aldiz, gure egunerokoa hurbilean gauzatzen da zati handian, oraindik. Sare laukidunean baino, amaraunean: gu erdigunean, hurbilekoa ondoan, urrunekoa harago. Hedabideak behar hurbilekoa kontatzeko.

Euskara: Euskaldunon berezko hizkuntza, mende luzez ahuldua batzuk eta besteek, azken hamarkadetan suspertu nahi duguna. Badu gaitasunik, ari da irabazten hiztunak eta esparruak, behar du bere

komunitatearen nahia. Behar du euskalduna jabetzea euskarak nortasuna ematen diola munduan egoteko.

Euskara herria: Euskararen herrian orain minoria da bere hiztunen komunitatea. Ez da bilakaera naturala izan, behartua baizik. Eta ez da derrigorrezkoa, ez eta atzeraezina ere. Kontua da eraginen norabidea aldatzea eta alde jartzea, euskara bizi dadin. Hiztunen nahia behar da horretarako. Euskaldun bizi nahi sendoa eta konbentzimendu handia. Eta –zer esanik ez– aukera berdintasuna, baldintza egokiak, ahalmendunaren bulkada...

Euskara elkarteak: Komunitatearen nahiak sortu zituen, euskaraz bizitzeko esparruak behar zirelako. Arrasate Euskaldun Dezagun jarri zion bere buruari izena sortu zen lehenak. Ezin argiago. Euskaraz bizitzeko, herria euskaldundu. Arrakasta izan zuen asmakizunak, eta ziento bat elkarte sortu da harrezkero, beste horrenbeste herritan.

Toki hedabideak: Denek ez zuten McLuhan ezagutuko, baina euskara elkarteek argi ikusi zuten amaraunaren premia. Gutaz eta hurbilekoaz jarduteko hedabideak, gure hizkuntzan. Informazio uholdearen baitan komunitate irauteko, euskaratik. Berriro arrakasta, eta dozenaka toki hedabide sortu ziren 90eko hamarkadan, erdaretan zeudenei nagusituz. Lehia irekian urrezko domina irabazi zuen hor euskarak. Ez ditu asko bitrinan.

Batera: Herriz herriko elkarteak indartzeko sortu zen Topagunea duela 15 urte, eta toki komunikabideak bateratzeko eratu da Tokikom aurten. Batera hobeto eragiteko. Eta Kontseiluan ere helburu berarekin ari gara. Euskara herrian gero eta indartsuagoa izan dadin euskararen nahia, euskaraz bizi nahia.

Hain zuzen, horregatik deitzen dizugu abenduaren 1ean Donostiara joan gaitezen: aukera berdintasuna, baldintza egokiak eta nahikotasuna lortzeko, bagarela eta izaten jarraitu nahi dugula indarrez adierazteko.

Herrixka globalean euskaraz bizi nahi dugulako.

PNVri eta PSOEri erantzuna

Andoni Agirre, Ander Lizarralde, Ibai Larrañaga, Amaia Osa eta Ane Egin
(Debagoiena Zero Zabor)
Debagoiena

PNVk eta PSOEk azaroaren 16ko GOIENA paperean atez atekoaz eta errauskailuez esan

zituztenei erantzun nahi die Debagoiena Zero Zaborrek. Beste puntu batzuekin ere konforme ez egon arren, erantzuna lau punturi buruz egitea erabaki dugu. Hau haietako bat da:

Errauskailuan birziklapen eta konpostaje plantetan birzikla ezin daitekeena erreko duzuela diozue... Baina hori ez da egia. Zubietako errauskailua urtean 260.000 tona hondakin erretzeko diseinatu zenuten. Horrek esan nahi du Gipuzkoan sortuko litzateken zabor guztiaren %60 inguru erre nahi zenutela. Hain justu ere, gutxi gorabehera zuek proposatzen duzuen 5 edukiontzi bidezko bilketa sistemarekin Gipuzkoan lortzen ari den zabor nahasi kopurua. Birziklagarria eta konpostagarria den tona asko eta asko erre nahi zenuten. Errauskailuaren proiektu teknikoaren datuen arabera, erre nahi zenuten guztiaren %90 baino gehiago hondakin birziklagarri eta konpostagarriak ziren. Onartezina da esatea Zubietan egin nahi zen errauskailuak birziklagarria eta konpostagarria ez dena erreko lukeela. Onartezina da hori behin eta berriz entzun beharra.

Atez atekoa jartzen ez den herrietan edukiontzi berdea egongo da, edozer gauza botatzea onartzen duen edukiontzia. Eta edukiontzi berdeak, birziklagarriak eta konpostagarriak diren hondakinez beteta egon ohi dira. Hori da erre nahi duzuena. Europako herrialde batzuetan (Alemania, Austria, Flandria...) atez ateko bilketa sistemari esker %15-20ko errefusa (birziklatu eta konpostatu ezin litekeena) geratzen zaie. Eta erre egiten dute, zoritxarrez ja aurretik errauskailuak eraikita zituztelako eta inbertsio horiek amortizatu behar dituztelako. Bestela, geratzen den %15-20 hori egonkortu eta Europak baimentzen dituen zabortegietan utziko lukete, Italia iparraldean egiten duten bezala. Austrian, Flandrian, Alemanian... erre egiten dute birziklatu eta konpostatu ezin den hori. Baina tamalez ez da hori zuen kasua. Zuek 260.000 tona erre nahi zenituzten. Birziklagarria eta konpostagarria dena erre nahi zenuten Gipuzkoan. Bizkaian erretzen duzuen bezalaxe.

Birziklagarria den papera, kartoia, plastikoa; konpostatu daitezkeen ogi, letxuga, patata-azal sobrak... erre nahi zenituzten.

Hortxe daukagu Bizkaia, PNVren aginpidetzan. Eta zer erretzen da bertan? Birziklatu eta konpostatu litezkeen hondakinak. Tonaka. Hain eredugarritzat dituzuen Europako herri "aurreratuen" jokaeretatik oso urrun dabil Bizkaia.

HERRIAK

ELGETA

Liburuzainaren agurra

- ▶ 34 urtez liburuzain izandako Maria Elena Eztenagak hilaren 26an hartuko du erretiroa
- ▶ Geaxi Ezpeleta elgetarrak hartuko du lekukoa; astelehenean hasiko da lanean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Etap berri baten atarian da Maria Elena Eztenaga. Laster, denbora libre luzeagoa izango du, baina ez dago pozez zorutzen. Gustuko lana ez omen da lana, eta Eztenagak gustuko izan du beti bere zeregina.

Hil amaieran hartuko du erretiroa, eta aurreikusten du 34 urteren ostean mahairen beste aldean egoteak aldaketa handia ekarriko duela. "Hasieran ez dakit nola moldatuko naizen", onartzen du. "Ohituta nago egunero etorritzen, gazteekin egoten... eta bizi-poz handia da hori". Baina alde onak ere baditu erretiroa hartzeak. "Asko gustatzen zait atzera eta aurrera ibiltzea, eta orain ez dut loturarik izango aste bukaera han edo hemen luzatzeko".

Hasiera gogorra

Azken urteotan arratsaldero zabaldu du liburutegia Eztenagak. Apaletan 12.000 liburutik gora daude, eta erabiltzaileak 320 bat dira. Wi-fi gunea da, Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegien sarean dago, eta bi ordenagailu ditu herritarren erabilerarako. Baina zerbitzua ez da beti hain oparoa izan; duela 35 urte ez

zegoen liburutegirik Elgetan, eta guraso talde batek —Eztenaga tarteko— ahalegin handia egin zuen herriarendako zerbitzu hori lortu arte. "Hutsetik hasi ginen, eta gogoan dut nola ibili ginen Mari Coro Retolatza eta biok herriz herri liburutegiak bisitatzeko", azaltzen du. "Gauzak forma hartzen hasi ziren Udalak lokala eskaini zuenean. Posible izango zela ikusi genuen".

Hainbat erakunderen dirulaguntzei eta liburu dohaintzari esker, udaletxeko lehenengo solairuan zabaldu zuten Elgetako lehenengo liburutegia. "Liburu gutxi genituen, eta gogoan dut nola bi pezetako isuna ipintzen genuen jendeak liburuak berandu entregatzen bazituen. Eta diru harekin liburu gehiago erosten genituen", gogoratzen du Eztenagak.

Teknologia berriak

Orain dela 25 urte, 1987an inauguratu zuten kultura etxea, eta bertan hartu zuen behin betiko egoitza liburutegiak. Arrakasta handia izan zuen fonoteka zerbitzua ere zabaldu zuten. Baina teknologia berrien etorrerak beste inflexio puntu garrantzitsu bat ekarri zuen. Fotonoteka zerbitzuak zentzua galdu zuen, eta liburuzainaren lana asko aldatu zen. "Lehen, guztia eskuz egiten genuen", dio Eztenagak. "Orain, edozeinek du Internet, eta hitz-giak eta entziklopediak apenas mugitzen dira apaletatik. Etxetik ikus daiteke liburutegietan zein liburu dauzkagun, mailegatuta dauden... mundu berri bat da, baina, edozelan ere, irakurzaletasuna hor dago".



Maria Elena Eztenaga, liburutegian. | L.Z.


Liburutegiak ordutegi berria

Aldaketa sasoia da Elgetako liburutegian, eta Udalak ordutegia murriztea erabaki du. Aurrerantzean, liburutegi zerbitzua 16:30etik 19:00etara egongo da zabalik astelehenetik barikura bitartean. Geaxi Ezpeleta elgetarrak hartuko ditu astelehenetik aurrera —azaroak 26— Maria Elena Eztenagaren ardurak. Arrasateko liburutegian jardun du lanean Ezpeletak, eta ezagutzen du Elgetako liburutegia. Praktikak egin zituen bertan duela urte gutxi batzuk.

Hutsetik jaiotako liburutegiak, laster 35 urte

1978ko uztaillean zabaldu zen Elgetako Udal Liburutegia. Udaletxeko beheko solairuan kokatu zuten, eta hamar urte egin zituen bertan. Hasiera gogorra izan zen. Baliabideak eta liburu eskaintza eskasak ziren hasieran; liburutegia astean hiru ordu egoten zen zabalik, astelehen, eguazten eta barikuetan, 19:00etatik 20:00etara.

Hurrengo inflexio puntu garrantzitsua 1987a izan zen. Udalak kultura etxea inauguratu zuen, eta bertara pasa zuten Udal Liburutegia. Fotonoteka zerbitzua ere zabaldu zuten. Urte hartan 2.803 liburu-mailegu egin ziren.



Liburutegirako material eskaera Udaletik, 1978an. | L.Z.

bastidasukaldeak

ESKAITZA BEREZIAK

Erakusketa aldaketagatik %50eko deskontua sukaldeetan

INFORMA ZAITEZ!

zarautz


elizaurre 3, 20800
tel.: 943 89 49 99 faxa: 943 89 49 98

azpeitia

perez arregi 9, 20730
tel./faxes: 943 15 05 10

bergara

ibargarai 36-38, 20570
tel./faxes: 943 76 70 58



OHARRAK

1976AN JAIOTAKOAK

Duela 36 urte jaiotako arrasatearrek abenduaren leian egingo dute ospakizuna. Izena emateko azken eguna azaroaren 26a da; 40 euroko ordainketa egin behar da 3035 0001 50 0010101654 kontu korronte zenbakian, izen-abizenak jarrita. Prezio barruan daude bazkaria, autobusa, DJa eta sorpresa.

KIKE AMONARRIZEN

SAIOAN DATA ALDAKETA

AEDk antolatutako *Lau begiratu euskararen norabideari* hitzaldi zikloan Kike Amonarrizek eman beharreko saioa dataz aldatu behar izan dute. Hala, abenduaren 19an egingo da hitzaldia; Kultureteko areto nagusian, 19:00etan.

Palestinaren aldeko kontzentrazioa egingo dute gaur plazan (19:00)

Aurten 25 urte bete dituen Askapena elkarte internazionalistak elkarretaratze berezia antolatu du gaurko Arrasaten. Azken asteotan Gazan izaten ari diren erasoak direla-eta *Palestinaren herriaren aurkako erasoak eten* lelopean kontzentrazioa egingo dute plazan, 19:00etan hasita.

Era berean, Xabi Llodio Arrasateko Askapeneko kideak asteon Arrasate Irratian adierazi duenez, Palestinaren alde egin daitekeen ekintzarik "eraginkorrena" Estatu israel-darrari boikota egitea da. Nola? Bada, 729 zenbakiarekin hasten diren barra-kodea duten produktuei muzin eginda.

Udazkeneko jaia aste bukaeran Al-Andalus elkarte

Al-Andalus elkartearen udazkeneko jaialdia ospatuko dute bihar eta etzi. Musika eta gastronomia izango dira egitarauko ardatzak: bihar, sevillana maratona (12:00), Al-Andaluseko koruaren saioa (13:30), bazkide zein lagunen dako gala afaria (21:30) eta Esos taldearen emanaldia izango dira ekitaldi aipagarrienak. Domekarako ekintza garrantzitsuenak, berriz, honako hauek izango dira: Alegria de la Sierra taldearen kontzertua (13:00), Sueños de Andalucía dantza taldearen saioa (13:30) eta Andaluziako produktu tipikoez osatutako bazkaria (15:00).



Beltran de Gebara eta Barreña, asteon, eraso sexisten aurkako murla prestatzen. | J.B.

Indarkeria sexista salatu, norberaren jarreretatik hasita

'Mikromatxismoa' borrokatzea da aurtengo helburu nagusia; elkarretaratzea etzi, Herriko Plazan (19:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Azaroaren 25ean emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna ospatuko da nazioartean. Arrasaten hainbat ekitaldi antolatu izan dira urtero Emakume Txokoaren, Udalaren eta Arrasateko genero indarkeriaren aurkako plataformaren eskutik, eta aurten ere hala ari da izaten. Orain arte antolatutako ekitaldien balorazioa "ezin positiboagoa" da antolatzaileen aldetik: "Biolentzia matxistaren gaia kalean egotea nahi dugu eta antolatutako ekitaldiek horretarako bidea eman dute", adierazi du Amets Beltran de Gebara Emakume Txokoko dinamizatzaileak.

Hilaren 9ko *Una historia de amor en tiempos de rock and roll. Johnny and Jane* antzezlanak 100 lagun inguru erakarri zituen gaitxera: "Jendeak asko gozatu zuen antzerkiak, barre algarak ez ziren falta izan". Zine zikloak ere "harre ezin hobea" izan du orain arte; film bakoitzean 60 bat lagun elkartu dira. Baina ekitaldiak ez dira hor amaitzen: etzi, hilak 25, eraso sexisten kontrako murla margo-tuko dute, 17:00etan. Parte hartzeko Emakume Txokora deitu behar da (943 79 41 39). Gero, elkarreta-

ratzea egingo dute Herriko Plazan, 19:00etan. Horrez gain, gogoratu dute lehenengoz antolatu den komiki tiren lehiaketarako izen-emate epea abenduaren 7an amaitzen dela. Azkenik, hurrengo aste bukaeran *Indarkeria sexistari aurre egiteko estrategiak* deritzon tailerra egongo da Edurne Epelde eta Leire Ibarguen adituen eskutik. Izena emateko Emakume Txokora deitu behar da.

Eraso 'txikiak' azaleratzea

Mikromatxismoa deritzon fenomenoaren aurka borrokatzea da aurtengo helburu nagusia: "Egunerokoan denok ditugun jarrera sexista txikiak, era sotilagoan izaten diren erasoak, kaleratu gura ditugu", diote.

ESANAK

"Eguneroko jarrera sexista 'txikiak' kaleratu nahi ditugu"

AMETS B. DE GEBARA | EMAKUME TXOKOA

Izpi Alaia: deskontuak eta opariak, profesionaltasunarekin uztartuta

Ateak ireki berri ditu Arrasaten Izpi Alaia ile-apaindegiak. Profesionaltasun guztiz, haur eta helduentzako eskaintzekin agertu da Esther Martin bezeroen aurrean.

Ferreries kalean dago Izpi Alaia. Betiko ile-apaindegien profesionaltasuna aurkituko du bezeroak ile-apaindegi berrian. Baina, gainera, haurrentzat bereziki antolatutako gunea ere badauka, eta baita solariuma ere.

Esther Martin Gonzalezek kudeatzen du ile-apaindegia, eta, gaur egun jendarteak bizi duen krisiari aurre egiten laguntzeko asmoz, prezio bereziak eskaintzen dizkie bezeroei. "Berezko prezio merkeak ditugu. Baina horrez gainera, elbarriek, langabeek eta erretiratuek %10eko deskontua izango dute". Horretarako, txartela erakutsi besterik ez dutela egin behar adierazi du Izpi Alaia jabeak. "Familiarentzat ere %10e-



Umeeek toki berezia daukate Izpi Alaian.

Berezko prezio merkeak izan arren, baditugu zenbait eskaintza berezi ere elbarri, langabe, erretiratu eta baita familiarentzat ere; horiek %10eko deskontua daukate

ko beherapena egongoda, baldin eta guztiak egun berean etortzen badira".

Haurrak eta helduak
Haurrentzako ezustekoak ere egongo dira Izpi Alaian. "Betiko bezeroak diren haurrei bazkide txartela egingo zaie. Modu horre-

tan, euren urtebetetze egunean doan moztu ahal izango dute ilea". Baina gainera, goxoki poltsa bat eman eta kantatu ere egingo diete.

Helduei dagokienez, hilabete bakoitzaren lehenengo zazpi egunetan zozketa bat egingo dute

ile-apaindegian, eta, Izpi Alaia txartela eskuratuz gero, bezeroak %50eko deskontua izango du moztetan.

Profesionaltasunez eta prezio onean, "ilea txukuntzeko zein eguzki izpiak hartzeko toki paregabea", Izpi Alaia.




Izpi Alaia

ZABALDU BERRIA!

Izpi Alaia

Ferreries 28 • Arrasate
943 04 45 73



25. URTEURRENA
eskerriek asko, denoi

ESKAINZA BEREZIA
Azaroaren 27an eta 28an

10
% **eko**
deskontua

Bazarra Erlojudenda

Tel.: 943 79 91 64
Erdiko kale 7, Arrasate

Euskal memoria ardatz, ekitaldi sorta interesgarria

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak, Euskal Herriko kultura eta historiarekin zerikusia duten ekintzak bultzatu nahi dituen heinean, hainbat ekintza antolatu ditu datozen hilabeteetarako. Ekintzok *Barrura begiratzeko leihoak* filmaren proiektioaz eta euskal identitatearen gaineko mahai-inguruarekin hasi ziren.

Hitzaldiak eta erakusketa

Bada, asteon, *Memoria berreraiki, etorkizunerako zubi* izenburu duen hitzaldi zikloa aurkeztu dute. Atzo egin zuten lehen hitzaldia; Iñaki Egaña historialariak eta Juan Ramon Garaik -Intxorta 1937 elkar- teko kidea- frankismoa izan zuten hizpide. Era berean, hilaren 29ra- ko beste hitzaldi bat antolatu dute:

Gernikako seme-alabak. Errepresioaren ondorioak Leintz bailaran eta Euskal Herrian 1960-2010. Kulturaren izango da, 19:00etan, eta azken 50 urteetako errepresioaren biktimei buruz arituko da Joxean Agirre, Euskal Memoria Fundazio-ko kidea. Bestalde, Zuztarrak Errotuz taldeak erakusketa ireki-ko du aurki Kulturaren bertan; Xabier Zubizarreta elkarte-ko kideak aurreratu duenez, historiaurretik gaur arte Arrasaten izan diren gertaera eta mugimendu aipagarrienak erakutsiko dira, "euskal- dunon ikuspegitik".



Centauro Saher-en hitzaldiaren une bat, Arrasate tabernan. | JOKIN BEREZIARTUA



ARRASATE HERRI ESKOLA

Gure herriko txoko natural interesgarrienak ezagutzen

Arrasate Herri Eskolako 63 kidek mendi buelta egin zuten domekan. Guraso Elkarteak eta Elkarbizitza Batzordeak antolatu zuten ekimena, Eskolako Agenda 21 proiektuarekin bat eginda. Urtzi Mendizabal biologoak eta Pello Garai Udaleko Ingurumen Saileko teknikariak eman zituzten azalpenak; "Oso interesgarriak", partaide baten esanetan. Ikutxo inguruan ibili ziren; Txilibito basoa eta Baztergain ingurua ezagutu zituzten, besteak beste.

Ikusmina piztu zuen Askapenak antolatutako ekitaldi bereziak

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Askapenak hitzordu hirukoitza antolatu zuen eguaztenerako Arrasate tabernan: Centauro Saher venezualarrak bere herrialdean izandako prozesu boliviarraren gaineko hitzaldia, lagunarteko afaria eta Venezuelako zein Euskal Herriko doinuak tarte- katu zituen kantaldia.

Prozesu boliviarrak, gertutik

Ikusmina piztu zuen deialdiak, 20 bat lagun bertaratu ziren -eta. Arrasate tabernako jangelan egin zen eta, lekua txikia denez, apenas geratu zen eser- lekurik libre. Centauro Saher gazte venezuelarra musikari

eta kantaria da, baina, era berean, Venezuelako gobernu- kidea eta Venezuelako Sortzai- le Militanteen Fronteko kidea ere bada. Hugo Chavezen esku- tik 1998an abiatutako prozesu boliviarraren gaineko hainbat xehetasun eman zituen hitz- aldian; Venezuelaren baliabide ekonomiko oparoak aipatu zituen baina aurreko agintari- ek baliabide horiek kudeatzerako orduan herritarrak ahaztu zituz- tela salatu zuen. Era berean, adierazi zuen Chavezen iraul- tzaren bidez "herritarrak gizar- te berri baten eraikuntzan" protagonista izan direla. Mahaia- ren bueltan afaltzen eta kantuan borobildu zuten eguna.

Oskarbi
o i n e t a k o a k



www.oskarbi.com

Oskarbi Oinetakoak | Erdiko Kalea 11 | Arrasate | 943 71 18 04

PROMOZIO BALIAGARRIA 2012/11/26TIK 2012/12/02 ARTE - BESTE PROMOZIOEKIN EZIN DA ERABILI

* Camper eta marka konketu batzuk promozio honetatik kanpo geratzen dira.

ZALDIBAR

EMAITZAK		
Haizea's Weah-Dribling	4-10	
Abokajarro-Iluna	12-3	
Sonografos-Fidel	6-3	
Ostantz-Aston Birra	12-2	
Aldatz-Iriztu	3-5	
Iluntz-Lasagabaster	2-4	
Atsedena: Betrayer		

SAILKAPENA		
TALDEA	P	J
1 Dribling	6	2
2 Iriztu	6	2
3 Ostantz	6	2
4 Sonografos	6	2
5 Abokajarro	3	1
6 Lasagabaster	3	2
7 Fidel & Discipulos	3	2
8 Haizea's Weah	3	2
9 At. Betrayer	0	1
10 Iluntz	0	2
11 Aldatz	0	2
12 Aston Birra	0	2
13 Iluna	0	2

PARTIDUAK		
HILAK 24, ZAPATUA		
10:30	Aston Birra-Iluntz / Lasagabaster	
11:30	Aldatz-Lasagabaster / Iluntz	
12:30	Sonografos-Ostantz / Aldatz	
HILAK 25, DOMEKA		
10:30	At Betrayer-Fidel & Disci. / Haizeas	
11:30	Haizeas Weah-Iriztu / Betrayer	
12:30	Abokajarro-Dribling / Iriztu	
Atsedena: Iluna Taberna		

Lehenengo faseko lan onak saria izango du

Hori izango da aurtengo txapelketako nobedadeetako bat, lehenengo faseko lan onak saria izango duela. Orain arte bigarren fasera sailkatzen ziren taldeak zerotik hasten ziren berriro ere, eta orain ez. Hala, lehenengo eta bigarren sailkatuek 7 punturekin hasiko dute bigarren fasea, hirugarren eta laugarrenak 5 punturekin, bosgarren eta seigarrenak 4 punturekin, zazpigarrenak 3 punturekin, bederatzigarrenak eta hamargarrenak 2 punturekin eta hamaikagarrenak eta hamabigarrenak puntu bakarrarekin. Hala, azken sailkatua, hamairugarrena, esku hutsik hasiko da: "Hala, lehenengo fasean egindako lana saritu nahi izan dugu", adierazi dute antolatzaileek.



Iazko erakustaldian adituez batera gaztetxoek ere parte hartu ahal izan zuten. | JULIO CALLEJA

Borroka arteen gala Uarkapen, Saharan desnutrizioa dutenei laguntzeko

Arrasate Aikido Taldeak biharko, zapatua, egin du hitzordua pilotalekuan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Herritarrei borroka arteak erakutsi eta, aldi berean, guk baino behar handiagoak dituztenei lagundu. Asmo horrekin antolatuta dute Arrasate Aikido Taldeko lagunek borroka arteen 12. gala.

Bihar, zapatua (12:00etatik 14:00etara) Uarkapen egingo duten ekitaldian, aikidoaz batera beste borroka arte batzuk ere erakutsiko dituzte, eta aurtengo edizioan ezpaten arteek aparteko protagonismoa izango dute. Ez hori bakarrik, Arrasateko Dragoi gimnasia taldekoek egingo dute-eta irekiera ikuskizuna. Horren ondoren,

Gasteizko Kendo Shindokai klubeko txanda izango da, eta jarraian, Arrasateko Kenpo Taldeko ordezkariak hartuko dute esku. Eta ekitaldiaren amaieran, Donostiako Esgrima Taldekoen abileziak gozatu ahal izango dute ikusleek.

Laguntza, Saharara

Ikuskizunaz gozatzeko, ikusleek 2 euro ordaindu beharko dituzte, eta batzen den dirua Mugarik Gabeko Medikuei emango diete, Saharan duten proiektu batera bideratzeko. Hain zuzen, Saharako hegoaldean dagoen herrix-

ka batean duten desnutrizioaren kontrako proiektu batera bideratuko dute laguntza, Sahel-era: "Ahalik eta parte-hartze handiena espero dugu. Txutxu-mutxu modura esango dugu iaz arazoren bat izan genuela Uarkapeko berogailuarekin, baina aurtengo edizioan ikusleek ez dute hotzik pasatuko", adierazi du Jose Manuel Matasek, Aikido Taldeko ordezkariak.

Esan beharra dago Aikido Taldeak Arrasaten eta Eskoriatzan ematen dituela eskolak, eta laster Aretxabaletako kiroldegi berrian hasiko da lanean.

Kontrario zuzen Abantoren zelaian jokatu dute neskek

Mondrako neskek garaipen garrantzitsua lortu zuten joan den astean sailkapenaren atzean dagoen Eibarren kontra. Eta asteburuan ere beste hitzordu garrantzitsu bat izango dute, Abanto sailkapenean parean dagoen taldea delako. Las Carre-rasen jokatu dute (Bizkaia), domeka eguerdian.

MUkoak Bilbora, konfiantza errekuiperatzera

MUko mutilak punteria faltan ibili ziren joan den astean (57-64), inoiz baino okerrago uztaiari begira. Berez, ez dago konfiantza galtzeko motiborik, baina edonork izan dezake egun txar bat. Hala, konfiantza errekuiperatzea joango dira bihar Bilbora, la Peñaren kantxara.

Besaidekoak bazkide eta federatu lizentziak tramitatzen dabilta

Azaroan zehar 2013ko bazkide eta federatu lizentziak tramitatzen dabilta Besaide Mendi Elkartekoak, baita aldaketak egiten ere. Hala, azaroaren 26an, 27an eta 28an elkarteak zabalik egongo da tramiteok egiteko (19:30-20:30). Bestela, deitu 943 77 30 68 zenbakira edo idatzi besaide@besaide.org-era.

NIRE USTEZ

OIHAN ZUBIZARRETA



Gerra bat platerean

Bonbak erortzen dira zerutik Gazan. Eta hori bihurtu da gauza arrunta eta normala. Gerrak hamaikagarrenez egin du eztanda han, eta telebistako irudiek salto egin dute gure egongelara, eta afaria odolez zipriztindu. Puaf! Koilara ahortzen dut eta ikuspegi interesatuetatik bidaltzen dizkiguten irudiak eta hitzak sartzen zaizkit begi-belarrietatik, filtro zorrotzetatik, helburu zehatzetarako. Eta munduan zehar gerra askok darraie, Sirian, Kurdistanen, Kolonbian... baita *mikrogerrek* eta ahaztuta edo lozorroan dauden beste askok ere.

Notizietako dosi txikietan saltzen dizkiguten gerra kontakizunen ikusle pribilegiatuak gara. Eta gure pribilegio nagusia, gerra hauekiko ardura ez sentitzeko aukera da. Gerra horiek ez dira gureak, gu ez gara istorio horien parte, gerrak hutsalak, iraganeak, inoiz errepikatuko ez diren ikaspenak baino ez dira. Ja! Gure *aittejaun-amandriak* ditugu gerra baten lekuko, *gerrako umeak* esaten diegu... baina gerraren arrastoak gurean diraute. Ume eta ertz ugari ditu gure gerra partikularrak...

Baina ez estutu, gerrak gure sukaldeetara sartzen zaizkigun aldiro, telebistaren kanala aldatu dezakegu, plateraren ertzari darion odol arrastoa trapekin kentzen dugun bitartean. (Hurrengora arte).

"Gerrak hamaikagarrenez egin du eztanda han, Gazan"




URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

PUB HAIZEA



Adinekoen ariketa sustatzeko hiru ibilbide zehaztu ditu osasun etxeak

Udaleko Kirol Zerbitzuekin elkarlanean, begirale baten laguntzarekin egingo dituzte aurrez finkatutako hiru ibilbideak

TXOMIN MADINA | OÑATI

65 urtetik gorako pertsona sedentarioen artean ariketa fisikoa sustatzea da Oñatiko osasun zentroan martxan dagoen Tipi Tapa programaren helburua, eta programa horren barruan fase berri bati emango diote hasiera aste batzuk barru.

Programa horrekin, osasun zentroko kontsultetara joaten diren adineko gaixo kronikoak euren egoeraren eta egiten duten ariketa fisikoaren arabera sailkatuko dituzte. Gaitasuna izan arren sedentarioak direnei, ariketa fisikoa egitea gomendatzen zaie herrian zehaztuta dauden hainbat ibilbidetan. Programaren fase berrian, eta Udaleko Kirol Zerbitzuekin elkarlanean, aurrez finkatutako hiru ibilbideak begirale batekin egiteko aukera izango dute.

Buruari ere laguntzeko

Kizkitza Alustiza erizain eta Tipi Tapa programaren koordinatzaileetako baten esanetan, helburua da era egokian ibiltzeko eta ariketa fisikoa egiteko kalean dauden aparailuak ondo erabiltzen ikastea; ez hori bakarrik, baita bakarrik paseatu behar dutelako etxean geratzen direnak ariketa fisikoa egitera animatzea ere. "Ibiltzeak zein ariketa fisikoak hainbat onurak dakartza, hala nola pisua galtzea edo tentsioa eta kolesterola jasitea. Buruari ere laguntzen dio, gainera", gaineratu du Alustizak.

Hiru ibilbideak

Proposatutako hiru ibilbideek herriko plazan dute irteera eta postetxe ondoan dauden kirola



Oñatiko osasun zentroko langileak eta Udaleko ordezkariak ekimenaren aurkezpenean, martitzenean. | TXOMIN MADINA

egiteko aparailuen ondoan bukatzen dira. Lehenengoak 2,7 kilometro ditu eta Urbietako baserriraino doa; bigarrena Ugarkalderaino doa eta 3,4 kilometro ditu. Hiru-

garrena da luzeena: 5,3 kilometro ditu eta Murgialdai baserri ondtik Tokiloko errotaraino doa, eta handik Santa Lutzia. Hiru egun zehaztu dituzte ibilaldi horiek

begiraleekin egiteko: abenduaren 10ean lehenengoa egingo dute; abenduaren 12an, bigarrena; eta abenduaren 14an, hirugarrena. Hirurak 11:00etan hasiko dira. Oscar Carrascal Udaleko Kirol teknikariaren esanetan, ibilbideak errazak dira: "Hirigintza, Ongizate eta Kirol zerbitzuen artean diseinatu ditugu, eta ez dute ez oztopo arkitektonikorik, ezta aparteko aldaparik ere, eta herrigunean kokatzen dira".

Edozein ibilalditan parte hartzeko, osasun zentrorara deitu behar da abenduaren 5a baino lehen, eta ondoren, erizainek erabakiko dute bakoitzari zein ibilbide komeni zaion.

Kolon minbizia antzemateko kanpaina

Amaitzean dago kolon eta ondeste minbizia detektatzeko bigarren kanpaina. Anbulatortik jakinarazi dutenez, 50 eta 69 urte bitarteko 2.500 oñatiar ingururi bidali zaizkie analisiak egiteko gonbidapenak eta kitak, eta, oraingoz, %66 inguruan dago parte-hartzea. Duela bi urteko kanpaina %73ra heldu zen. Anbulatortik proba hau egitearen garrantzia azpimarratu dute, oraindik garatu gabeko gaitzaren arazoak agerian jartzen baititu. Kanpaina horretan bi minbizi garaz antzeman dituztela esan dute.

Galtzada-harriak aldatuko dituzte gazteleku aurrean

Azokara etortzen diren ibilgailuak azoka eta Txantxiku ikastola arteko pasabidetik sartuko dira



Lanak gaur, egubakoitza, hastea aurreikusten da. | O.E.

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Udaltzaingoak jakinarazi duenez, gazteleku aurrealdeko galtzada-harriak konpontzen hasi dira egunotan Ugarte Eraikuntzakoak. Lan horiek egin bitartean ezin da autorik pasatu. Gazteleku aurrean egiten diren zama-lanak ere ezin izango dituzte egin datozen hiru asteetan, gutxi gorabehera. Bestalde, azokara datozen ibilgailuak azoka eta Txantxiku ikastola artean dagoen pasabidetik sartuko dira plazara. Obra horrekin lotuta, Pake Leku inguruan bi pibote jarriko dituzte errepidea mozteko eta erdiguneko piboteen tratamendu bera izango dute: astelehenetik zapa-tura zabalik 08:00etatik 12:00etara, zama-lanetarako bakarrik.

Datorren astean, berriz, Iturritxo aurrean dagoen pibote hidrauliko berria jarriko dute.

Herrijorran egitasmoa bigarren fasean dago

O.E. | OÑATI

Aurrekontu parte-hartzaileen bigarren txanda hasi da aste honetan. Helburua da lehenengo txandan sortutako ideien balioztapen ekonomikoa eta lehenespina egitea bertaratzaren diren herritar eta eragile guztiekin batera. Hau da, arlo bakoitzean gastatzeko dagoen diru kopuruaren arabera, ekintza-plan konkretuak finkatzea.

Lehen fasearen balorazio positiboa egin du Udal Gobernuak. Haren esanetan, alorre-tako lantalde bakoitzak eta

haien atalak metodologia ezberdinak erabiliz, 15 saio egin dituzte orotara, eta 273 oñatiarrek parte hartu dute modu batera edo bestera.

Zortzi hitzordu

Bigarren txandako egitarauaren barruan zortzi hitzordu daude datorren asterako. Astelehenetan, adibidez, turismoa, kirola, gaztedia eta ingurumena landuko dituzte; martitzenean, kultura eta hirigintza eta zerbitzuak; eta eguaztenean, hezkuntza eta ongizatea.

San Lorentzoko ur hornidura sarean lanak egingo dituzte

O.E. | OÑATI

San Lorentzo auzoko ur hornidura sarea hobetzeko lanak egingo ditu Gipuzkoako Urak enpresak. Auzo horren goialdeko etxeek duten ur presioaren arazoa konpondu gura da lan horiekin.

Bizpahiru aste barru hasiko dituzten lanak lehen egingadako jarraipena izango dira. "Auzo horretako hoditeria fibrozementuzkoa da, eta horrek ez du uzten uraren presioa handitzea, hoditeria apurtzeko arriskua dagoelako. Horregatik, kanalizazio berria egin genuen, eta ur ponpagailu bat ere jarri genuen. Orain, horra lotunea izango duen auzoaren goialdeko hoditeria aldatuko dugu. Hoditeria berriarekin presioa handiagotu ahal izango dugu", azaldu du Teresa Peñalbak, Gipuzkoako Urak enpresak San Lorentzon egingo dituen obren zuzendariak.

Faseka

Auzo horretako ur hornidura sarea berritzeko lanak faseka egingo dituzte. Lehenengo fasean, San Lorentzoko 25etik 67ra doazen etxeei dagokien zatia konponduko dute; alegia, auzoa erditik mozten duen errepidetik gora dauden etxe bloke guztiei dagokiena. Inguru hori urez hornitzen duten hodiak aldatuko dira ur ponpagailuek eragindako presioa jasan dezaten. Bigarren fasean, ermitatik gorako zatian egingo dituzte.

Teresa Peñalbak gaineratu duenez, lanek 14 aste iraungo dute. "Datorren astean joango gara berriz San Lorentzo auzora, eta lanak nondik hasiko ditugun erabakiko dugu orduan", gaineratu du.

Indarkeriari aurre egiteko, tratu onaren aldeko jarrera

Etkez etxe banatu dituzten puntu moreak jartzeko dei egiten du Berdintasun Sailak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Domekan, azaroak 25, da genero indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna, eta, horri begira, hitzordu bat baino gehiago antolatu ditu Udaleko Berdintasun Sailak, Andraitz Feministak taldearekin batera. *Tratu ona* lelopean antolatu dituzte hitzorduak, tratu txarren gaiari buelta eman eta arazoa modu positiboan lantzeko ideiarekin. "Tratu onak bultzatzen eta zabaltzen baditugu, tratu txarrak gutxiago izango direla uste dugu, eta mezu baikor hori zabaltzeko aukeratu dugu *Tratu ona* leloa", azaldu du Ainhoa Moiuak, Udaleko Berdintasun teknikariak.

HITZORDUAK

AZAROAK 25

13:00 Elkarretaratzea plazan *Tratu onaren alde* lelopean.

AZAROAK 28

18:30 Amaia Aldamaren hitzaldia, kultura etxean.

AZAROAK 29

20:00 *La redención* filma. Zineklubaren barruan.



Atean puntu morea jartzen. | MIREIA BIKUÑA

Mezu hori gaztetxoen artean ere zabaldu gura izan dute, eta, horrela, mezu hori jasotzen duen txapa lehiaketa antolatu dute herriko ikastetxeetan. DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleek hartu dute parte, 14 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek. Aste honetan bukatu da lanak aurkezteko epea eta gaur eguerdian bana-

tuko dituzte sariak, *Tratu ona* lelopean antolatu dituzten hitzorduen aurkezpenean, osoko bilkuren aretoan.

Bestalde, puntu morea duen bandera handi bat jarriko dute gaur udaletxean, eta Berdintasun Sailak dei egiten die herritarrei etkez etxe banatu dituzten puntu moreak jartzeko.

Baserrisarearen aurkezpena martitzenean

Bailarako 23 baserri daude atari horretan eta sei Oñatikoak dira

O.E. | OÑATI

Debagoieneko landa eremuaren erakusleihoa da *www.baserrisarea.com* webgunea. Irailean egin zuten bailara mailako aurkezpen ofiziala, eta orain, herriz herri ari dira aurkezten. Oñatin datorren martitzenean, azaroak 27, aurkeztuko dute, 18:30ean, kultura etxean. Landa Garapen

Agentziako Mari Karmen Iturbe eta webgunearen dinamizatzaile Itziar Urizarbarrena izango dira aurkezpenean, udal ordezkariekin batera. "Landa garapenari buruzko informazioa dator atari horretan, baina kaletarrendako ere interesgarria dena; beraz, landa garapenean zein kalean bizi diren oñatiar guztiak daude

gonbidatuta martitzeneko aurkezpenera", aurreratu du Itziar Urizarbarrena bergararrak.

Oñatiko sei baserri

Baserrisarea.com atarian Debagoieneko 23 baserri agertzen dira, euren lana, euren produktuak erakusten. Horietako sei Oñatikoak dira: Gomiztegi, Ira-

ban, Irazaba, Azkarreta, Ortu-zabal eta Arrazola. Sei horietatik hiruk, gainera, *on line* dituzte euren produktuak. Izan ere, baserritarren produktuen denda birtuala ere bada *www.baserrisarea.com* ataria.

Debagoieneko baserritarren produktuak salgai egoteaz gainera, inguruan egiten diren azoken egutegia ere badakar webguneak. Baita Debagoieneko kontsumo taldeen inguruko informazioa ere; adibidez, Oñatiko Ortuzabala taldearena.



Eteo zaharrean 1975-76 ikasturtean ateratako argazkia. | TXANTXIKU IKASTOLA

Ikastolako kontu zaharrak

Txantxiku Ikastolako 400 ikasle ohi elkartuko dira bihar eguerdian Zubikoa kiroldegian, bazkaltzeko

O.E. | OÑATI

Txantxiku Ikastolako ikasle ohien eguna egingo dute bihar, zapatua. 45 urte betetzen ditu aurten Txantxiku Ikastolak, eta urteurren horren barruan antolatu dute ikasle ohien bazkaria.

Harrera ona izan du egunak. Izan ere, eguerdian bazkaria egingo dute, eta atera dituzten txartel guztiak saldu dituzte dagoeneko; 400 txartel, guztira. Zubikoa kiroldegian elkartuko dira, beraz, azken 45 urte hauetan

Txantxiku Ikastolako ikasle izandako asko. Gaurkoak baino gehiago, lehengo kontuak izango dituzte hizketagai ziurrenik; argazkia ateratako garaikoak, esaterako.

Bazkariaren aurretik, baina, beste hitzordu batzuk ere badiutuzte ikasle ohiek; izan ere, askotariko ekintzak antolatu ditu Txantxiku Ikastolak biharko festarako. 09:00etan, mendiko bizikleta irteera egingo dute, jolaslekutik. 11:00etan, berriz, herri kirolak egingo dituzte herriko plazan. Promozioen arteko topaketak izango dira. Talde bakoitzak hamar kide izango ditu, bost mutil eta bost neska. Eta egingo dituzten proben artean hauek daude: koskol bilketa, txinga eramatea, kontrabandisten karrera, zaku saltoak eta sokatira.

12:30ean, hildako ikasleen aldeko meza egingo dute agustindarren elizan. 13:00etan, triki-poteoa izango da; eta bazkaria, 14:30ean. Bertsolariak, txiste kontalariak eta kantu saioa ere izango dira bazkalostean. Eta egun osan, gainera, argazki zaharren erakusketa egongo da pilotalekuan bertan.

'Barrura begiratzeko leihoak' Oñatira dator

O.E. | OÑATI

ETako presoei buruzko dokumentala, *Barrura begiratzeko leihoak*, datorren asteburuan ikusi ahal izango da Oñatin. Azaroaren 30etik abenduaren 5era egongo da ikusgai. Bost emanaldi programatu dituzte tarte horretarako. Emanaldi batzuk asteburuan izango diren arren, berez zinema komertzialik ez dagoen orduetan pantailaratuko da. Sarrerak bi eurotan salduko dituzte. Udal Gobernu taldeak antolatu ditu emanaldiak, eta Herrijorran egitasmoaren barruan sartzen dira. *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentalak bost historia batzen ditu, bost zuzendarik bost euskal presoren ingurukoak kontatutakoak.

Sortu eratzeko lehen herri batzarra egingo dute bihar goizean

Sortu eratzeko prozesua has-teko herri batzarra egingo dute bihar, 09:00etan, gaztelekuan. Bihar hasi eta otsailaren 23a arte kongresuaren eztabaidaren lehen fasea egingo dute, eta hiru batzar egingo dituzte tarte horretan. Otsailaren hasieran barne hauteskundeak egingo dituzte. Ponentziak Arrano tabernan daude eskuragarri.

Orientazio saioak egingo ditu Elkar Hezik martitzenetik

Lau orientazio saio antolatu ditu Elkar Hezik otsailera bitartean. Batxiler mailako eta DBHko 4. mailako ikasle eta gurasoendako dira saioak. Lehena datorren martitzenean egingo dute, azaroaren 27an, 19:00etan. *Eta batxilergoa egin ondoren zer?* galderari erantzuten laguntzeko da, eta bigarren batxilergoko gurasoei dago zuzenduta.

100 kilo gaztaina-erre banatuko dituzte gaur Pake Lekun

Urteroko Gaztaina-erre Eguna egingo dute gaur, egubakoitza, Pake Lekun. 100 kilo gaztaina erreko dituzte, guztira, gaur arratsaldean, eta herriko erretiratu guztiak daude deituta gaztainak zuritu eta jatera. Doan izango da, eta, gaztainez gain, edatekoa ere izango da. Gaztainak jan ondoren, dantzaldia egingo dute Txome orkestaren eskutik.

Mendi sailaren argazki erakusketa ikusteko azken egunak

Domekara arte dago zabalik Aloña Mendiko mendi sailak antolatu duen argazki lehiaketako erakusketa. Aurten 234 lan aurkeztu dira lehiaketara, eta 44 onenak daude ikusgai kultura etxean. Salgai daude argazkiok, 40, 60 eta 90 eurotan. Salmentatik ateratzen duten dirua Felix Baltistan Fundazioarendako izango da.

Disko-festa eta ping-pong txapelketa gaztelekuan

V. ping-pong txapelketa egingo dute gaur, egubakoitza, gaztelekuan. Txapelketa 18:30ean hasiko da eta izen-ematea txapelketa hasi arte egongo da zabalik. Domekan, bestalde, disko-festa egongo da gaztetxoendako, Sound Proyect taldeko DJaren eskutik. Domeka arratsaldean izango da hori, 17:00etatik 20:00etara.

Josu Zubia | Kantaria eta musikaria

"Lehiaketetako jarduna ixten dut sari honekin"

- Josu Zubiak hirugarren saria lortu zuen Gipuzkoako Kantu Txapelketan
- Maketa eta kantaldi bira dira hurrengo urterako dituen helburuak

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Josu Zubiak (Oñati, 1994) hiru-garren saria lortu zuen aurreko aste bukaeran ospatutako Gipuzkoako Kantu Txapelketan. "Pozik" dago bere sariarekin, baina ez dator bat epaimahaiak hartutako beste erabaki batzuekin: "Nik beste ikuspuntu batzuk baloratuko nituzke".

Zorionak lortutako sariarengatik. Gustura zaude?

Eskerrikasko. Gustura nago, ez nuelako halakorik espero. Aurten guztiok lehiatu gara elkarrekin: taldeak, bikoteak eta bakarlariak. Hori horrela, hiru sari bakarrik banatu dituzte, eta horietako bat

niretako izan da. Alde horretatik, pozik nago.

Bakarleri moduan eta zuk sortutako kantu batekin. Apustu eta arrisku handia hartu duzu.

Bai, hala da. Bakarlaria izanik, gitarraren laguntza besterik ez daukat, eta horrek alde onak eta txarrak ditu. Oholtzara taldeka igotzen bazara, errekurso batzuekin (perkusia, pianoa...) kantu politak egin daitezke, baina gitarra batekin bakarrik zailagoa da. Gainera, neronek idatzitako kantu batekin aurkeztu nintzen: *Ilargi betea*, eta hori ere erronka handia da; besteak beste, kantua ez delako ezaguna.

Lehiaketa honen helburu nagusia sormena, sorkuntza sustatzea da. Alde horretatik, nik idatzitako kantu batekin aurkezteak on egin didala uste dut.

Zer kontatzen duzu *Ilargi betea* kantuan.

Desamodiotik amodiorako bidea kontatzen duen abestia da. Pertsona baten ondoan ilargi bete bat pasatzen duen pertsonaren istorioa kontatzen dut. Kantuaren bukaeran diodan moduan: "*Berriro dator, eta eskerrak, berriro, ilargi betea*".

Dena den, norberak irudikatu dezake kantuarekin kontatu gura dudana.



Josu Zubia. | GOIENA

"Desamodiotik amodiora arteko bidea kontatzen dut abestian"

laz nahiko kritikoa izan zinen Gipuzkoako Kantu Txapelketako epaimahaiak hartutako erabakiarekin. Aurten, konforme geratu zara?

Ez. Nere sariarekin konforme nago, baina sari barik geratu diren talde eta bikoteak daudela uste dut. Saritutakoek lan ona egin zuten, duda barik. Baina, ni epaimahaikide izango banintz,

beste aspektu batzuk baloratuko nituzke, eta nire saridunak beste batzuk izango ziren.

Hirugarren aldiz parte hartu duzu, eta hirugarrenean saria. Berriro parte hartuko duzu?

Ez. Sariaren arantza nuen, eta hirugarrenarekin ateratu dut. Sari honekin lehiaketetako jarduna bukatutzat ematen dut.

Orduan, ze proiektu dituzu esku artean?

Hurrengo urtean maketa grabatu nahiko nuke. Kantu dezente idatzi ditut, eta horiek ez galtzeko, grabaketa egin nahiko nuke.

Bestalde, kantu txapelketatan ezagutu ditudan musikari batzuekin kantaldi batzuk egin gura nituzke, gure sormen lanak eza-gutxera emateko.

Magia trukuekin jarraitzeko asmo-tan zara?

Bai. Musika eta magia dira nire zaletasunak. Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, berriro egingo dut ikuskizuna musika eta magia erabilita.

Egia da, denbora ondo antolatuta behar dudala. Huhez in Irakasle Ikasketak egiten dihardut eta guztiarendako denbora behar eduki gura dut.

Minbiziaren eta heriotzaren tabuak apurtzen laguntzeko antzezlan

M.B. | OÑATI

Markeliñe antzerki taldeak *Hareazko ipuinak* lana eskainiko du bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 17:00etan. Sarrerak www.barrabarra.eu atarian eros daitezke, 3,5 eurotan.

Istoria ospitale bateko gela batean kokatzen da. Han minbizia duen neskatila bat dago. Harekin batera aita dago, kezkatuta.

Alabak duen gaixotasunak ekar ditzakeen ondorioen beldur. Haren asmo bakarra alabak haurtzaroa ez galtzea da. Horri aurre egin nahian, aitaren beldur eta obsesio guztiak agerian geratzen dira. "Minbizia eta heriotzaren tabuak apurtzen laguntzeko lana da. Horien kontra nola egin kontatzen ahalegintzen gara. Gai serioa da, baina errespetuz, eta ahal den



Hareazko ipuinak antzezlaneko protagonistetako bat. | GOIENA

neurrian errespetuz jorratzen dugu. Egoera larrietan umoreak eta emotibitateak lekua dutela uste dugu", diote Markeliñe taldekoek.

Egoera horretan, aitzak edozer gauza egingo du alabarengatik: ipuinak kontatu, txotxongiloak erabili, pertsonaia ezberdinetan bilakatu...

Oholtza gainean Jon Kepa Zumalde eta Ines Martinez de Iturrate egongo dira protagonisten paperak egiten. Eurekin batera panpinak eta jostailuak egongo dira taula gainean.



Bertsolari txapelketako parte-hartzaileak. | BERTSO ESKOLA

Bertsolari txapelketako lehen kanporaketa, bihar

Antixena gaztetxean egingo dute, 18:00etan

M.B. | OÑATI

Oñatiko VI. bertsolari txapelketa bihar, zapatua, hasiko dute. 12 lagunek jardungo dute kantuan, 2008an Joseba Lasagabasterrek jantzitako txapelaren bila: Andoni Goitia, Beñat Alberdi,

Jon Irizar, Iñaki Olalde, Iñaki Igartua, Joseba Lasagabaster, Maider Arregi, Gorka Larrea *Txapel*, Urko Egaña, Joseba Igartua *Urze*, Josu Igartua eta Egoitz Aizpuru lehiatuko dira. Azken seiak bihar igoko dira oholtzara,

Endika Ruiz, Egoitz Atxaga, Julen Aranburu, Imanol Altube, Oñaka Anduaga eta Mirari Sagartzazuk proposatutako gaiei bertsoak ipintzera.

Eta bigarren kanporaketa abenduaren 1ean jokatu dute, Arrano elkartearen, 18:00etan.

Kanporaketa bakoitzeko lehen eta puntu gehien batzen duten lau bertsolariak pasako dira, abenduaren 15eko finalera. Egin beharko dituzten ariketak dira: agurra, hiru bertso zortziko handian, hiru bertso zortziko txikian, bertso bat lau oinak emanda, eta kartzelako lana: puntua erantzun eta bakarka, gaia emanda, bertso bat nahi duen doinu eta neurrian.

Bazkarirako txartelak

Finala egun osoko festa izango da; besteak beste, triki-poteoa eta bazkaria egingo dituzte. Bazkarirako txartelak kanporaketetan eta Ona eta Arrano tabernetan eros daitezke, 10 eurotan.

Bestalde, Berriaren aldeko ziztada lortzeko kanpainarekin bat eginez, kutzak ipiniko dituzte Berriarako dirua batzeko.

Jostailu erakusketa egingo dute ludotekan

M.B. | OÑATI

Udal Hezkuntza Sailak eta Txaloka Ludotekak V. jostailu erakusketa egingo dute aste bukaeran, ludotekan bertan: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara arte. Batez ere, 0-8 urte arteko haurrendako jostailuak egongo dira, eta gurasoek jostailuekiko dituzten zalantzak argitzeko aukera izango dute. Era berean, jostailuak probatzeko aukera izango dute, bai gurasoek eta baita umeek ere.

Bestalde, jolas kooperatiboaren gainean gune berezia ipiniko dute. Gainera, *Sortu* izeneko tailerra egingo dute guztiendako, eta gauza gutxi-ekin jostailuak sortu daitezkeela erakutsiko dute ludotekako arduradunek.

Azkoagain kanpoaldean bi argi puntu ipiniko dituzte

M.B. | OÑATI

Azkoagainen kanpoko aldean bi argi puntu ipiniko ditu Udalak, futbol sailak egindako eskaera aintzat hartuta. Hori horrela, futbol zelaiko argiteria itzaltzen denean, jokalariek eta entrenatzaileek argia izango dute eskailera edo arrapatatik jaisteko.

Orain hainbat lan egin beharko ditu Udalak han. Hasteko, argi hornidura farolak jarriko dituzten lekuetaraino eraman beharko dute; hau da, bizikletendako aparkalekuraino. Lan horiek egin ostean, farolak ipiniko dituzte. Seguruenik, Kalegoieneko jolaslekua estaltzeko lanen ondorioz kenduko direnetako bi erabiliko dituzte futbol zelaiaren inguruak argitzeko.

Atez atekoaren ezohiko bilkura monografikoa eskatu du EAJk

Jeltzaleek informazio falta salatu dute eta adierazi dute Bergarako Udal Gobernuak "demokraziaren marra gorri guztiak gainditu" dituela

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Bergarako EAJko Udal Taldeak atez ateko bilketa sistemaren gaineko ezohiko osoko bilkura monografikoa egiteko eskaera aurkeztu zuen atzo goizean, egue-na, Udalean. EAJk emandako azalpenena arabera, "legez alka-tea behartuta dago hamabost eguneko epean osoko bilkura deitzera", eta hori horrela ez balitz idazkariak hamar egun geroago deituko du automatikoki: "Udal Gobernuak eta Mankomunitateak atez atekoaren gainean duten dokumentazio guztia ekartzeko exijituko dugu", adierazi zuen Aintzane Oiarbidek eguean.

Jeltzaleek salatu zuten behin eta berriz eskatu arren, Udal Gobernuak ez diela informaziorik ematen bilketa sistemaren gainean, eta "demokraziaren marra gorri guztiak gainditu" dituela.

Zintzilikarioak erdigunean

Zintzilikarioen ezarpenaren inguruan ere galdetuko diote jeltzaleek Gobernuari. Udaleko Ingurumen zinegotziak pasa den astean GOIENARI egindako adierazpenetan azaldu zuen zintzilikarioen



Oiarbide, egueko agerraldian. | A.B.

kokapenaren gaineko lehenengo zirriborroa eginda dagoela. Bada, EAJk eskatu dio Gobernuari zirriborroa aurkezteko udalbatzako gainerako alderdiei.

Zintzilikarioekin lotuta EAJk adierazi zuen maiatzean hainbat galdera egin zizkietela Gobernuari "atez atekoak erdigune historikoan izan ditzakeen eraginen inguruan". Zalantza horiek Diputaziora bideratu behar izan ditu Udalak, eskumena Aldundiarena delako gune historikoko eraikinen moldaketei dagokienez. Jeltzaleen esanetan, Diputazioa-

ren erantzuna urriaren amaieran iritsi zen Udalera. Horren harira, Oiarbidek gaineratu zuen ez dela ulertzen Udalak nola garatu duen zirriborro hori Diputazioaren txostena izan aurretik. Aldundiak egindako eskariak betearazteko, Bergarako Udalaren eta Mankomunitatearen erabakiak gertutik jarraituko dituztela azaldu zuen: "Aldundiaren txostenak dio kasuak banan-banan aztertu behar direla eta Europako beste eredu batzuk begiratu behar direla. Beraz, hori guztia aztertuz gero eta gauzak egin behar diren moduan eginez gero, atez atekoaren ezarpenak luze jo beharko luke. Beste gauza bat da hori guztia kontuan ez izatea eta ez dakit nik ze eszenatokitara joango ginatekeen orduan".

Amaitzeko, Bergarako Gobernuari eta Debagoieneko Mankomunitateari eskatu diote atez atekoa bertan behera utzi eta bosgarren edukiontzia alderdi egiteko. EAJko ordezkarien esanetan, "beste herri batzuetan gauzak aldatzen ari dira", eta gauza bera egiteko eskatu diote Bergarako Udalari.

Kontzertua, film laburrak eta bilerak asteburuan gaztetxean

Aste bukaera bete-betea izango dute oraingoa Bergarako gaztetxean. Gaur, egubakoitza, Zarauzko Mor More hirukote akustikoak kontzertua eskainiko du, 22:30ean. Sarrera bi euro ordaindu beharko da. Domekan, berriz, begirada feministadun film laburren emanaldia egingo dute, 18:00etan hasita.

Bi ekintza horiez gain, bilerak ere egingo dira asteburuan gaztetxean. Egubakoitzean ohiko gazte batzarra egingo dute, 19:00etan, eta zaturako, gaztetxeko Gabonak antolatzeke lehen bilera deitu dute (15:30).

Atez atekoaren gaineko informazio bulegoa irekiko dute gaur

Gaur, egubakoitza, irekiko ditu atekak Oxirondo azokan atez ateko bilketa sistemaren gaineko informazio bulegoak. Udalaren asmoa da inaugurazioa "jai giroan" egitea eta adin guztietako pertsonen parte-hartzea bultzatzea "hondakinak gutxitzeko" helburuarekin. Hainbat ekintza antolatu dituzte; 17:00etan Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra egingo dute eta kome-ni da parte-hartzaileek CD eta DVDak eramatea. Inaugurazio ofiziala 19:00etan izango da eta Mikel Laskurain aktorearen esketx batekin amaitu da. Ondoren luntxa egongo da.

OHARRAK

ERREILENO ETA TOSTOIEK DASTATZEA BIHAR

Raizabal, Mujika eta Larrañaga gozotegien eskutik egingo da, 18:00etan, Munibe plazan, bihar, zapatua. Euro baten truke dastatu ahal izango dira tostoi eta erreilenoak, kafearekin edo txokolatearekin.

MIZPIRUALDEN BAZKARIA EGINGO DUTE ZAPATUAN

Nagusien Astea ospatzen ari

dira eta horren baitan musika saioak izango dituzte gaur, eta bihar, bazkaria, 13:00etan, opari banaketa eta guzti.

1966AN JAIOTAKOEK AFARIA EGINGO DUTE

Abenduaren 1ean egingo dute, 22:00etan, Zumelagan. Izen-ematea hilaren 28ra arte da, Ariznoan, 10 euro aurreratuta. Afari egunean Ariznoan batuko dira, 19:30ean.

ARRASATE

Etxe bat baino gehiago behe solairuak terrazarekin

estudio edota bulegoa, jangela, egongela, trasteleku, umeentzako jolasteko logela... bihurtu daitezkeen gune zabalekin

UTE URIBARRI

GURE BERMEAREKIN: **sukia GEDI**

LKS INFORMAZIOA ETA SALMENTA **943 71 22 59**

PROMOZIOAREN FINANTZAKETA ETA ABAL EMATEA **kutxa**

Emakumeen kontrako indarkeria salatzeke ekintzak antolatu dituzte

- Udalak abiatu duen kanpainaren barruan, tabernetan, dendetan... puntu lila jartzeko dei egin dute
- B-26 mugimenduak parodia bidez salatuko du indarkeria matxista astelehenean, herriko kaleetan

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Domekan, azaroak 25, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna da, eta, horren harira, zenbait ekintza egingo dira herrian datozen egunetan.

Udalak dagoeneko egin ditu herriarren artean arazo horren gaineko sentsibilizazioa bultzatzeko zenbait ekimen. Batetik, puntu liladun pegatinak atera ditu –indarkeria horren kontrako ikurra– eta eraikin publikoetan jarri ditu: udaletxe sarreran, igerilekuan, kiroldegian, pilotalekuan, kultura etxean... Baina horrekin batera, herritarrak ere gonbidatu ditu elkarte, erakunde, denda, taberna eta bestelako lokaletan ere puntu lila jar dezaten.

Dagoeneko taberna eta denda ugaritan ikus daiteke puntu lila

jarrita, baina Udaletik animatu nahi dituzte pegatina jaso duten guztiak jartzera.

Prebentzio programa abian

Prebentzioaren arloan ere badihardu lanean Udalak. Hain zuzen, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Prebentzio Programa jarri zuen martxan Berdintasun Sailak herriko ikastetxeetan, 2011-2012 ikasturtean, eta orain, jasotako balorazioaren berri dute Berdintasun Sailetik.

Mariaren Lagundia ikastolan, Aranzadi ikastolan eta Ipintza institutuan egin zuten programa, eta, guztira, 363 neska-mutikok, 56 irakaslek eta 55 familiak hartu zuten parte. DBHko lehen mailatik hasi eta batxilergoko lehen mailara artekoak sartu ziren programan, 12 eta 18 urtekoak, eta saio guztiak euskara hutsean egin zituzten.

Lahia-Nahia sexologia-elkarteko kideek garatu zuten programa. Hainbat urte dihardute herriko ikastetxeetan sexu-heziketa programak egiten –Gipuzkoako beste hainbat herritako ikastetxeetan bezala–, eta, gazteekin lan eginda, konturatu ziren euren jarrerak oso sexistak zirela.

Jaurlaritzak 2010ean ateratako txosten batean azaldu zuen



Puntu lila herriko taberna baten atean jarrita. | M.B.

Indarkeriak aurpegi asko ditu

B-26 mugimenduak egiten duen hileroko ekintza emakumeen kontrako indarkeria salatzeke erabiliko du oraingoan. Astelehenean San Martin plazan batuko dira, 19:00etan, eta handik abiatuta, herriko lau gunetan egingo dituzten beste horrenbeste parodiarekin salatuko dute emakumeen kontrako indarkeria. Indarkeria mota horrek aurpegi ugari ditu, eta horietako lau salatuko dituzte antzerki bidez: San Martin plazan irudikatuko dute zaintza lanak emakumeen esku daudela; Irala kalean, emakumeek lan baldintza prekarioagoak izatea parodiatuko dute; Simon Arrietan, pobrezia eta bazterketa sozial handiagoa jasatea; eta Eusebio taberna aurreko plaza txikian, berriz, sexu jazarpena. Bestalde, hilaren 26ro egiten duten moduan, salaketa-petoak eroango dituzte, zenbait lelorekin, eta burrundara ere egingo dute.

18 eta 35 urte arteko emakumeak direla indarkeria sexista jasaten dutenen %35. Horrekin guztia-ekin, sexu heziketa programaren barruan indarkeria sexistaren prebentzioa txertatzea ezinbestekoa zela ikusi zuen Lahia-Nahia elkarteak, indarkeria mota hori harreman afektibo-sexualekin lotuta baitago guztiz.

Sinismen sexistak aldatu

Bergarako ikastetxeetan garatutako programa eraginkorra izan da. Lahia-Nahia egindako balorazioak dio saio horiei esker gazteen sinismen sexista batzuk aldatzea lortu dela. Hauxe diote: "Ikasleek orokorrean emakumeekiko jarrera hobeak dutela ikusi dugu; hau da, adibidez, programaren ondoren gutxiagok pentsatzen dute emakumeek sexistoaren arazoa gehiegitzen dutenik, emakumeek orokorrean sexu-erakarpenaren bitartez gizonak manipulatu eta kontrolatu dituztenik, edota feminismoaren helburua gizonak emakumeen menpe jartzea denik. Bestalde, jarrera kritikoagoa dute emakumeak ohiko roletan mantenduz gero jasotzen dituzten mezu positiboen erabilkeriaren aurrean".

Saioen ostean, nesken desioa bikotekideak zaindua eta babes-tua izatearen ideien aurrean ere kritikoagoak direla diote: "Kritikoagoak, azken finean, ideia horrek adierazten dituen pentsaeren aurrean: emakumeak ahulagoak izatearena; euren burua bakarrik defendatzeko ezintasuna; arrisku gehiago izatearena; eta gizonen babesa behar izatearena".

Parte hartu zuten ikasleei dagokienez, programa oso egokia eta bizitzarako erabilgarria iruditu zitzaizela aurreratu dute.


DATUA

363

GAZTE

Horiek hartu dute parte Udalak eskoletan garatutako prebentzio programan. Eragina izan du, baina lanean jarraitu behar da.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimakerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55



Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, beheka • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitarkekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Mujika gozotegia



Gozogintzan nahi duzuna
Eskatu artisautza eta tradizioa.

Arteakalea 3 - BERGARA
Tel.: 943 76 10 34
mujikagozotegia.blogspot.com
mujikagozotegia@gmail.com

Liburuak trukatzeko azoka gaur eta bihar

M.B. | BERGARA

Jardun euskara elkarteak antolatuta, euskarazko liburuak trukatzeko azoka egongo da gaur, 18:00etatik 20:00etara, eta bihar, 11:00etatik 13:00etara, San Martin plazan.

Azaroaren 5ean abiatutako ekimena da. Erabilitako liburuak batzen aritu dira ordutik, eta batutako guztiak eroango dituzte plazako arkupeetan jarriko duten postura. Hain zuzen, erabilitako liburu horiek herritarrek eramandakoak dira. Eramandako liburu bakoitzarengatik txartel bana jaso zuten, eta plazako azokan sailkapen bereko edozein liburugatik trukatu ahal izango dituzte txar-

telok. Sailkapena adinaren arabera egin dute: haur, gazte eta heldu.

Dena den, Jardunetik aurreratu dute ezarritako epearen barruan libururik eramateko aukera izan ez zuten herritarrek badutela azokan parte hartzeko aukera: "Liburuak ekar ditzatela plazara eta azokan dauden beste batzuegatik trukatu ahal izango dituzte".

Jardunen egitasmo horren helburu nagusia da euskal irakurketa suspertzea, liburu berrerrabilpena bultzatuta. Era berean, kalean egiten den ekimena da, eta hori ere bilatzen dute, "herritarrekin zuzeneko hartu-emana izateko".

Hitz gurutzatuen binakako lehiaketa deitu dute eta izen-ematea zabalik dago

M.B. | BERGARA

Euskararen Egunaren harira hitz gurutzatuen binakako lehiaketa antolatu du Udalak abenduaren 1erako. Bergaran bizi edo ikasten dutenek har dezakete parte eta bi kategoria bereiziko dituzte: A kategorian, 12 eta 16 urte artekoek hartuko

dute parte; B kategorian, 17ik gorakoak sartuko dira. Izen emateko azken eguna hilaren 28a da eta horretarako www.bergarakoeuskara.net webguneko inprimakia betetzea gomendatzen dute. Informazio gehiagorako deitu Euskara Zerbitzura (943 77 91 66).

Lokatzakoek agurtu dute denboraldia

Elorregiko elkartearen afaltzeko batu ziren barikuan txirrinduzale bergararrak. Lokatzako ordezkari eta ziklistak eta goi mailako bi txirrindulari batu ziren. Markel Irizar oñatiarra eta Jon Izagirre Italiako Giroan besoak altxa dituen ormaiztegiarra izan ziren Lokatzakoek denboraldia agurtzeko urtero egiten duten afarian.



LOKATZA



POL-POL

Pol-Poleko beteranoen azken irteera

Pol-Poleko beteranoek aurreko domekan egin zuten urteko azken irteera, Nafarroara. Añarbe-Arano-Goizueta ibilaldia egin zuten, euripean. Lau orduko ibilaldia izan zen, eta ondoren, denboraldiari agur esateko, Goizuetan baba-jana eta dantzaldia izan zituzten giro ezin hobean.

Promociones Erregetxo Plaza Bergara

Bergarako hirigune historikoan
63 etxebizitza, libre, tasatu,
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:

ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18
LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

- ✓ KOKAPEN EZINHOBIA
- ✓ 1,2,3,4 LOGELAKO ETXEBIZITZAK
- ✓ LEHENENGO MAILAKO MATERIALAK
- ✓ SUKALDE EKIPATUAK, ARMAIRUAK

Dagoeneko zintzilikatu dugu
informazio guztia gure webgunean
Sartu eta ikusi

www.promocioneserregetxoplaza.com



OHARRAK

AURREKONTUA

GERTATZEKO BATZARRA

Herritarrekin batera udal aurrekontua gertatzeko bigarren bilera izango da bihar, zapatua, Arkupen (10:30). Arlo bakoitzeko mahaiak osatu eta ekarpenak jasoko dituzte.

PILOTALEKUKO ORDUAK
HARTZEKO BATZARRA

Eguaztenean, azaroak 28, Iturrigorri pilotalekuko erreserba orduak zozketatzeko batzarra egingo dute udaletxean (18:00). Datozen hiru hilabeteetako erabilera orduak banatuko dituzte orduan.

GAZTETXOENTZAKO
IRTEERA

Mairuelegorretako kobazuloa (Gorbeia) antolatu du irteera Murruxok 7 eta 13 urte arteko gazteendako. Abenduaren 1ean da. Izena emateko Murruxora jo behar da; azken eguna: azaroak 27.

JOLASAREN GAIKEKO
HITZALDI-TERTULIAK

Kuku Miku elkarteak antolatuta, jolasaren gaineko hitzal-di-tertulia bi egingo dituzte, Itsaso Pagoagak bideratuta: bata, azaroaren 29an, eguna (17:30); eta bestea, abenduaren 13an (17:30). Kuku Mikuren Durana kaleko lokalean dira eta umeei joan daiteke.

Hondakinen kudeaketa sistemen gaineko ideiak gura ditu Udalak

'Ideien zaparrada' deitu du, herritarrek proposamenak egin ditzaten

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Hiri hondakinen kudeaketa sistematik proposatzeko aukera eman gura die herritarrei Udalak, eta *Ideien zaparrada* deitu du. "Asmoa da norbanako, talde, elkarte zein enpresen ezagutza eta kreatibitatea piztu eta hondakinen gaineko egungo bilketa sistemak dauzkaten gabeziak zuzendu eta sistema berritzailer, eraginkor eta posibleen ideiak agertzeara", diote udal arduradunek.

Udalaren konpromisoak

Ana Bolinaga alkateak eta Lore Martinez Ingurumen zinegotziak aurkeztu zuten astelehenean *Ideien zaparrada*. Gogorarazi zuten udalbatzak ekainaren 11n egingako osoko bilkuran onartu zuela %80tik gorako birziklatze tasa lortzeko helburua, eta helburu hori bermatzen duen hondakinen bilketa sistema baten aldeko konpromisoa.

Udalbatzak ekainean hartutako konpromiso horien artean daude: hondakin gutxien sortzeko azterketa abiaraztea; konpostatze kanpaina zabala egin eta auto-konpostatze komunitarioa bultzatzea; hondakinen derrigorrezko



Ana Bolinaga eta Lore Martinez. | M.A.

gaikako bilketa pertsonalizatu baten alde egitea; herritarrekin batera adostea hondakinak kudeatzeko sistemarik egokiena; mankomunitatearekin lan batzorde bat sortzea; ingurumen osasun-garria sustatzea; kaleetako zakarrontziak gaikako zakarrontzien-gatik ordezkatzeara; eta sentsibilizatzeko kanpainak bultzatzea.

Abenduaren 20a azken eguna

Udalak hartutako konpromiso horiek kontuan hartuta, herritarren proiektuek honakoa berma-

tu beharko dutela jakinarazi zuten: hondakinen gaikako bilketa; derrigorrez, biztanleen %100ek parte hartuko dutela; bilketa pertsonalizatua, jarraipena izateko; eta gutxienez %80ko birziklatze-tasak lortzea.

Proposatutako proiektuaren deskribapen ahalik eta zehatzena bidali beharko da, eta horrekin batera honakoak: norberaren datuak (izen-abizenak, NA, helbidea eta kontakturako modua); eta partaidetzarako ezarritako bermeak betetzen dituela ziurtatzea. Idatziz aurkeztu beharko dira proposamenak udaletxean edo honako helbidean: udala@aretxabaleta.net. Azken eguna abenduaren 20a da.

Proposamen guztiak Debagoieneko Mankomunitatera bideratuko dituzte, horien bideragarritasuna azter dezaten teknikariek. Egun dauden bilketa ereduarekin alderatuko dituzte, eta ondorioekin txosten bat osatu.

Ondoren, jasotako proposamen horiek Arkupen jarriko dituzte herritarrek ikusi eta baloratzeko. Udalaren webgunean ere egongo dira ikusteko moduan: www.aretxabaleta.com.

Alternatibako Oskar Matute izango da eguaztenean Arkupen

Alternatibak lotuz, ezkerre eraldatzearen erronka izeneko berbaldia eskainiko du Alternatiba alderdiko Oskar Matutek. Eguaztenean, hilak 28, izango da, Arkupen (18:30), eta Hector Prieto aretxabale-tarrak aurkeztuko du saioa.

2009an eratutako Alternatiba alderdiaren proiektuaren jatorria eta etorkizuna izango ditu berbetagai Matutek. EH Bilduko legebiltzarkidea da, gainera, bizkaitarra, eratu berri den Eusko Legebiltzarraren.

Futbol eskolan neskek ere badutela lekua gogorarazi du UDAK

Aretxabaleta Kirol Elkarteko zuzendaritzako kideek gogorarazi dute 8 eta 10 urte arteko gatzetxoendako abian jarritako futbol eskola neskendako ere zabalik dagoela. Hala, futbola gustuko duten neskek animatu gura dituzte izena ematera.

Futbol eskolako taldeak astelehenetan elkartzen dira entrenatzeko, eta zelan lan egiten duten ezagutu edo izena eman gura dutenak hurre-ra daitezela Ibarra futbol zelaira.

PREZIO PAREGABEAK

Azken etxebizitzak %4ko BEZarekin

AUKERA APROBETXATU!

Informa zaitez

ESKORIATZA

Elorreta Auzoa (erdigunetik oso gertu)



www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude.

943 10 95 95

'Indarkeria matxistarik ez' leloa duen elkarretaratzea domekan

M.A. | ARETXABALETA

Domekan, azaroak 25, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna gogoan dela *Indarkeria matxistarik ez* lelodun elkarretaratzea egingo dute Herriko plazan (13:00). Udaleko Berdintasun sailak deitu du ekitaldia eta herritar guztiak gonbidatu gura ditu bertara.

Udalaren adierazpena

Udaleko alderdiek, gainera, adierazpena adostu dute egun hori gogoan, eta "indarkeria matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa" hartu.

Aurten bost emakume erail dituztela Euskal Herrian jaki-

narazi dute adierazpenean, eta gaineratu: "Emakumeen aurkako biolentziak, izaera fisiko, sexual edo psikologikotik harantzago izaera ekonomiko eta soziala ere badu". Hala, ekitatea eta berdintasuna oinarri izango dituen eredu sozial baten eraikuntzan aurrera egiteko konpromisoa hartzen dutela diote: "Udalak konpromisoa hartzen du neurri ezberdinak hartuta indarkeriari aurre egiteko; hitzetatik ekintzetara pasatuta Udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko; eta autodefentsa feministaren beharraren berri eman eta emakumeak hori lantzerantz animatzeko".



Mutikoak xakean jokatzen Iralabarri plazako egoitzan. | M.A.

Xake eskolak abian dira Aitor Alcaideren eskutik

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Arlutz-Arrasate taldeko kide Aitor Alcaide aretxabaletarrak xake eskolak jarri ditu abian. Eguenetan elkartzen da (18:30-20:00) Iralabarri plazan duten txokoan hamar bat lagunekin.

Ume eta heldu, guztiek dituzte zabalik ateak xake eskolan: "Kirol hau ezagutzera ematea aretxabaletarren artean eta xakean jokatuta ondo pasatzea da helburua, beste barik", dio Alcaidek.

Orain dela lau bat urte hasi zen eskolak ematen Alcaide; eta atsedena ditxo bat hartu ondoren, berriro itzuli da. Zortzi urte inguruko neska-mutikoak dira gazteenak eskolan eta helduak ere badaude: "Zortzi bat mutiko etor-

tzen dira, oraingoz, eta hiru heldu ere elkartzen gara xakean jokatzeko".

Xake taldeak Iralabarri plazan duen txokoa ez da handia eta ez dute askorendako lekurik, baina interesa duen edonork topatuko ditu ateak zabalik eguenetan.

Lehen mailako jokalaria

Aitor Alcaide Arlutz-Arrasate xake taldeko kidea da Andoni eta Fran Miguel anaia aretxabaletarrekin eta Asier Etxagibel arrasatearrarekin batera. Euskal Ligako lehenengo mailan, hau da, B mailan jokatzen du taldeak -Aretxabaletako egoitzan-, eta denboraldia urtaril inguruan hasiko dute.

Euskararen kale erabileraren datuen aurkezpena hilaren 27an

Aretxabaletako euskararen kale erabileraren neurketak emandako emaitzen aurkezpena egingo dute martitzenean, azaroaren 27an, Arkupeko Zeraia aretoan (18:00). Neurketa Soziolinguistika Klusterrak egin zuen 2011ko udazkenean Udalak aginduta, eta bertako kideek bideratuko dute aurkezpena. Herritarrek ere gonbidatuta daude bertara. Zenbat erabiltzen da euskara Aretxabaletako kaleetan? galdera eta beste batzuk erantzuten saiatuko dira.

Buzkantz dastatzea dago hilaren 30ean, UDAK antolatuta

Aretxabaleta Kirol Elkartek eta Aretxarte merkatarienak elkarlanean buzkantz dastatzea antolatu dute azaroaren 30erako, egubakoitza. Pagaldaiko taberna zaharrean jarriko dute tabernatxoa (18:00).

Egun hori iritsi bitartean, Aretxarteko merkatariek txartelak banatuko dituzte bezeroen artean buzkantzak debalde dastatzeko. Beste mokadutxo batzuk ere izango dituztela aukeran jakinarazi dute UDAkoek; txistorra eta txorizoa, esaterako.

ZER OTE?

Munduan 6.000 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira... Aretxabaletan zenbat hitz egiten dira?

Kaleko zuhaitzetan, Arkupen eta Ibarra kiroldegian, herrian hitz egiten diren hizkuntzen pistekin topo egingo duzue. Erantzunak jasotzeko postontziak: Arkupen, kiroldegian, Loramendin eta ikastetxeetan. Erantzuteko epea: azaroaren 30a.

Saria: mahai-jokoen bilduma.



Azken etxebizitzak!!

ORTUZAL PROMOCIONES S.L,
Tel.: 943 76 11 18 - 943 79 40 00

ARETXABALETA
AUKERA EZIN HOBEA

ETXEBIZITZAK:

2 logela
2 bainugela
Sukalde hornitua
Ganbara bikaina

ABENDUAREN 31 BAINO LEHENAGO

190.000€ (BEZ barne)

Emakumeak pozik, eurei zuzendutako tailerrarekin

- Nork bere burua gehiago maitatzeko eskolak eskaintzen ari dira
- Estereotipoek gure bizitzan duten eragina aztertu dute, besteak beste

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Etzi, domeka, ospatuko da Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna. Hori aitzakia bezala hartuta, Eskoriatzako Udalak emakumeei zuzendutako tailerra antolatu du. Lehenengo bi saioak asteon egin dituzte, eguazten eta eguen arratsaldean hain zuzen, eta tailerrari amaiera astelehenean emango diete.

Kultura etxean ematen ari diren saioak Euala izeneko genero aholkularitza ari da eskaintzen eta herriko zortzi emakume ari dira saio horiek jasotzen.

Tailerra

Ispilua, ispilua, zein da erresumako ederrena? Gure burua gehiago maitatzeko eskola; horixe da izenburua. Eskainitako saioen bitartez emakumeen parte hartzea lortu nahi da, eta orokorrean esanda, bertan aztertzen ari dira estereotipoek gure bizitzan, gure gorputzetan eta gure irudian duten eragina.



Zaloe Basabe hizlaria eguazteneko saioan azalpenak ematen. | A.T.

Kontzeptu teorikoen azalpenekin batera dinamika eta ariketa praktikoak ere tartekatzen ari dira saio horietan, norberaren buruaz jabetzea eta jabetze kolektiboa lantzeko. Horrez gain, euren burua gehiago nola maitatu ikas-

ten ere ari dira, kanpotik etortzen diren baldintzak alde batera utzita. Bertan parte hartzen ari diren emakumeak tailerrarekin "oso pozik" zeudela kontatu ziguten euren esperientzia eta beldurrak partekatu dituztelako.

ZALOA BASABE
GENERO FORMATZAILEA

"Emakumeek autoestimua indartzeko beharra daukagu"

Euala genero aholkularitza-ko formatzailea da Zaloe Basabe eta hura ari da saioak ematen.

Zer lortu nahi duzu saio hauekin?

Emakume bakoitzak bere gorputzaren ezagutza landua izatea eta autoestimua lantzea, besteak beste.

Emakumeek autoestimua indartzeko beharra daukate?

Orokorrean, bai. Orduak eman ditugu edertasunaren inguruan hitz egiten, baina ez dugu lan-du diskurtso propiorik gure gorputzaren inguruan, begiratzeko digutenen diskurtsoak hartzen ditugu kontuan.

Zer egin daiteke nork bere burua gehiago maita dezan?

Lehenengo, gorputzeko atalak ondo ezagutu behar ditugu bere osotasunean; gero, onartu behar dugu garen bezalakoak garela; eta azkenik, ikasi behar dugu gu garela gure gorputza eta gure gorputza garela gu.

Ardo dastaketa zapatu arratsaldean

A.T. | ESKORIATZA

Aurten seigarren urtez antolatuko du ardo dastaketa Aitzorrotz kultura elkarteak. Zapatuan izango da, herriko plazan, 18:30ean.

Kriantza eta pintxoak

Urtero bezala, hiru upeltegi jarriko dituzte plazan eta horietako bakoitzean hiru motatako ardoak dastatu ahal izango dira. Beraz, guztiram bederatzi ardo mota izango dira. Hauek, besteak beste: Garcia Olano kriantza eta zuria, Ostatu kriantza, Heras Cordon kriantza eta Casar de Burbia. Pintxoak ere izango dira salgai plazan. Aitzorrotz kultura elkartetik aurreikusten dute gutxi gorabehera 800 pintxo inguru prestatuko dituztela zaturako.

Ardo eta pintxo bakoitzarengatik euro bat ordaindu beharko da. Hau da, produktu bakoitzak euro bat balioko du, eta Iñaki Kortazar Aitzorrotzeko kideak haxe esan digu: "Urtero-urtero erantzun hobea hartzen doan ekitaldia da ardo dastatzea. Pirritx eta Porrotx Eskoriatzan egoten diren egunean jartzen dugu, horrela, bailaratik datorren jendeak ere gozatzeko. Gainera, elkartearendako diru pixka bat ateratzeko ere oso ondo etortzen zaigu". Antolatzailerik herriar eta ingurukoak bertara joateko animatu nahi izan dituzte.



AMAIA TXINTXURRETA

Akizu zinegotziak kargua utzi du

Elizateetako zinegotzi izan da Iker Akizu legealdi honetan. Hala ere, bere karguari uko egin zion joan zen egunean egindako ohiko osoko bilkuran. Sentimendu gazi-goza zegoen Akizu, baina gainontzeko zinegotziei eskerrak emanez agurtu zen zinegotzi kargutik.

Sorturen eratze fasearen lehen batzarra zapatu goizean egingo da Ibarraundin

A.T. | ESKORIATZA

Bailarako beste herri batzuetan bezala, Eskoriatzan ere Sorturen eratze fasearen lehenengo batzarra egingo dute.

Bihar, zapatua, izango da, eta goizeko hamarretan elkartuko dira Ibarraundi museoa.

Lehenengo batzar horretara herriar guztiak daude gon-

bidatuta eta deia zabaldu dute interesa duten pertsona guztiak bertara joateko.

Oinarri ideologikoak

Sorturen oinarri ideologikoak zeintzuk izan behar diren izango dute hizpide, besteak beste, batzar horretan. Bertaraten direnen iritziak kontuan hartuko dituzte ideiak zehazteko.

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots Eskoriatzan izango dira bihar

A.T. | ESKORIATZA

Urtero izaten dute hitzordua Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoez Eskoriatzan. Aurtengoa ere iritsi da eta bihar, zapatua, eskainiko dute *Sinfonikoa* izeneko euren ikuskizun berria, 17:30ean, kiroldegian.

Aurten ere, beste urte batzuetan bezala, 1.450 sarrera jarri dituzte salgai, eta, ondo saldu diren arren, beste urte batzuetan baino salmenta lasaia izan dute.

Hasteko, eskoletan jartzen dituzte salgai sarrerak, eta ondoren, geratzen direnak kiroldegian jartzen dituzte salgai. Beste urte batzuetan kiroldegira 250 sarrera inguru iristen ziren. Aurten, baina, 500 sarrera baino gehiago

izan dira salgai egunotan kiroldegian.

'Sinfonikoa'

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsentzat urte berezia da aurtengoa. 25 urte igaro dira sudur gorriak eta zapata handiak jantzi eta herriz herri euskara eta alaitasuna zabaltzen hasi zirenetik. 25 urte horietako jarduna eta bizitako abenturak ospatzeko disko sinfonikoa grabatu dute pailazoez, urte hauetan bildutako abestien artean aukeratutakoekin osatua. Joan den zapatuan estreinatu zuten, Elgoibarren, eta, hain zuzen, Eskoriatza euren ikuskizun berria eskaintzen duten laugarren herria izango da.



Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoen irudia. | PIRITX ETA PORROTX

Uretako parkea umeendako domekan

A.T. | ESKORIATZA

Uretako jokoak egongo dira kiroldegiko igerilekuan domekan 16:00etatik 20:00ak arte.

Haur eta gaztetoen adinari dagokionez, txandak egongo dira ur jolasetarako. 16:00etatik 17:15era bitartean 6 urtera arteko haurrak joan ahal izango dira gurasoez, 17:15etik 18:30era bitartean 7 eta 10 urte bitarteko haurren txanda izango da eta, azkenik, 18:30etik 20:00ak arte aukera izango dute jokoekin disfrutatzen 10 eta 14 urte bitartekoak.

Puzgarriak eta bestelako jokoak egongo dira uretan lagun artean ondo pasatzeko. Bazkideek 2 euro ordaindu beharko dituzte ur jolasetan ibiltzeko eta gainontzekoek, berriz, 3 euro.

Aranguren: "20 minutuan prest dugu danbolinkada"

Domekan, 25. urtez, Gaztaina-erre Eguna egingo dute antzuolarrek, plazan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
Juan Ramon Aranguren *Zaharra*-k 25 urte daramatza gaztainak danbolinean erretzen. "1998an hasi ginen eta aurten 25 urte beteko ditugu".

Baina hasierako garai haietan ez zela horren erraza gaztainak erretzea kontatu digu: "Ikasi egin dugu eta egun 20 minutuan danbolinkada bat egiten, ateratzen dugu". Lau lagun arituko dira lan horretan domeka arratsaldean.

130 kilo ekarriko dituzte domekan herritarren artean banatzeko. "Jendeak oso gustura jaten ditu gaztainak, eta sagardo pixka batek lagunduta. 130 kilo gaztaina erreko ditugu eta 30-40 sagardo litro banatuko dira".

Leon eta Galizia aldeko gaztainak dira; izan ere, hemen horrenbeste ez daudela azaldu digu Aranguren: "Zumarragan dagoen pabiloi batean erositakoak dira; normalean, Leon edo Galizia aldekoak izaten dira, hemen ez dago-eta horrenbeste gaztaina egiteko".

Udalak abiatutako ekimena da eta herritarren artean urtetik urtera harrera hobe izaten dela dio *Zaharra*-k. "Egun polita da. Udalak musika ere jartzen du, gaztainak banatu, sagardoa edan, hitz egin... giro polita sortzen da herrian".

Baina zein da gaztainak ondo erretzeko sekretua?: "Su ona eduki eta danbolina gaztainaz erdiraino betetzea; hobe da erditik behera badago beteta. Ez dauka aparteko sekreturik".

Hasierako urteetan, 4-5 orduko lana hartzen zutela kontatu digu: "Hasieran, ez geneukan bidoirik eta sua kanpoan egiten genuen; gu gaztainak baino lehenago erretzen ginen eta gaizki



Juan Ramon Aranguren danbolinarekin. | MAIDER ARREGI

DATUA

130

KILO

Domekan 130 kilo gaztaina inguru erreko dituzte danbolinean, herriko plazan, arratsaldeko zazpietatik aurrera.

pasatzen genuen. Orain, suaren berotasuna aprobetxatu eta berehala egiten ditugu; 20 minutuan danbolinkada prest izaten dugu. 2 orduan lau lagun artean 130 kilo erretzen ditugu, erraz", nabarmendu digu Aranguren.

25. Gaztaina-erre Eguna domekan egingo da, 19:00etan.

Argazki lehiaketako sariak
Udalak eta Antzuolako Kultura Sailak abiatutako ekimena da argazkilari antzuolarrei zuzendutako lehiaketa. Aurten ere maila ezin hobe izan dela azaldu digute epaimahaikideek, baina domeka arratsaldera arte itxaron beharko da irabazleen izena jakiteko. Hain zuzen ere, argazki lehiaketako sari banaketa arratsaldeko zortzietan egingo dute Olanen etxean, domekan.

Argazki erakusketa
Urtero egiten de moduan, aurten ere parte-hartzaile guztien lanak ikusgai izango dira aste bukaeran. Erakusketan, gainera, herritarrek boto bidez aukeratutako argazkirik onenaren saria emateko aukera izango dute. Hauxe da zapatuko eta domekako ordutegia: 12:30-14:00 eta 18:30-20:30.

213 lagunek bisitatu dute erakusketa

M.A. | ANTZUOLA
Pili Azkarate, Itziar Murgizu, Maite Azkargorta eta Koro Iraegi bergararren lanek harrera bikaina izan dute. Izan ere, *Lau*

emakumeren lau ikuspuntu izeneko erakusketa 213 lagunek ikusi dute bi asteburutan. Datu onak, eta interesa piztu duten lanak, zalantza barik.

Olanen askotariko eskulanak eta artelanak izan dira ikusgai: olioak, pastel pinturak, akriliko zein arkatzaz egindako pinturak; baita altzari dekorazioa eta berritze lanak ere.

Erakusketa, datutan
Lau emakumeren lau ikuspuntu erakusketa lau egunez bisitatzeko aukera izan zen. Hona hemen egun bakoitzean izandako harre-ra: azaroaren 10ean, zapatuan, 87 lagun; azaroaren 11n, domekan, 32 lagun; azaroaren 17an, zapatuan, 39 lagun; eta azaroaren 18an, domekan, 55 lagun. Guztira: 213 bisitari.
Positiboki baloratu dute erakusketak izandako harrera Kultura Sailetik.



Azkarate, Murgizu, Azkargorta eta Iraegi artistak. | ITZIAR MURGUIZU

Bizikletak garbitzeko gunea zabalik dago zapatua ezker

M. A. | ANTZUOLA
Herritarrek bizikletak Sagastin egokitu den gunean garbitu ahal izango dituzte aurrerantzean. Zapatuan inauguratu zuten eta dagoeneko harrera polita izan duela azaldu digute herritarrek. "Herritik jaio den proposamena da. Aspaldian geneukan herritar talde batek buruan proposamen hau, eta orain, denen artean lan eginda, auzolanean, errealitate bihurtu dugu", azaldu digu auzotar talde batek.

Herritarren eskaera
Udalak gune berria egiteko herritarren hainbat eskaera jasoak zituen aspaldian; eta egoera aztertu ondoren, proiektua abiarazi zuen.

Gune berri hori herritarrei esker egin ahal izan da, baina; izan ere, haiek arduratu dira auzolanean garbigunea egiteaz eta abian jartzeaz, elkarlana sustatuta eta lanak euren hartuta.

Proiektua aurrera atera ahal izateko lan egin duten herritarrek bizikleta martxa bat ere antolatu zuten, inaugurazioa eginda: Sagastitik aterata eta mokadutxo eginez, eguerdirako, bizikleta garbigunean, hain zuzen ere.

Bizikletendako garbigunea inauguratuta dagoen arren, aurrerago zehaztuko dituzte bizikletak garbitzeko gunearen erabilera arauak zeintzuk diren.



Bizikleta garbitzeko gunea zabaldu dute. | MADDI ELORTZA

Sortu alderdi politikoa eratzeke lehen herri batzarra abenduaren 1ean egingo dute Olanen

Datozen hilabeteetan Sortu alderdi politiko berriaren oinarriak –ideologikoak eta antolaketari dagozkionak– erabakitzeke prozesua egingo dute. Horretarako, hiru eztabaida nagusi egingo dira oinarri ideologikoari, ildo politikori eta antolaketari dagozkienak. Barne hauteskundeak ere egingo dira. Lehen batzarra abenduaren 1ean egingo da, 09:00etatik 12:30era. Bertan, Sorturen oinarri ideologikoak eztabaidatuko dira. Behar duenarentzat haurtzaindegi zerbitzua ere egongo dela jakinarazi dute.

OHARRAK

ANTZUOLA LIDER
20 punturekin lider da berriro Antzuola. Mutrikuren aurka jokatu du zapatuan partidua, 18:00etan, San Migel zelaian, Mutrikun.

ELKARRETARATZEA
Domekan, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta, elkaretaratzea izango da Herriko Plazan, 18:30ean.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Arantza Uribarren, Marije Lizartza eta Edurne Uribarren-Iturrieta. | J. BEREZIARTUA

Eraso sexisten aurrean gaitzespena adierazteko deia

Udalak bigarren ezarritako antolatutako kontzentrazioa; domekan izango da, Herriko Plazan (13:00)

J.B. | ARAMAIO

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna izango da domekan mundu osoan. Aramaiora ere helduko da eraso sexisten aurkako aldarria eta aurten bigarren ezarritako kontzentrazioa antolatutako etzira; Herriko Plazan izango da, 13:00etan. Udaleko Gatzaria, Migrazio eta Berdintasun Batzordeak deia egin die herritarrei elkarretaratzean parte har dezaten.

Gazteen inplikazioa bila

Iaz indarkeria sexisten aurkako aldarrikapenaren irudi den puntu morea jarri zuen Udal Gobernuak udaletxean eta herriko tabernari zein dendariei gonbidapena egin zien euren negozioetan ere ikurra jar zezaten. Ekimen horrekin jarraituko dute eta aurten, gainera, gazteen inplikazioa ere bilatuko dute: "Gazteengana jo gura

izan dugu eta eskatu diegu elkarretaratzean erakutsiko dugun pankarta eurak egin dezatela. Ederto erantzun dute", adierazi du Edurne Uribarren-Iturrieta zinegotziak.

Udalak dakiela, tratatu txarrak ez Domekako hitzorduaz gain, tratatu txarrak hizpide dituen pelikula baten proiektzioa ere antolatuko dute biharko. Hector Olivera zuzendariaren *Antigua vida mia* da filmaren izenburua; zapatuan izango da, Kultur etxean, 22:00etan.

Bestalde, Uribarren-Iturrieta aditzera eman duenez, Aramaioren ez dute tratatu txarrak eman diren kasurik ezagutu azkenaldian. Hala ere, Udalak erabateko babesa emango die tratatu txarrak salatzen dituzten emakumei: "Gizarte langile bat dugu horretarako eta konpromisoa hartzen dugu kasu bideratzeko", dio.

Euskal dantzekin gozatzeko aukera gaur eskolako gimnasioan

Lagun Arte dantza taldeak antolatuta euskal dantzekin gozatzeko aukera egongo da gaur eskolako gimnasioan, 18:00etan. Jaietan, erromerietan, ezkontzetan eta beste edozein ekitalditan dantzatzeko fandangoa, arin-arina eta zazpi-jausi dantzak ikasiko dituzte, besteak beste: "Ikasleen ekarpenei zabalik gaude", diote. Hamar euroko prezioa du ikastaroak. Hirugarrenez antolatuko dute; aurrekoetan urtarritan edo otsailean hasi izan dira, baina, herritarren eskaera ikusita, aurten lehenago hasi erabaki dute. Gaur da lehen saioa, eta asmoa da egubakoitzero elkartzea.

Íñigo Jimenez izan da argazki lehiaketako irabazle nagusia

Udalak 2013ko egutegi ofiziala osatzeko argazki lehiaketako irabazleak ezagutzera eman ditu. Irabazle nagusia Íñigo Jimenez arrasatearra da eta 200 euroko saria jasoko du. Bestalde, urtaro bakoitzerako argazki onenen egileek 100 euro jasoko dituzte; hauek dira saridunak: Iker Altuna –udaberriko eta neguko argazki onenak–, Nuria Altuna –udako argazki onena– eta Jose Angel Isasi –udazkeneko argazki onena.

Gainerako zazpi argazkiak Udalak aukeratu ditu: "Mila esker, guztioi, parte hartzeagatik, eta zorionak, irabazleei!", adierazi dute.

Euskararen erabilera "dezente apalagoa" da ezagutza baino

Klusteraren arabera, %82k dakite euskaraz, baina %64k erabiltzen dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Soziolinguistika Klusterrak atzo eman zituen Aramaioren euskararen kale erabilaren neurketak eman dituen emaitzen berri. Udalak eskatuta, 2011ko urrian egin dako neurketak dira eta Sastiñan aurkeztu zituzten emaitzek hainbat ondorio utzi dizkigute.

Lehen ondorio nagusia da euskararen erabilera "dezente apalagoa" dela ezagutza baino. Klusteraren behaketaren arabera, %64,4koa da euskararen erabilera Aramaioko kaleetan. Hori bai, erabilera hori ez dator bat ezagutzarekin, aramaiarren %82,5ek dakite eta euskaraz.



Aramaioren haurren artean egiten da euskara gehien. | GOIENA

Erabilerak gora 2008a ezker

Beste ondorioetako bat da euskararen erabilerak gora egin duela 2008tik 2011ra: %56,2koa zen 2008an eta esandako moduan, 2011n %64,4koa izan zen. Hala, 2003 eta 2008. urteetako neurketako beharakada gaititu, eta ia 2001eko maila berean dago euskararen erabilera hamar urte geroago. Ezagutzak, berriz, beharrazko joera izan du 1986tik 2006ra. 2001eko eta 2008ko neurketan artean euskararen erabilera jaitsi izana, hein handi baten, ezagutza mailan eman den beharakada horri zor zaio. Baina ezagutzaren gaineko azken datuak 2008koak dira: "2011ko ezagutzari buruzko datuak argitaratzen direnean informazio gehiago izango dugu 2011ko erabilera baloratzeko", diote atera berri duten txostenean.

KALE ERABILERA

ADINA	ERABILERA
2-14 urte	%80,7
15-24 urte	%75,2
25-64 urte	%54,7
65 urtetik gora	%53,6

*Iturria: Soziolinguistika Klusterra

Haurrak eta gazteak gehien

Bestalde, Aramaioko –Ibarra auzoan bakarrik egin ziren neurketak– emakumezkoek euskara gehiago egiten dute gizonezkoek baino: emakumezkoen %68,2, gizonezkoen %60,7ren kontra.

Adinari dagokionez, ordea, Aramaioren haurrak –2-14 urte– eta gazteak –15-24 urte– dira euskara

gehienean erabiltzen dutenak; %80,7 eta %75,2, hurrenez hurren. Hel duek –25-54 urte– eta nagusienek –65 urtetik gorakoak–, berriz, gutxiago egiten dute euskaraz: "Helduen %54,7 entzun ditugu euskarazko elkarrizketetan; adinekoen artean, berriz, %53,6koa da erabilera", diote.

Hala, erabilera datuak ezagutza datuekin alderatuta deigarria egiten da, proportzionalki, nagusien erabilera urria: ia guztiek dakite euskaraz, baina euren elkarrizketen ia erdiak ez dira euskaraz izaten. Beraz, adinean aurrera egin ahala erabilerak behera egiteko joera du. Azkenik, haurrek maila bertsuan erabiltzen dute euskara nagusiekin edo haurrekin bakarrik daudenean; nagusiek, berriz, gehiago erabiltzen dute euskara haurrekin daudenean nagusi artean soilik daudenean baino.



Bizente Goikoetxea abesbatza, aurreko emanaldi baten. | BIZENTE GOIKOETXEA

Santa Zeziliaren omenezko kontzertu berezia domekan

Meza ostean, Bizente Goikoetxea abesbatzak bederatzi kantu abestuko ditu San Martin elizan

J.B. | ARAMAIO

Bizente Goikoetxea abesbatzak ez dio hutsik egingo Santa Zezilia musikariaren zaindariaren omenezko urteroko hitzorduari. Azken asteotan San Martin elizan entseatu ostean, dena dute gertu

domekako kontzerturako. Meza ostean izango da emanaldia, San Martin elizan bertan. Bittor Kortabarria abesbatzak presidentek abestuko dituzten abestien berri eman digu; bederatzi kantu izango dira: *Maitia nun zira* (Jose

Uruñuela), *Elurra mara mara* (herrikoia), *Oi ama Euskalerrria* (Benito Lertxundi), *Fedea eta itxaropena* (Musika Dard Jamin-ena eta hitzak Antonin Lugnier-enak), *Ruinas del monasterio* (anonimoa), *La Golondrina* (Narciso Serradel), *Rossinyol* (herrikoia, Kataluniakoia), *Carnavalito* (Abalos anaiak) eta *Zezili done zinan* (Antton Errarte). Kontzertuaren ostean, ohi moduan, Dukiena jatetxean bazkalduko dute.

Santa Agedarako prestaketak

Bestalde, Kortabarriak aurreratu digu Santa Ageda egunerako prestaketekin hasita daudela. Bertso eskolako kideekin eta trikitilariarekin bilerak egin dituzte dagoeneko eta euren erantzuna "oso ona" izan da, abesbatzako presidentearen arabera: "Azken urteetan galbidean zegoen Santa Agedako ospakizunari ukitu herrikoia bat eman gura diogu". Otsailaren 2an irtengo dira kantuan eta entseguak noiz egingo dituzten zehaztu dute dagoeneko: urtarritaren 8an, 22an eta 29an, Kultur etxean (19:00). Antolatzaileek herritarrei deia zabala egin die parte hartzeko.

ELGETA



Zundaketa makina asteen Bolatoki aurreko belardian. | L.Z.

Zundaketa lanak Bolatokiko parkean

Duela 50 bat urte zabortegia zegoen bertan, eta Jaurilaritzak lur garbiak direla ziurtatu gura du

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Jakin-mina piztu du egunotan Bolatokiko jolas parkearen ondoan lanean egon den zundaketa makinak. Herritarren artean zurrumurru asko zabaldu dira; iturri berria ipini gura dutela parkean,

lurrak mugitzen ari direla... Ez dago horrelakorik. Eusko Jaurilaritzako Ihobe agentziak geologo bat eta bi langile bidali ditu lursail horretako lur zein ur laginak jasotzera. Erabaki horren atzean gunen honetan duela 50 bat

urte zegoen zabortegia dago. Hainbat artxibotan agertu da hondakin biltegia zegoela hemen 60. hamarkadan, eta urte asko badira ere lurren egoera zein den ziurtatu gura dute Jaurilaritzako Ihobe ingurumen agentzian.


Laborategian analizatzea

Bi zundaketa putzu zabaldu dituzte, bata jolas parkearen ondoan eta bestea behe-rago. Puntu bietatik ateratako laginak kutxa urdin batzuetan jaso eta txukun izendatu dituzte, gero laborategian analizatzeko.

Beharginek adierazi dutenez, momentuz ateratako laginetan ez da gai arriskutsuren arrastorik ikusten. Noizko zabortegia den ikusita hipotesi funtsezkoena da egotekotan hidrokarburo zein disolbatzaile arrastoak ego-tea.

Emaitzak martxorako

Guneari gaur egun ematen zaion erabilerak eraman du Jaurilaritza lur horiek ikertzera. Urte asko pasa badira ere haurrendako jolas parkea dago zabortegiaren gainean, eta kontaktua zuzena da. Ihobek martxo alderako izango ditu gertu emaitzak.



L.Z.

Lanak Miraballes karobian

Miraballes karobiak itxura berria izango du laster. Udalaren aginduz, ingurua garbitzen, hormak txukuntzen eta eraikuntza osoa sendotzen ari dira egunotan Goitu enpresako beharginak. Karobiak goiko aldean duen tximini-zuloa itxi egingo dute, eta buelta osoan baranda ipiniko diote. Hala, karobi gainean begiratoki bat geratuko da. Eguraldia aldeko bada, lanok pare bat asteko iraupena izango dute.

Indarkeria matxistaren kontrako mahai-ingurua eta elkarretaratzea

L.Z. | ELGETA

Domekan emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna da, eta bi ekintza egingo dira Elgetan.

elkargune moduan planteatzen dute, non egoera aztertu eta zer egin daitekeen eztabaidatuko duten. Gaztetxean izango da, gaur, hilak 23, 18:00etan.

Mahai-ingurua gaztetxean

Gazte Asanbladak genero indarkeriaren gainean hausnarketa egiteko mahai-ingurua antolatu du. Herriko gazteen arteko

Elkarretaratzea, domekan

Udalak, berriz, elkarretaratzea deitu du domekarako. Herriko Plazan egingo dute elkarretaratzea, 13:00etan.

Bi kontzertu, herri afaria, pintxo-domeka eta Elgetaklik argazki rallya asteburuan

L.Z. | ELGETA

Beteta dator aste bukaerako agenda. Gaztetxeak herri afaria eta kontzertua antolatu ditu gaur iluntzerako. Triki-potea-ekin hasiko da festa, 19:30 aldera, eta Lukas Prest eta Turboshit taldeen emanaldiarekin —sarrera hiru euro— amaitu goizeko ordu txikietan. Tartean, afaria ere egingo dute gaztetxean.

Zapaturako, berriz, antzerkirako gonbita egin dute gaztelekuko neska-mutikoei. *Agi-rre familia* delako antzez-lana prestatu dute eta Bolatokiko gimnasioan eskainiko dute, 18:30ean hasita.

Elgetaklik, domekan

Rally argazkiarekin esnatuko da domeka. Interesatuak 11:00etan dute hitzordua Herriko Plazan. Eguerdiko txikiteoan, berriz, pintxo lehiaketako pintxoak euro baten truke dastatzeko aukera izango dute herri-tarrek, azken aldiz. Pintxo onenaren aldeko botoa emateko azken aukera ere izango da.

Aste bukaerari amaiera emateko, *Sortuko dira besteak* kontzertua izango da Espaloian, 19:30ean. Pier Paul Berriz, Eñaut Elorrieta, Petti, Arantxa Irazusta, Alex Sardui eta Mikel Urdangarin izango dira Elgetan.

OHARRAK

AFARIA ETA IPUIN SAIOA

Zapatuan, hilak 24, 21:30ean, Maialde landetxean Maider Galartzarekin. Menu berezia eta *Emakume basatia* kontaketa euskaraz, 26 euro.

OZKARBIKO LOTERIA

Ozkarbi elkarteak batzordeak azaroaren 27an, 29an —18:00etatik 20:00etara— eta abenduaren 2an —12:00etatik 14:00etara— banatuko ditu Gabonetako Loteriako txartelak elkartean bertan.

PANPINA IKASTAROA

Abenduaren 1ean egingo dute ikastaroa Elgetan. Interesatuak udaletxera jo behar dute.

KZGUNEAK

Astelehenean KZgunean izango da dinamizatzailea, 16:00etatik 20:00etara.

ARDO DASTATZEA

Eguenean, azaroak 29, ardo dastatzea Espaloia kafe antzokian, 19:30ean.

LEINTZ GATZAGA

Loreak landatu eta bazkaria egingo dute Gureleko kideek domekan

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Domekan, hilak 25, landareak eta loreak landatzera aterako dira Gurel guraso elkarteak ume eta helduak. Goizeko lanak bukatuta bazkaltzeko elkarteak dira Toki Eder elkartean, eta gurasoek bilera egin eta elkarteak azken kontuen berri jarduteko aprobe-tzatuko dute.

Plaza inguruan elkarteak dira umeak eta gurasoak (10:30), eta landareak eta tresnak aldean hartuta herriko txokoak dotoretzera joan. Eguraldiak laguntzea gurako lukete lan horiek bete bitartean; hala ez bada, bertan behera utzi beharko dituztela lanok jakinarazi dute Gureleko kideek.

Bilera eta bazkaria

Eguraldia lagun izan edo ez ondoren bazkaltzeko elkarteak dira Garro jauregiko elkartean. Bazkaria gertatu bitartean bilera egingo dutela gurasoek jakinarazi dute: "Urteko ekimenen eta diru kontuen berri emango dugu, eta aurrera begirako asmoak azaldu: Gabonak, beste ekitaldi batzuk... Gurasoek, kezak eta proposamenak agertzeko tarte bikaina dute orduan". Lanean jardun ondoren bazkariak boro-bilduko du eguna.

Indarkeria matxistaren aurkako elkarretaratzea egingo dute domekan

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna dela -eta, Bideberri mankomunitateak elkarretaratzea deitu du domekarako, San Migel plazan (13:00), indarkeria matxista salatzeko.

Gainera, pilotalekuaren azpialdean pankarta handi bat jarriko dute, eta taberna, jate-

txe eta dendetan *Emakumeen aurkako indarkeriari* ez dioten puntu lilak banatu dituzte.

Udalak, berriz, emakumeen aurkako indarkeria salatu eta indarkeria matxistaren aurka jarduteko konpromisoa hartu du, eta 2012-2013 urte bitartean genero indarkeria kasuei erantzuteko protokoloa diseinatzeko dabil Bideberri.

SASKIBALOIA

Eneko Blanco: "Jokalari onak ditugu, baita talde ona ere; hori ez da beti gertatzen den zerbait"

- Natra Oñati lider da, jokatu dituen lau partiduetan irabazita; ligan hori egin duten bakarrak dira
- Bihar, zapatua, 18:00etan Burgosko Robledoren bisita izango dute Zubikoan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Une gozoak bizi izaten dabil Natra Oñati taldea. Iazko urte gogorraren ostean gutxi espero zuten halako liga hasiera ona egingo zutenik (lau jokatu eta laurak irabazi), nahiz eta egia den iazkoaren antzekotasun txikia duela taldeak. Zorrotzagoak izateko, iazko hasierako taldeaz ez du antzik, urtean zehar etorri ziren fitxaketek beste itxura bat eman ziotelako taldeari, eta, gainera, aurtengo aurpegi berrien ekarpena ere igartzen delako.

Jokalariak, eta taldea

Ez nahastu bi kontzeptuak, askotan ez direlako batera joaten. Alegia, jokalaria onak izateak ez du talde ona izatea ziurtatzen; galdetu, bestela, joan den asteko kontrario Zornotzan. *EBA*: Penoso izenburuaz bizkaitarrek auto-kritika gogorra egin dute taldeko webgunean: "Puntako jokalariai ditugu, baina ez puntako taldea"; izan ere, halako esaldiek erakusten dute zer igartzen duten faltan, eta hori da, hain zuzen ere, Oñatin bateratzen asmatu

dutena. Eta seguruenik, Zornotzan erakutsi zuten hori ondoen.

Eneko Blancoren mutilak ligako bosgarren garaipenaren bila kantxaratuko dira bihar, zapatua (18:00, Zubikoa): "Hasieratik jakitun ginen talde ona

ESANAK

"Zornotzan bajak izanda ere, talde lanaz irabazi genuen zapatuan"

"Zapatuan azkarrago jokatzen ahaleginduko gara"

ENEKO BLANCO | ENTRENATZAILEA

Ander Gartzia lan aipagarria egin zuen Zornotzan. | J. ARANTZABAL

genuela, baina ez genuen horren ondo hasterik espero. Etxeko partiduetan ondo ibiltzea zen asmoa, baina kanpoko partiduetan zer gerta daitekeen aurreirratzea oso zaila da", diosku Blancok: "Kanpoan arazo gehiago izango genituela espero genuen. Oraingoz, Santurtziren eta Zornotzaren kontra jokatu dugu kanpoan; hau da, ligan aurrean egongo diren taldeen kontra".

Sorpresa, Zornotzan

Hala, Oñatikoek joan den astean hartu zuten sorpresa positiboa: "Zornotza talde ona delako, eta guk nahiz eta talde ona izan baja garrantzitsuak genituelako; esaterako, barruko jokorako jokalariai bakarrenean, Josean Cadava. Eta, eurek barruko jokoa indar handia dute, zilarrezko LEB mailan jokatu duten jokalariai dituzte-eta. Hala, partidua hartan erakutsi genuen jokalariai onak izateaz batera talde ona ere badugula".

Biharko kontrario Miguel Antonio Robleda Burgosko taldea da: "Salamancako taldearekin antzekotasuna dute. Dagoeneko egin digute kritikaxoren bat; hain zuzen, oso motel jokatzen dugula. Horrela jokatzearen aldeko apustua egin dugu, jokaldi bakoitza gehiago landuz, eta jokoa kontrola izanda, baina zapatuan ahaleginduko gara azkarrago jokatzen, bi modutara jokatzeak kapaz garela erakusteko".

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida**giro!**

Gurea
TABERNA
Lotoak eta
kinielak



Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64

Akaitegi
EXPRES
santakurtz 16, aretxabaleta

Gosariak

Astelehenetik ostiralera (09:00-00:00)

Larunbat eta Igandeetan (12:00etatik zabalik)

Pintxoak

IOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasategia
Gertatutako janariak



Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



Mitarte 19 - 20550
ARETXABALETA

FUTBOLA

Aloñak lider sendoa den Hernaniren zelaian jokatuko du

Aloñari irabazi ostean Bergara da astea zapore gozoaz igaro duen ibarreko ordezkari bakarra. Beste hiru ordezkariak galdu egin zuten joan den astean, hirurek etxean, eta orain, Aloña Mendik, Mondrak eta Aretxabaletak kanpoan ahalegindu behar dute egoera zuzentzen. Lagun Onak izango du Aretxabaletak kontrario, Real Union Mondrak, Zarautz Bergarak, eta adi Aloña Mendirekin, lider sendoa den Hernaniren zelaira joango dira eta txantxiakurrak.

ESKUBALOIA

Ford Mugarri Arrasatek Basauri hartuko du bihar Iturripen

Euskadiko Txapelketan Arrasateko taldeak ligako azken sailkatu Indupime Basauri hartuko du Iturripen (18:15). Arrasatekoek puntu bakarrera dute lider dagoen Askartza. Hain zuzen, Soralue BKE taldeak izango du aurrean, oraingoz, kategoriako oilar dena. Muniategiren mutilek bihar iluntzean (20:00) jokatuko dute Askartzaren kontra, Leioan. Bergarakoak sailkapenaren erdian daude, eta oraindik jokatzeko dute joan den astean atzeratutako lehia.



Arrasateko jokalaria, jokoa irekitzeko pasea egiten. | J. ARANTZABAL

ERRUGBIA

"Galtzen hasi arren egoerari buelta ematen ikasi behar dugu"

XABIER URTZELAI | ARRASATE
Arlo psikologikoak kirolean duen eragina ez du ia inork zalantzan jartzen. Ezta Arrasate Errugbi Taldeko entrenatzaile Igor Isasik ere: "Hori da landu beharretako gauzetako bat, joan den astean Elorriion begibistan geratu zelako, hain zuzen, kosta egiten zaigula egoera txar bati buelta ematea. Aurreko jardunaldian pozik etorri ginen Iruñeatik, aldeko emaitza batekin, baina joan den astean lo harrapatu gintuzten".
Isasiren esanetan Elorriion mutilek beroketa saio ona egin zuten, konfiantzaz zelairatu ziren baina hala ere lehen 20 minutuetan 3 entsegu jaso zituzten: "Eta jendea burumakur ikusten hasi nintzen, begiradak lurrean gal-

duta". Arrasatekoak bigarren zatian erreakzionatzen gauza izan ziren, behintzat, indarrak parekatzeko: "Baina ordurako berandu zen". Hala, bigarren zati horretan bi taldeek entsegu bana egin zuten.

La Unica, Mojategin
Arrasatekoek etxean jokatu dute bihar, zapatua (16:30, Mojategi) bigarren postuan dagoen La Unicaren kontra: "Gauzak ondo egin dituen taldea da, baina gure kategoriakoak dira, gainetik ez dute beste talderik, eta ea partidu txukuna egiten dugun".
Arrasatekoak lehenengo itzulia amaitzeaz daude, eta aurrealdean sailkatu ez direnez B multzoan jokatu dute.

ZIKLISMOA

Kanpanzar Harrobiak-ek beste urtebetez babestuko du afizionatu mailako taldea

X.U. | ARRASATE
Dorletako Amako ordezkariak pozik eman dute albistea aditzera: "Badakigu babesleak esfortzu handia egin behar izan duela, egoera ez delako nahi bezain ona; hala, datorren urtean ere Dorletako Amak taldea izango du afizionatu mailan", adierazi du Iñigo Azkaratek. 2013ari begira Azkaratek hainbat aldaketa aurreratu ditu:

"Bailarako ordezkari gehiago izango ditugu, Oñatiko eta Bergarako txirrindulariak hartuko ditugulako". Hala, iazko esperimentziazatik abiatuko dira aurren: "Lehenengo urtea ikasteko urtea izaten da, bai ziklistek eta baita geuk ere. Ahaleginduko gara egin ditugun akats batzuk ez errepikatzen, eta bigarren urtean seriotasun handiagoz lan egin nahi dugu".

ASTEBURUKO HITZORDUAK		
FUTBOLA	ARETO FUTBOLA	SASKIBALOIA
EMAKU. BIGARREN MAILA Abanto Club-Mondra <u>Domeka. 12:00. Carreras.</u>	EUSKADIKO TXAPELKETA Eskoriatza-Uxo <u>Zapatua. 18:00. Eskoriatza.</u>	EBA Natra Oñati-Miguel Antonio R. <u>Zapatua. 18:00. Zubikoa.</u>
GAZTEAK, EUSKAL LIGA Aretxabaleta-Anaitasuna <u>Zapatua. 16:00. Ibarra.</u>	LEHENENGO MAILA Aretxabaleta-Gamon <u>Zapatua. 17:00. Ibarra.</u>	LEHEN NAZIONAL MAILA La Peña-MU <u>Zapatua. 20:20. Bilbo.</u>
OHOREZKO ERREGIONALA Lagun Onak-Aretxabaleta <u>Zapatua. 16:30. Azpeitia.</u> Real Union-Mondra <u>Zapatua. 15:30. Irun.</u> Hernani-Aloña Mendi <u>Zapatua. 16:30. Zubipe.</u> Zarautz-Bergara <u>Zapatua. 15:45. Asti.</u>	ESKUBALOIA EUSKADIKO TXAPELKETA Ford Mugarri-Basauri <u>Zapatua. 18:15. Iturripe.</u> Quiron Askartza-Soraluce BKE <u>Zapatua. 20:00. Leioa.</u> GIPUZKOAKO TXAPELKETA Suministros G.-Izarraitz Aloña <u>Domeka. 12:00. Irun.</u> GIPUZKOAKO BIG. TXAPELK. Tolosa-Bergara <u>Domeka. 10:30. Tolosa.</u> Arrasate-Talleres Ondo <u>Zapatua. 16:00. Iturripe.</u>	SENIOR GIZONEZKOAK Internacional-Soraluce BKE <u>Zapatua. 16:00. Donostia.</u> Alde Zaharra-MU A <u>Zapatua. 20:00. Altza.</u> SENIOR EMAKUMEZKOAK Eskoriatza-Take Aralar <u>Domeka. 16:00. Manuel Muñoz.</u>
ERREGIONAL PREFERENTEA Mutriku-Antzuola <u>Zapatua. 18:00. San Miguel.</u>		ERRUGBIA EUSKADIKO TXAPELKETA Arrasate-La Unica <u>Zapatua. 16:30. Mojategi.</u>



AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



23.900€-tik aurrera

> FORD Kuga
2012 | Diesela | 0 Km



Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

• Ford Focus	18.500 €
2012 Diesela Km 0	
• Ford Transit	21.700 €
2012 Diesela Km 0	
• Ford Focus Tdci 110	12.500 €
2011 Diesela	
• Citroën Picasso Td 92 Zp	7.800 €
2007	
• Toyota Land Cruiser Td 3 Ate 125 Zp	7.800 €
2000 Diesela	
• Ford Fiesta Tdci 70 Zp	6.800 €
2007 Diesela	
• Ford Connect Tdci 90 Zp	7.900 €
2009 Diesela	
• Kia Sportage Td	12.500 €
2008 Diesela	
• Land Rover Td Freelander	5.500 €
2000 Diesela	
• Mercedes Vito Cdi 8 jarleku	14.500 €
2004 Diesela	



11.300 €

> Renault Laguna Automatiko
2008 | Diesela | 15.500 Km | Nautilus urdiña



San andres auzoa 8
ARRASATE • 943 71 24 72

HAINBAT AUTOTAN 2012KO PIVE PLANA AUKERAN

• Volkswagen Caddy Kombi	9.500 €
2010 Diesela 81.400 Km Txuria	
• Renault Kangoo Kombi	10.200 €
2010 Diesela 33.800 Km Txuria	
• Renault Scenic	17.500 €
2011 Diesela 0 Km Marroia	
• Renault Clio Automatiko	8.250 €
2009 gasolina 17.934 Km Urdina	
• Renault Clio	9.500 €
2010 Diesela 17.015 Km urdina edo beix	
• Renault Megane	12.800 €
2010 Diesela 20.787 Km Grisa edo Urdiña	
• Renault Megane Sport Tourer	15.500 €
2011 Diesela 10.610 Km Beix	
• Dacia Stepway	11.450 €
2012 Diesela 11.250 Km Gorria edo Grisa	
• Dacia Sandero	8.950 €
2012 Gasolina 4.500 Km Gorria	



37.000 €

> Citroen DS5 Hybrid Sport
2012 | Diesel elektrikoa | 6.500 km | Zuri nakaratua



Debagoieneko kontzesionario ofiziala

San Andres auzoa 5
ARRASATE • 943 79 45 22

• Citroen C3 1.4HDI Cool	8.000€
2010 Diesela 40.500 km Beltza	
• Citroen C3 Picasso 1.6HDI SX	10.500€
2010 Diesela 57.400 km Beltza	
• Citroen C4 Aircross 1.8HDI Exclusive 2WD 150	31.000 €
2012 Diesela 500 km Marroi iluna	
• Citroen C5 2.0 HDI Business	14.500€
2010 Diesela 38.000 km Gris argia	
• Citroen DS3 eHdi Grapic Art	17.500 €
2011 Diesela 50 km Urdin iluna	
• Citroen DS4 1.6e-HDI Design STT	18.500 €
2011 Diesela 3.000 km Urdin iluna	
• Citroen DS4 1.6e-HDI Style CMP STT	21.500 €
2012 Diesela 3.000 km Gris iluna	
• Citroen Berlingo Hdi MULTISPACE 110	14.500€
2012 Diesela 21.350 km Gris argia	
• Citroen C8 22HDI SEDUCTION 160	23.000 €
2011 Diesela 44.985 km Gris iluna	

Iragarkia jartzeko: 943 25 05 05

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

KULTURA

Olaso Dorrea, Euskal Herriko jakintsuen topagune

- Olaso Dorrea, Sorrerakundearekin egindako akordioari esker, Jakiunde Akademiaren egoitza ofizial berria da
- Bergarako dorretxe esanguratsuan egokitutako espazioak partekatu egingo dituzte Sorrerakundeak eta Akademiak



Olaso Dorrea Ariznoa plazatik begiratuta. XVI. mende hasierako jaun arkitekturen

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bergarako eraikin esanguratsuenetako baten kokatu du egoitza ofiziala eta behin betikoa Jakiundek, Zientzia, Arte eta Letren Akademiak: XVI. mendearen hasieran eraikitako Olaso Dorrean, Telesforo Monzon idazle, euskaltzale eta politikari ezaguna jaio eta bizi izan zen etxean, hain zuzen.

Sorrerakundearen ardurapean

Olaso Dorrea Sorrerakundeak da gaur egun eraikinaren jabe bakarra, eta Jakiunde akademiarekin batera partekatuko ditu aurreantzean instalazioak. Hain zuzen, Sorrerakundeak Jakiunderen alde egin duen esleipen hori oinarritzen da akademiak euskal kultura babesteko eta sustatzeko eta euskara suspertzeko duen konpromisoan.

Akademia Olaso Dorrean kokatu aurretik, zenbait lan egin dira eraikinean, Jesus Laskurain Bergarako aparejadorearen proiektuan oinarrituta. Egindako konponketa eta atondura lanetarako zein espazioen ekipamendurako inbertsioa 500.000 euro izan da, eta kopuru hori Kutxak ordaindu du. Lanak joan den udazkenean hasi eta apirilean amaitu zituzten, aurreikusitako epeen barruan.

Konponketa beharra zuen

Olaso Dorreak kanpotik itxura ederra izan arren, estalkiak eta azpi-estalkiak konpontzeko beharra zeukaten. Hori dela eta, lan

sakonenak, batez ere, estalkien eta ganbaren konponketan oinarritu dira. Horrekin guztiarekin batera, harrera bat, bulegoak eta bestelako zerbitzuak kokatzeko lanak ere egin dituzte. Horiek guztiak antzina zerbitzuguneari eskainitako dorre zatian kokatu dituzte, dorrearen zati noblean eragin barik.

Igogailua jarrita, eraikinaren gainontzeko erabilerak moldatu gabe, hirugarren solairuraino irits daiteke, eta, ganbarara igotzeko, hirugarren solairuan plataforma jasotzailea jarri dute, irisgarritasuna bermatzeko.

Ganbararainoko tarte hori eskailera gutxi batzuen bidez ere gaindi daiteke.



Carlos Ruiz, Jesus Mari Ugalde, Jose Luis Elkorro eta Pedro Miguel Etxenike, Olaso Dorrea atzean dutela. | JAKIUNDE

Konponketa beharra zuen Olasok; batez ere, estalkiek eta ganbarak

Dorrearen zona noblean eragin barik egokitu dituzte bulegoak eta bestelakoak

Harrera, bulegoak, areto nagusi bat eta zerbitzuguneak egin dituzte

Harrera, bulegoak eta aretoa

Behoko solairuan sarrera bat egokitu dute eraikinaren albo baten –Telesforo Monzon plaza–, eta harrerarako espazio bat sortu. Eredu horretan, era berean, goiko solairuetako bulegoetara eta hitzaldi aretora igotzeko eskailera eta igogailua daude, eta, era horretan, ekidin

egin dute eraikinaren zati noblean interferitza.

Lehenengo solairuan berehalako itzulpenerako bulegoa egokitu dute; bigarren, office-a; eta hirugarrenean, berriz, lau bulego, batzar gela bat eta komunak jarri dituzte. Bulego horietako bi Olaso Dorrea Sorrerakundeak erabiliko ditu eta beste biak, Jakiunde Akademiak.

Ganbarari dagokionez, dorrearen azalera osoa hartzen du eta areto nagusi erabilerak eman dion hitzaldi eta halakoetarako. 125 metro koadro ditu, eta 100 bat pertsonarendako lekua. Aretori ere partekatu egingo dute Sorrerakundeak eta Akademiak, eta Kutxak ere erabil hala izango du, beharra izanez gero. Aipatzekoa da, bestalde, aretoa janzteko, Kutxaren fondoko margolanak eskegi dituztela bertako paretetan; bost artista ospetsuren hiruna margolan, hain zuzen: Jesus Mari Lazkano eta Manu Muniategiandikoetxea bergararrenak eta Nestor Basterretxea bermeotarrarenak, esaterako.

Horrekin batera, hormen, zoruen, leihoen, kristalen, argiztapenaren eta klimatizazioaren erreforma osoa egin dute. Horrez gain, espazio guztietan altzariak eta ikus-entzunezko ekipamendua jarri dituzte.

Egoera txarrean zeuden kanpoko eremu batzuetan ere interbenitu dute: teilaren faldoiak aldatu egin dituzte, eta iragazgaitzasuna eta isolamendua hobetu eta bikaindu. Horrekin

MUSIKA | Goseren "disco onena" aurkeztu dute | 34




adibide esanguratsuenetakoa da. | MONIKA BELASTEGI



Harreran harria eta leihoen edertasuna dira protagonista.



Bulegoetako bat eta batzar gela. | ARGAZKIAK: MONIKA BELASTEGI



Harrerako beste ikuspegi bat.



Teilatupe ederra dago ganbaran.



Jesus Mari Lazkanoren bi obra.



Manu Muniategiandikoetxearen lanak.



Leihoak, lehengo harria bistaratuta.



Office-a bigarren solairuan dago.



Nestor Basterretxearen margoak.

batera, teilatu-hegal polikromatua ere zaharberritu egin dute.

Jakiunde, "oso eskertuta"

Aurreko astean eman zituzten egoitza berriaren gaineko azalpenak egoitzan bertan egindako agerraldian. Han izan ziren hitzarmena sinatu duten hiru aldeetako ordezkariak: Jose Luis Elkoro, Olaso Dorrea Sorrerakundeko presidentea; Jesus Mari Ugalde, Jakiunde Akademiako presidentea; Pedro Miguel Etxenike, Akademiako ohorezko presidentea; eta Kutzaren Gizarte Ekintzako zuzendaria, Carlos Ruiz.

Jakiundeko presidenteak, Ugalde bergararrak, Sorrerakundeari lagapenagatik eskerrak eman ondoren, esan zuen esleipen horrekin euskal kultura sustatzeko eta hedatzeko aukera bermatzen zaiola Akademiari. Eta

hauxe ere gehitu zuen: "Aitortu beharra daukat harrotasun puntu batekin ematen ari natzaiola irekiera gaurko batzarrari. Bergarakoa izanik, ez da bakarrik gauden herrian gaudelako, gauden lekuagatik ere bada, Olaso Dorrea. Etxe hau nerabezaroan egunero ikusi eta miretsi nuen etxea da. Ezta amets gozoenean ere, ez nukeen amestuko egun batean etxe honetan Jakiunderen Batzar Orokor bati neuk emango niola hasiera".

Aurrerantzean Jakiundek Olason egingo ditu osoko bilkurak eta hileroko mahai iraunkorra ere han batuko da.

Dorrearen zaharberritzerako Estatuko aurrekontu orokorretako dirulaguntza ere izan dute, eta Gipuzkoako Aldundiaren laguntza ere izango du Jakiundek egoitzaren mantenurako.

Olaso Dorrea: XVI. mende hasierako altxor trinkoa

Jatorrian Errezabal izenarekin ezagutu zen arren, berehala hartu zuen Olaso Dorrea izena. XVI. mende hasierako eraikuntza trinko eta indartsua da. Urteetan barrena obra ugari egin dira fatxadetan: leihoak itxi eta zabaldu eta korridoreak zein galeriak ipini eta kendu zaizkio. Edozelan ere, dorre horrek ez du galdu bere jatorrizko indarra, ez eta izaera sendoa ere.

Kareharrizkoa eta bi gorputzekoa da: bata garaia da eta dorre itxura dauka; bestea zabalagoa da eta lehena baino altuera txikiagokoa. Nabarmentzekoak dira gorputz zabalagoaren angeluetan dauden garitoi ederrak. Eraikuntzaren erlaitza gailentzen dute pinakulu gisa eta flamerio dotorez errematatzen dira. XVII. mendean, dorre forma duen gorputza hegal barroko bikainarekin apaindu zen.



PENDRIVE BAT

Bidali KLUBA PENDRIVE [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira

goiena



LIBURUA ETA DVDA

Bidali KLUBA LIBURUAK [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira

PAMIELA



DVD ERREPRODUKTOREA

Bidali KLUBA DVD [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

EROSKI



UMEENTZAKO JOKUA

Bidali KLUBA JOKUA [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

argia



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

ikusteko pertsona bakoitzeko bi gonbidapen. Bidali KLUBA EUREKA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira. Zozketa suertatu ondoren hiru hilabeteko epea duzue joateko.

eureka! zientzia museoa

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: 688 69 00 08
Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05

e-posta: kluba@goiena.com

goienakluba.com

Urteko kuota: 50 €.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indararen dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuetan sartuko direla. Datu-txiketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartze, haiek zuzentzeko edo ezteztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

IRABAZLEA

'GIGANTES Y CABEZUDOS' ZARZUELARA KO SARRERAK

IMANOL AGINAGALDE ARANZABAL (Aretxabaleta)

ZORIONAK!



Negozioa baldin badaukazu,
iragarki hau zuretako da

Asmatuko duzu!

goienagida

Sarean | Mugikorretan | Tabletetan | Paperean



Google-n azkarrago
topatuko zaituzte.



Google Maps bitartez
topatuko zaituzte.



Zure negozioaren eta
produktuen **irudiak**.



Zuzeneko deia egiteko
aukera.



Geolokalizazioa.



'Nola joan' aukera.



Papereko edizioan zure negozioaren berri **20.700** etxetan.



goienagida 2013

OÑATI
BERGARA
ANTZUOLA
ELGETA
ARRASATE
ARETXABALETA
ESKORIATZA
LEINTZ GATZAGA
ARAMAIO

Gidan azaldu
gura baduzu,
garaiz zabilta.

Deitu 943 25 05 05
telefonora.





Sortuko dira besteak kantaldiaren estreinaldia Arrasaten egin zuten, martxoan. | GOIENA

'Sortuko dira besteak' kantaldia Elgetako Espaloian

Domekan, azaroaren 25ean, Xabier Leteren omenez sortutako musika ikuskizun gogoangarria Espaloian

LAIDA BERISTAIN | ELGETA

Euskal Herriko kantari, bertsolari eta musikari onenetakoekin osatutako kantaldi kolektiboa izango da. Zirrarak betetako musika ikuskizun hori domekan izango da, 19:30ean, eta dagoneko sarrerak salgai daude Espaloian bertan eta baita inguruko herrietan ere. Zehazki, Bergaran, Deportivo eta Bule tabernetan; Elorrion, Parra tabernan; Arrasaten, Itzala tabernan; Eibarren, Karrika eta Kultu tabernetan; eta Durangon, Plateruena kafe antzokian. Sarrera-salmenta duten kutzako bulegoetan ere izango dira sarrerak salgai.

Euskal musikagintzako ahots berezietako sei elkartu dira inoiz ikusi gabeko ikuskizuna eskaintzeko. Parte hartuko duten abeslariak Mikel Urdangarin, Alex Sardui, Eñaut Elorrieta, Petti, Arantxa Irazusta eta Pier Paul Berzaitz izango dira, hain zuzen. Hauen ahotsetan Jacques

Brel, Leonard Cohen, Jose Afonso, Lluís Llach, Loreena McKennitt eta beste hainbat bertsioak eta euskal kantagintzako pieza ahaztezinak entzuteko aukera aparta izango da.

Ikuskizuna musikaz lagunduko duten profesionalak ere itzal eta ospe handikoak dira: Joxean Goikoetxea –musika zuzendaria–, Oriol Flores, Txema Garces, Xanet Arozena, Miren Zeberio eta Luis Fernandez.

Bigarren aldiz elkartuko dira abeslari horiek halako kontzertu kolektibo batean. 2011n, Xabier Leteren omenezko zenbait emanalditan aritu ziren, eta, hain zuzen, musika-estilo eta nortasun askotarikoen lehen topaketa hartatik sortu zen kontzertu sorta horren ideia.

Elgetako kantaldiaren antolatzaileetako batek esan digunez, denbora luzea pasatu dute guztia antolatzen, eta gustura daude azkenean kantaldia aurrera ate-

rako dela ikusita. Aretoa betetzea espero dute, gainera.

Horretaz gain, ikuskizuna formatu horretan Donostian, Bilbon, Gasteizen eta Elgetan bakarrik egingo dela kontuan izanda, eurentzat Elgetan egitea berezia eta aipagarria dela dio antolatzaileak.

Errepertorioa

Aukera paregabea eta bakarra izango da sei abeslariak beren errepertorioko abestietatik kanpo entzuteko, aurreko belaunaldiko kantarien klasikoei beren ahoskera eta airea ematen edo nazioarteko kantu handien euskarazko bertsioak biziberritzeko. Adibidez, *Ne me quitte pas* eta *Amsterdam* Jacques Brel-ena, *So long* Marianne Leonard Cohen-ena, *The old ways* Loreena McKennitt-ena, *Tu gitana* Jose Afonsoren, *Yo pisare las calles nuevamente* Pablo Milanesena edo *L'estaca* Lluís Llach-ena.

Pieza rockeroagoak entzuteko aukera ere izango da Rupert Ordorikaren edo Rolling Stonesen abestien bertsioekin, besteak beste.

Errepertorioak hainbat euskal kantariaren obra hautatuak berreskuratuko ditu. Hala nola Laboa, Leteren, Rupert Ordorika, Imanol eta Lertxundirenak, eta, horrez gain, Lauaxeta, Xalbador, Sarrionandia, Gabriel Aresti, Gandiaga eta beste hainbat olerkariaren testuak eta poesiak jantziko ditu musikaz. Xabier Leteren omenezko lehen bira arrakastatsu hartatik bere sormen ezagunenak ere berreskuratuko dituzte, tartean, *Euskal Herri Nerea*, *Altzateko jaun* edo *Lore bat zauri bat*.

Euskal Kantagintzako abesti enblematikoen eta nazioarteko doinu aski ezezagunen hautaketaz gain, kontzertuak beste hainbat une zirraragarri ere tartekatuko ditu. Leteren poesia betirako horretatik, mila bertsioz jantzi eta beti zirrara sortzen duen *Izarren hautsa* kantutik hartu dute emanaldirako goiburua, *Sortuko dira besteak*.

Hurrengo emanaldiak

Lehenengo emanaldia Elgetan izango da. Abenduaren 1ean, berriz, Bilboko Arriagan izango dugu ikusgai; Gasteizko Printzipalen abenduaren 15ean; eta azkenik, Donostiako Kursalean abenduaren 22an.

Debagoieneko IV. Jardunaldiak Bergarako gaztetxean

L.B. | BERGARA

Laugarrenez antolatu dituzte Debagoieneko Jardunaldiak. Helburu bi dituzte: bata, bialarako gaztetxeetako, gazte asanbladetakoa eta inguruko eragileetako jendeak elkar ezagutzea; bestetik, gai sozial eta politikoetan formazio teorikoa lortzea.

Bergarako gaztetxean egingo dira jardunaldi guztiak, lehena izan ezik. Hilaren 29an emango zaie hasiera, Irizar jauregian, Emilio Lopez *Beltza*-ren liburuarekin: *ETAren historia armatuaren estrategiaz*. Liburua Lopezek 1980tik 2011ra idatzitako iritziz artikuluen memoria da.

Azaroaren 30ean, bi jardunaldik hartuko dute lekua: batetik, *Zer daukagu fracking-aren aurka?* hitzaldia; bestetik, *Ipar Koreari buruzko beste ikuspegi bat* solasaldia egingo da Ipar Korean bizi izan den euskal herritar baten eskutik, 18:00etan hasita. Ondoren afaria egingo dute.

Abenduaren 1ean, 11etan hasita, hiru jardunaldi egingo dira: *Elikadura burujabetza*, *Kapitalismoari kritika* eta *Herrien erantzuna* izenekoak, Paul Nicholson-ek gidatuta. Ondoren, Josu Uribetxeberriaren kasuaren gaineko solasaldia egingo da Herrira taldearen eskutik.

Antzuolako eta Oñatiko gaztetxe berrien aurkezpene ere egingo dute. Eta gaia borobiltzeko, *Generoa eta gaztetxeak* hitzaldian Euskal Herriko gaztetxeen gaineko azterlan aurkeztuko dute. Eguna borobiltzeko, Turboshit bergararren eta Zuen Aizkenera talde oñatiarraren doinuak izango dira zuzenean.

Jardunaldiak amaitzeko, domekan, abenduaren 2an, beste bi jardunaldi izango dira. Goizean hiru orduko ibilaldia egingo da AHTren obrekin egiten ari diren txikizioak gertutik ikusteko. Arratsaldean, berriz, Joseba Azkarraga MUKO irakasleak *Euskal Harriak* liburuaren aurkezpene egingo du.

Josu Uribetxeberria

Jardunaldietan parte bat eskainiko diote Josu Uribetxeberria preso ohi arrasatearraren kasuari.

Udan Espainiako hedabideek eman dioten tratamenduz jardungo dute. "Astakeria asko entzun dira Uribetxeberriatik", azaldu dute jardunaldiko antolatzaileak.

Horregatik gonbidatu dituzte Herrira taldeko kideak, gertatutakoaz berba egiteko eta gertuagoko testigantza osatuagoak jasotzeko.

Razorlight taldeko Johnny Burrell, Taupa tabernan

Johnny Burrell abeslariaren proiektu berriak –Zazoolight– lagunarteko kontzertu bikaina eskaini zuen astelehenean Arrasateko Taupa tabernan. Soul, pop eta rock-and-roll doinuek bete zuten taberna. Kontzertuaren ostean, Taupan geratu ziren Burrellen talde berriko kideak jendearekin abesten eta solasean.



JAGOBA DOMINGO

Soineko laranja enkargatuta du Gosek, "diskorik onena" aurkezteko

- Bosgarren diskoa Bilboko itsasadarrean aurkeztu zuten, Sex Pistols-ek egin zuen modura
- Zuzeneko aurkezpena, berriz, Durangoko Ahotsenean egingo dute, azokarekin bat eginda

UBANE MADERA | ARRASATE

Aurkeztu dute Gose hirukotearen azken lana, laranja kolorekoa. Martitzenean aurkeztu zuten, Bilboko itsasadarrean, Ibaizabal, Sex Pistols-ek 1977an Tamesisen egin zuen antzera. "Gauza horiek bakarrik egin ahal dituzu gipuzkoarra izanda, ze, bestela, *bilbainada* hutsa bailitzateke. *Morboa* zeukan eta hala egin genuen. Aurkezpenak lagun eta ingurukoentzat egitea gustatzen zaigu, ez bakarrik kazetarietzat; lagunak batu genituen, kazetariak, ardoa eta urdaiazpikoa eraman genuen... sekulako gustua izan zen itsasontzia martxan jarri eta han jotzea", kontatu dute Ines Osinaga eta Jon Zubiaga *Osoron* Gosekideek Arrasate Irratian.

"Diskorik onena"

Bosgarren diskoa inoiz baino *Gosea* go dela nabarmendu du Osinagak. Are gehiago, azpimarratu du "Gosen diskorik onena" haxe dela. "Hustu dugu barrena. Letrak inoiz baino gogorragoak dira; esan dugu orain arte esatera ausartu ez garena. Gauza asko geneuzkan barruan gordeta eta atera egin ditugu".

"Atzerrian" grabatutakoa

Spamek ekoitzi du diskoa, tekno musikan ibilbide luzea duen bikoiteak. "Estatuan beti izan ditugu erreferente batzuk, tartean Spam. Argi genuen tekno mundura jo behar genuela, ze argi baitugu Gose talde teknoa dela, lan egiteko modua-rengatik, laborategian egiten dugulako lan. Eta beti gure kobazuloan sartuta, ohitura batzuk hartuta



Iñaki Bengoa, Ines Osinaga eta Jon Zubiaga diskoa promozionatzeko argazki baten. | GOSE

genituen; horiekin moztu gura genuen. Hala, atzerrira joan gara (Madrilera). Spamekoei proposamen bat egin, haiek onartu eta proiektuan irauli egin ziren. Emaizta, akaso, kanpotik ez da oso desberdin ikusten, baina guretako oso desberdina izan da, oso modu berezian egin dugulako lan".

Arrasatearren elkarlana

11 abesti jaso ditu hirukoteak. Eta horietatik hiruk, gainera, Arrasateko kutsu oraindik ere nabarmenagoa dute, Arkaitz Biain Anger taldeko ahotsaz gain (*Spam* kantua), Eneko Barberena (*Zaborra* kantua) eta Bad F-Line (*Désolé* kantua) ere izan dituzte-eta laguntzaile. "Anger oso gertu sentitzen dugu, nahiz eta



Zubiaga eta Osinaga Arrasate Irratian atzo, eguna. | ANDER MONEDERO

musikalki-eta ez dugun zerikusirik. Oso lagunak gara. Pentsa, ardan-degi batera joan ginen eta Iñaki (Bengoa) ardoa edaten ipini duten bakarrak dira. Eta Eneko ere oso gertu dugu. Askok gustatzen zaigu, eta argi genuen bere laguntza gura genuela letrak egiteko orduan. Eta gure letretan ibiltzeko edozeinek ez du baimena, e!".

Laranja zergatia

Diskaren laranja kolorearen zergatiaren arrazoia, berriz, dagoeneko medio guztietan azaldu bada ere, puntualizatu egin gura izan dute hori: "Kazetari bati ahots txikian kontatu niona orain titular guztietan jaso dute Egia da Garbage taldea gure erreferenteetako bat dela, batez ere, eurak ere laborategiko talde moduan ikusten ditugulako, eta diska hau haren omenalditxo bat izan daitekeela ere bai. Baina guk ez dugu bilatzen Garbageren musika egiterik. Gustatuko litzaiguke Garbageren moduko disko laranja bat egitea; baina ez dugu inoiz egingo, ez guk eta ezta beste inork ere".

Durangon lehenengo

Kontuak kontu, Osinagak dagoneko enkargatuta dauka "soineko laranja", diskoaren aurkezpena-ko. Durangoko Azoka eta bertako Ahotsenea aukeratu dute horretarako, zehazki, Ahotseneari "garrantzia" eman nahi izan diotelako. Baina "Arrasaten laster izango gara", azpimarratu dute. Eta gainera, iragarri dute zuzeneko desberdinarekin etorriko direla.

'Oñati eta Oñatiko auzoak', Irizarren disko berriak ikusi du argia

Oñati eta Oñatiko herria osatzen duten 16 auzoei eskainitako diskoa da

GOIATZ ARANA | OÑATI

"Urte asko daramatzat nire herriari musika egiteko pentsakizunari bueltaka, eta, gauza guztiekin bezalaxe, oraintxe izan da une egokia niretzat", azaldu du Juan Carlos Irizarrek diskoaren ezaugarri nagusia esplikatzeko.

Disko guztiz instrumentala da, 19 doinu osatuta, eta herriko txoko eta leku ezberdinek eragiten dituzten sentimenduak helarazi nahi ditu musika bidez.

Bakoitzak doinu ezberdina

Lehen doinua *Oñati* da, ezpata-dantza bat, kriskitinak edo kastañuelak barne, umetatik entzun izan baitizkie dantzariak Oñatin.

Ondorengo 16 doinuak Oñatiko auzoei eskaini dizkie (Araotz, Arantzazu, Goribar, Garibai, Zañartu, Santxolopetegi, Torreauzo, Zubillaga...). "Auzo bakoitzak doinu ezberdin bat du; bakoitzean egon izan naizenean sentitu dudana islatu nahi izan dut", dio. *Oroimenean* izeneko doinua

dator ostean, "fisikoki gurekin ez dauden pertsona orori zuzendua, gurekin ez egon arren gure pentsamenduan daudelako".

Eta azkenik, *Agurra*, amaiera aldera txalapartari ere tokia egiten dion zortziko bat.

"Helburua lortuta"

Doinuak osatzen asko gozatu duela, gustura egon dela eta entzule guztien gustukoa izatea espero duela aitortu du Irizarrek: "Ahots nagusia pianoa da, eta laguntzaile gisa daude oboea,



Manu Egaña zinegotzia, Pello Zabala eta Juan Carlos Irizar, aurkezpenean. | T. MADINA

soinua, txistua, saxoa... Askotan ez da orkestra sinfoniko baten beharrik izaten sentimendu sakon eta garbiak pertsonengana helarazteko, momentuan

ditudan instrumentuez baliatu eta doinu dotore eta lasaiak, erromantikoak egitean datza nire lana, eta helburua lortu dudalakoan nago".

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Zarugalden. Bi logela eder, egongela zabala, sukaldea eta komuna. Horrez gain, terraza zabala, balkoia, trastelekua, igogailua eta berokuntza indibiduala. Sukaldea eta komuna guztiz jantzita. 2006ko eraikina da. Interesatuok, idatzi zarugalde26@yahoo.es helbidera informazio edo argazkieske, edo deitu telefono zenbaki honetara: 660 20 58 92

Arrasate. Juan Carlos Guerra kalean etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Larrañaga optika gainean. 90 metro koa-drokoa. Prezio oso onean. Hiru logela, egongela eta komun batekin. Bi balkoi ditu etxeak. Etxea egoera onean dago eta bizitzen hasteko moduan. 616 50 67 28 edo 665 72 46 12

Arrasate. Krisira egokituriko prezioa. Etxe eraberritua salgai. Altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bikomun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. 650 010 515

Bergara. Bergarako erdialdean apartamentu berria salgai. Lursail txiki bat dauka. 695 70 11 72

Bergara. Bidekurutzeta kalean etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trastelekua. Guztiz berritua. Aukera oso ona. 114.000 euro. 618 44 38 44

Eskoriatzan apartamentua. Apartamentu eroso eta eguzkitsua salgai. Prezio negoziagarria. Aukera paregabea. Deitu telefono hauetara: 653 71 53 58 edo 637 42 70 12

Oñati. 68 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Sukaldea, egongela, bilogela eta komuna. Guztiz jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. Bero-kuntzarekin. 237.000 euro. 35 metro koadroko garajea aukeran. Egoera oso onean. Inigo. 659 72 06 64

Oñati. Lau logelako etxebizitza salgai. Bi komun, sukaldea, egongela eta trastelekua. Igogailua eta berokuntza indibiduala. Oso eguzkitsua. Prezio interesgarria. 635 06 24 79

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. 95 metro koadroerabilgarri. Etxebizitza berria, hirugarren solairuan. Igogailuarekin. Hiru logela eta bi bainugela. Dena kanpoaldera begira. Hilean 680 euro, komunitate gastuak barne. Argazkiak ikusteko begiratu helbide honetan: www.euskalnet.net/aguirre. 630 60 47 75

Arrasate. Erdialdean apartamentu berria ematen da errentan. Logela, bainugela, sukalde-egongela. Trastelekua. Pertsona batentzat edo bikoteentzat apartekoa. 639 17 49 52

Arrasate. Musakola auzoan, etxea alokagai. Hiru logela, argitasun asko eta egoera onean dago etxea. 679 97 76 46

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan San Lorenzo auzoan. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua, balkoia. Ganbara jabearekin partekatua. 550 €. 653 70 22 55

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan Kurtzebide kalean. Hiru logelakoa. 615 73 29 83

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Ahal bada erdialdean edo gertu. Hiru logelakoa. 679 60 08 48

Arrasate. Etxebizitza txiki edo apartamentu baten bila nabil errentan hartzeko. Deitu 653 72 43 19 telefonora.

Bergara. 2 edo 3 logelako etxebizitza alokairuan hartu nahi dut. 600 29 05 24

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. Prezio onean. Deitu 671 84 71 71 telefonora.

Bikote euskalduna Arrasaten pisu txiki baten bila. Bikote euskalduna eta arduratsua. Arrasaten pisu txiki baten bila gabiltza. Urtarrilean sartzeko. 636 38 81 00

105. ETXEA K OSATU

Arrasate. 250 euroan Eguinen logela ematen da errentan. Gastuak erdibana. Deitu 610 62 65 04 zenbakira.

Arrasate. Erdialdean gela ematen da errentan. 225 euro, gastuak barne. Hobeko emakumea bada. 943 77 13 02

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Inaki. 608 49 89 93

Bergara. Lagun bat behar da etxea osatzeko Bolun. Prezioa: 250 euro, dena barne. Wifiarekin. 670 85 86 68

Gasteiz. Logela ematen da errentan. Unibertsitate inguruan. 651 55 36 29

Logela handia errentan, Arrasaten. Logela handi bat emango nuke errentan, Arrasateko erdialdean. 629 80 77 73

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. 15,5 metro koadroko garaje itxia saldu edo errentan ematen da erdigunean. Kontze-zino-lturbide egoitza artean. Deitu 628 14 92 74 edo 943 77 08 02 telefono zenbakietara.

Bergara. Ibargarai kalean garaje itxia ematen da errentan. Maniobra egin barik sartzeko modukoa. 679 74 00 61

3. LOKALAK

ARRASATE

Taberna salgai alde zaharrean.
666 40 65 19

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. 54 urteko emakumea gertu lanerako. Interesatuok deitu 943 79 60 89 telefono zenbakira.

Arrasate. Emakume euskalduna garbitasunak eta plantxa egiteko gertu. Interesatuok deitu 699 54 17 27 telefono zenbakira.

Arrasate. Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko, bai etxean bertan bizitzeko edo orduka, baita garbitasun lanak egiteko ere. Deitu 682 31 97 37 telefono zenbakira.

Bergara, Arrasate edo Aretxabaleta. Neska lan bila etxeko lanak egiten edo nagusiak zaintzen. Tabernatan sukaldari. Oso langilea. Gidatzeko baimena eta autoa. Deitu 697 20 00 86 telefonora.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Bergara, Arrasate eta Aretxabaleta. Neska boliviarrak gertu nagusi eta umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Egu-nez, gauzez zein asteburuetan. Paperak eguneratuta dauzkate eta esperientziaduna naiz. 618 14 71 34

Bergara. Arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 665 75 41 32

Bergara. Umeak zainduko nituzke. 22 urteko neska euskalduna naiz eta umeekin esperientzia handia daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 68173361

Debagoiena. Daniela naiz eta pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia handia dut. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Egunez eta gauzez lan egingo nuke. 698 79 33 87

Debagoiena. Emakumea gertu etxe, lokal, taberna eta abarrak garbitzeko, orduka. 696 88 93 73

Debagoiena. Emakume gaztea eta lana egiteko behar handiarekin, gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko edota garbiketala lanak egiteko. 616 62 85 91

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Nagusiak zaintzen eskarmetunduna. 688 69 07 28

Debagoiena. Emakumea lan egiteko gertu, garbiketa lanak, etxean bertan nagusiak zaintzen. Fatna. 638 26 98 40

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. 943 76 52 39

